# Garapenerako udal-lankidetza Euskadin



Koldo Unceta (Zuzendaria)
Iratxe Amiano
Jorge Gutiérrez
Irati Labaien
María José Martínez
Michel Sabalza
Unai Villena
Idoye Zabala

EUSKAL FONDOA

eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

hegoa
INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL
NAZIOARTEKO LANKIDETZA ETA GARAPENARI BURUZKO IKASKETA INSTITUTUA

# Garapenerako udal-lankidetza Euskadin




Koldo Unceta (Zuzendaria)
Iratxe Amiano
Jorge Gutiérrez
Irati Labaien
María José Martínez
Michel Sabalza
Unai Villena
Idoye Zabala

Euskal Fondoak bultzatu eta finantzatu du ikerketa hau, eta Hegoa Institutuko (UPV/EHU) Garapenerako Lankidetza Politiken Analisi eta Ebaluaziorako Ikerketa Taldeak burutu du*.

(*)Euskal Unibertsitate Sistemako Ikerketa Taldea (IT 651-13), honako kideez osatuta dago: Koldo Unceta (Ikerlari Nagusia), Iratxe Amiano, Jorge Gutiérrez, Irati Labaien, María José Martínez, Michel Sabalza,Unai Villena eta Idoye Zabala. Ikerketa honen informazioa eta datuen bilketa eta tratamendua Unai Villenak burutu ditu.

EUSKAL FONDOA

Argitazailea:

Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

hegoa
INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL
NAZIOARTEKO LANKIDETZA ETA GARAPENARI BURUZKO IKASKETA INSTITUTUA

www.hegoa.ehu.es

UPV/EHU
Zubiria Etxea
Lehendakari Agirre Etorbidea, 81 • 48015 Bilbao
Tel.: 94 601 70 91 • Faxa: 94 601 70 40
hegoa@ehu.es

UPV/EHU
Carlos Santamaría Zentroa
Elhuyar Plaza, 2 • 20018 Donostia
Tel.: 943 01 74 64
maribi_lamas@ehu.es

UPV/EHU
Campuseko Liburutegia, 138 postakutxa
Nieves Cano, 33 • 01006 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 01 42 87 • Fax: 945 01 42 87
gema_celorio@ehu.es

Inprimaketa: Lankopi, S.A.
Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.
Itzulpena: Rosetta Testu Zerbitzuak, S.L.
Lege gordailua: Bi-860-2013
ISBN: 978-84-89916-83-8

**Aitortu-Ez komertziala-Lan Eratorririk Gabe 3.0 Generikoa Espainia**

Creative Commons-en lizentziapean dago. Aske zara lan hau kopiatzeko, banatzeko eta publikoki hedatzeko, betiere kontuan hartuta lanaren kredituak aitortu behar dittuzula, eta ezin duzula merkataritza xedetarako erabil. Ezin duzu lan hau bestelakotu, eraldatu edo lan eratorririk sortu hartarik abiatuta. Baimen osoa:

http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/

# Aurkibidea

Grafikoen aurkibidea 5

Taulen aurkibidea 7

Siglak eta laburdurak 9

1. Sarrera 13

1.1. Udal-lankidetzaren garrantzia 16

1.2. Azterketa kualitatiboaren premia 19

1.3. Ikerketaren helburuak eta egitura 21

2. Udal-lankidetzaren azterketarako erreferentziazko esparrua 23

2.1. Tokiko erakundeen garapenerako lankidetzaren gaitasunak eta mugak 25

2.2. Tokiko erakundeen lankidetza eta laguntzaren kalitateari eta eraginkortasunari buruzko eztabaida 29

2.3. Erreferentziazko esparru bat garapenerako udal-lankidetza ebaluatzeko 32

2.3.1. Udal-lankidetzaren helburuak 32

2.3.2. Baliabide eta eragileei dagokienez 35

2.3.3. Abian jarritako lankidetza- eta elkartasun-tresna eta mekanismoak 38

2.3.4. Politika gauzatzeko erabilitako baliabideei dagokienez 39

3. Tokiko garapenerako lankidetzaren alderdi nabarmenenak Euskadin 43

3.1. Laginaren hautaketa eta informazio-iturriak 45

3.2. Emaitzen azterketa 47

3.2.1. Udal-lankidetzaren helburuak 47

3.2.2. Baliabideei eta eragileei dagokienez 61

3.2.3. Abian jarritako lankidetza- eta elkarkidetza-tresnei eta mekanismoei dagokienez 75

3.2.4. Politika gauzatzeko ezarritako bitartekoei dagokienez 81

4. Ondorioak eta azken buruko gomendioak 95

4.1. Ondorioak 97

4.2. Gomendioak 101

Bibliografia 105

I. Eranskina 111

II. Eranskina 115

# Grafikoen aurkibidea

1. grafikoa: Lankidetza-politikari buruzko helburu esplizituak, udalerri-motaren arabera 48

2. grafikoa: Erakundeen sendotasunarekin eta tokiko garapenarekin zerikusia duten helburuen garrantzia, udalerri-motaren arabera 50

3. grafikoa: Garapenerako Hezkuntzari eta Sentsibilizazioari buruzko gaien tratamendua, udalerri-moten arabera 53

4. grafikoa: Udalek Garapenerako Hezkuntzaren eta Sentsibilizazioaren eremuan egindako jardueren gaiak, udalerri-motaren arabera 54

5. grafikoa: Laguntza Humanitarioko eta Larrialdiko jarduerak kontuan hartzen diren eta/edo sustatzen diren, udal-moten arabera 56

6. grafikoa: 3.2.1. atalean landutako gaien laburpena, udalerri-motaren arabera 61

7. grafikoa: Udalak eta udalerriko gizarte-eragileek lankidetza eragile bezala udal motaren arabera 62

8. grafikoa: Udalak eta udalerriko gizarte-eragileek lankidetza eragile bezala tresnen eta udal motaren arabera 64

9. grafikoa: Diru-laguntzen deialdietan tokiko eragileei emandako lehentasuna, udalerri-motaren arabera 65

10. grafikoa: Hitzarmenetan eta diru-laguntzen deialdietan tokiko eragileei ematen zaien lehentasunaren azterketa, udalerri-motaren arabera 67

11. grafikoa: Udal-administrazioaren baliabideak kontuan hartzen eta erabiltzen diren, udalerri-moten arabera 68

12. grafikoa: Tokiko udal-administrazioaren baliabideak erabiltzeko mekanismoak, udalerri-motaren arabera 69

13. grafikoa: Udalek beren udalerrietan sustatutako jarduera-motak 70

14. grafikoa: GGKEez bestelako tokiko gizarteko eragileei eta baliabideei ematen zaien garrantzia, udalerri-motaren arabera 71

15. grafikoa: Partaidetza-organoak, udalerri-motaren arabera 73

16. grafikoa: Partaidetza-organoak, udalerri-motaren arabera 74

17. grafikoa: 3.2.2. atalean aztertutako gaien laburpena, udalerri-motaren arabera 75

18. grafikoa: Jarduerei jarraitutasuna emateko erabilitako tresnak, udalerri-motaren arabera 77

19. grafikoa: Senidetzeak, gauzatuak eta aktibo daudenak, udalerri-motaren arabera 79

20. grafikoa: 3.2.3. atalean aztertutako gaien laburpena, udalerri-motaren arabera 80

21. grafikoa: Garapenerako lankidetza zer arlori atxikitzen zaion, udalerri-motaren arabera 83

22. grafikoa: Lankidetzaren ardura duten langile teknikoak, udalerri-motaren arabera 84

23. grafikoa: Langile teknikoek lankidetzako zereginetan gutxi gorabehera emandako denbora, udalerri-motaren arabera 85

24. grafikoa: 2011n lankidetzara bideratutako per capita aurrekontua (gehienekoa, gutxienekoa eta batez bestekoa), udalerri-motaren arabera 87

25. grafikoa: Lankidetzari buruzko informazioaren zabalkundea, udalerri-motaren arabera 91

26. grafikoa: Txostenen eta webguneen erabilera, udalerri-motaren arabera 92

# Taulen aurkibidea

1. taula. Lagineko udalerrietako politikako dokumentuetan eta diru-laguntzen deialdietan tokiko garapenari ematen zaion garrantzia 117

2. taula. Lagineko udalerrietan garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioa kontuan hartzeko tresnak eta bideak 119

3. taula. Lagineko udalerrietako sentsibilizazioa eta garapenerako hezkuntza politika-agirietan eta diru-laguntzen deialdietan 120

4. taula. Udalek edo udalen partaidetzarekin garapenerako hezkuntzaren eta sentsibilizazioaren esparruan sustatutako jarduerak 122

5. taula. Lagineko udalerrietan laguntza humanitarioko eta larrialdiko jarduerei ematen zaien garrantzia edo/eta bultzada 124

6. taula. Udala bera eta udalerriko gizarte-eragileak lankidetzaren arloko eragile gisa, askotariko tresnen bidez 125

7. taula. Aztertutako udalerrien diru-laguntzen deialdietan tokiko eragileei ematen zaien lehentasunaren azterketa 126

8. taula. Aztertutako udalerrien hitzarmenetan tokiko eragileei ematen zaien lehentasunaren azterketa 130

9. taula. Lagineko udalerrietan tokiko udal-administrazioaren baliabideak erabiltzeko dituzten mekanismoak 131

10. taula. Lagineko udalerrietan GGKEez bestelako tokiko gizarteko eragileek eta baliabideek duten inplikazioa 132

11. taula. Lagineko udalerrietako partaidetza-organoak 133

12. taula. Lagineko udalerriek sinatutako senidetzeak (gaur egun aktibo daudenak nahiz ez daudenak) 134

13. taula. Lagineko udalerrietan lankidetza zer arlori atxikita dagoen 135

14. taula. Lagineko udalerrietako lankidetza-eginkizunetarako erreferentziazko langile teknikoen ezaugarriak 136

15. taula. Lagineko udalerrietako lankidetza-eginkizunetarako erreferentziazko langile teknikoek zeregin horretan ematen duten denbora 136

16. taula. Lagineko udalerrietan lankidetzara bideratutako 2011ko ekitaldiko aurrekontua (osokoa eta per capita) 137

17. taula. Lagineko udalerrietako lankidetzari buruzko informazioa zabaltzeko tresnak 138

# Siglak eta Laburdurak

| | |
|---|---|
| LH eta L | Laguntza Humanitarioa eta Larrialdietakoa |
| GLO | Garapenerako Laguntza Ofiziala |
| BAO | Bizkaiko Aldizkari Ofiziala |
| GAO | Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala |
| ALHAO | Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala |
| CAD | Garapenerako Laguntza Batzordea |
| EAE | Euskal Autonomia Erkidegoa |
| AA.EE | Autonomia Erkidegoak |
| LD | Lankidetza Deszentralizatua |
| CMRE | Europako Udal eta Eskualdeen Kontseilua |
| CONFOCOS | Lankidetza eta Solidaritate Funtsen Kontseilua |
| GG.EE | Giza Eskubideak |
| EUDEL | Euskadiko Udalen Elkartea |
| FAE | Larrialdietarako Arabar Funtsa |
| FEMP | Udalerri eta Probintzien Espainiako Federazioa |
| FOCAD | Garapenerako Lankidetza Funtsa |
| GGKE | Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundea |
| BPG | Barne Produktu Gordina |
| SEAD | Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa |
| GHetaS | Garapenerako Hezkuntza eta Sentsibilizazioa |
| EB | Europar Batasuna |

# 1. Sarrera

Argitalpen honen abiaburua Hegoa Institutuaren Garapenerako Lankidetza Programen eta Politiken Azterketari eta Ebaluazioari buruzko Ikerketa Taldeak azken urteotan egin dituen lanen barruan kokatzen da. Zehazki, tokiko erakundeek garapenerako lankidetzan dituzten ahalmenak eta mugak aztertzea eta horri buruz eztabaida egitea da oraingo honetan aurkeztuko den ikerketa honen helburua. Horretarako, Euskal Fondoaren aginduz egindako Euskal Herriko 31 udalen lagin baten kasu-azterketa eta horiek alor horretan egindako ibilbidearen azterketa izan da abiapuntua.

Gauza jakina denez, azken urteotan asko ugaldu dira lankidetza dezentralizatuak leku batzuetan zein besteetan duen etorkizunari buruzko ikerketak. Azken hilabeteotan, esaterako, gai horri buruzko eta hainbat eremu edo autonomia erkidegori buruzko hainbat lan argitaratu dira (Martinez eta Santander 2010; Unceta et al. 2011 eta 2012; Iborra eta Santander 2012; Martinez, Medina eta Santander 2012). Horrek zerikusia du orain dela gutxi arte erkidego eta udal-administrazioek lankidetza-programetarako eta proiektuetarako egindako ekarpenek izan duten gorakadarekin; gertaera hori, edonola ere, nahiko berezia izan da Europa osoan. Kontuan hartu behar da Espainiako estatuko GLOaren garrantzizko parte bat Lankidetza Dezentralizatuari lotuta egon dela, eta zenbait unetan, GLOtzat hartzen diren funtsen % 15 inguru kudeatu duela horrek.

Edonola ere, eta aipatutako lan horiek argitaratu diren arte, lan gehienak kuantitatiboak izan dira, eta bereziki funtsen bilakaera aztertzea eta erakundeen arteko konparazioak egitea izan da horien azken helburua. Hori dela eta, beste azterketa mota batzuk, hain zuzen ere erakunde horien zeregina eztabaidatzeko helburua dutenak, bigarren mailan gertatu dira orain dela gutxi arte. Esan liteke, hortaz, tokiko erakundeek zenbat egiten duten izan dela kezka nagusia, egiten dutenaren eta ekintza horien helburuaren aurretik. Orain dela gutxi arte, finantza-krisiari lotutako tokiko administrazio eta erkidegoetako administrazio gehienen funtsetan izan den beherakada zakarraren ondorioz, indar handia hartu dute aurrera eraman diren politiken orientazioari eta norabideari buruzko eztabaidek.

Bestalde, lankidetza dezentralizatua aztertu izan den kasuetan, lankidetza-mota horren mugaketa nahiko nahasitik abiatuta egin izan da, oro har. Egiatan, lankidetzaren tipologia hori zentzu negatiboan definitu izan da ia gehienetan, hau da, lankidetza dezentralizatua gobernu zentralaren politikei edo funtsei hertsiki lotuta ez dagoen lankidetza orori esan izan zaio. Hau da, lankidetza dezentralizatutzat hartu denaren barruan sartu izan dira hainbat erakundek -autonomia erkidegoek, diputazioek, udalek, lankidetza-funtsek,

uharteetako *cabildo*ek, toki-garapenerako agentziek, unibertsitateek eta udal-eremuko beste erakunde publiko edo pribatuek- sustatu edo finantzatu dituzten ekimen guztiak.

Lankidetza dezentralizatuaren barruan sartu ohi den erakunde-aniztasun hori dela-eta, azterketetan ezin dira, zenbaitetan, horietako bakoitzaren ahalmenak eta rolak bereizi. Oro har, egindako azterketa gehienek multzo berean sartu izan dituzte bai eragile-mota guztiak bai jarduera-mota guztiak, eta horrek zaildu egin du eremu bakoitzean -ez bakarrik finantzaren eremuan- eskura dauden baliabideei eta tresnei buruzko azterketa zehatza, eta horren ondoriozko jarduera-aukeren azterketa. Eta zehazki udalaren eremuari dagokionez, tokikoan oinarritzen den lankidetza diputazioen eta autonomia erkidegoen lankidetzarekin nahastu izan da zenbaitetan, maila horietako bakoitzaren berariazko gaitasunak aztertu gabe. Gaitasun horiek, udalen kasuan, udal-lankidetzari buruzko esparru teoriko eta kontzeptualerako bidea egiteko aukera emango lukete, Autonomia Erkidegoen esparru gisa finkatu litekeenaren bestelakoa, neurri batean bederen.

### 1.1. Udal-lankidetzaren garrantzia

Unceta et al.-ek (2012) egindako lanean aipatzen den bezala, ezin esan liteke -ez zentzu hertsian, behintzat-, Euskadin garapenerako lankidetza-jardueren hasiera- edo sorrera-une jakin bat izan denik; edonola ere, 1980ko hamarraldiaren erdialdeaz geroztik nabarmentzen hasi zen gai horiei buruzko erakundeen kezka, eta udalek garrantzizko zeregina bete zuten prozesu horretan. Zenbait iturriren arabera, 1987. urtea izan zen euskal udalen nazioarteko lankidetzaren abiaburua, hain zuzen ere, saharar haurrak Donostiara iritsi zirenean eta Abanto-Zierbena Nikaraguako San José de Bocay udalerriarekin senidetu zirenean, han hil baitzuten Ambrosio Mogorron osasun alorreko boluntarioa (Euskal Fondoa, 1994). Era berean, garai hartan izenpetu ziren lehen senidetzeak saharar dairekin, Gasteiz eta La Güeraren artean (1987) eta Donostia eta Bojadoren artean (1988) hurrenez hurren; eta senidetza horiek direla-eta egin zituzten udal horiek garapenerako lankidetzaren alorreko jarduerak bultzatzeko lehenengo finantza-ekarpenak.

Eta 1988an jauzi kualitatibo handia egin zen udalerrien mailako garapenerako lankidetzaren eremuan, garrantzizko bi gertaerari lotuta. Alde batetik, Gasteizko Udalak, José Angel Cuerda alkatearen proposamenari jarraituz, udal-aurrekontuaren % 0,7 garapenerako lankidetza sustatzeko erabiltzea erabaki zuen. Gertakari aitzindaria izan zen hura, bai Euskadin eta bai

Euskaditik kanpo ere. Eta beste aldetik, Ertamerikarekin Lankidetzarako Euskal Fondoa sortu zen, Lasarte, Hernani eta Laudioko udalen laguntzarekin. Hura izan zen, hain zuzen ere, gaur egungo Euskal Fondoaren aitzindaria.

*Euskal Fondoa* erakundeari dagokionez, 1996an osatu zen formalki, nahiz eta, gorago aipatu den Ertamerikarekin Lankidetzarako Euskal Fondoaren baitan sorturiko hausnarketa- eta gogoeta-zereginekin eta bilakaerarekin abiatu. Ordutik, pixkana-pixkana gero eta udal gehiagok bat egin dute. Hasieran dozenaka udalek eta Arabako Foru Aldundiak osatzen zuten Fondoa; gaur egun, berriz, Euskal Fondoak 101 kide ditu guztira, eta lan-plataforma sendoa osatzen du, oso ekarpen garrantzitsua egiten diona euskal garapenerako lankidetzari. Aipatu bezala 1996an Euskal Fondoa sortu zelarik, garapenerako lankidetzaren aldeko Alkateen Manifestua kaleratu zen. Bertan, udalek hitz eman behar zuten *"gizarte hau, bai tokian tokiko mailan eta baita mundu mailan ere, gizarte bidezkoagoa eta berdintzaileagoa bihurtzearen alde"* jardungo zutela, *"gure herritarren solidaritate-sentimendu kolektiboa"* zabalduz; eta tokiko erakundeei dei egiten zitzaien, lankidetza dezentralizatuaren *"eragile aktiboen papera"* beren gain har zezaten, aurrekontuetan ekarpenak eginez eta harreman solidarioa ezarriz[1].

Laurogeita hamarreko hamarraldian, Euskal Herriko udal asko dokumentu bereziak osatzen hasi ziren garapenerako lankidetzan zuten parte-hartzea bideratzeko eta arautzeko, eta xede horretarako helburuak eta oinarri arautzaileak zehaztu zituzten. Gasteizek, esate baterako, 1992an argitaratu zituen lehenengo oinarriak; beste udal batzuek, aldiz, hurrengo urteetan argitaratu zituzten (Irunek 1993an, Bilbok 1994an eta Donostiak 1995ean). Poliki-poliki EAEko hainbat udalek jarraitu zioten prozesu horri, eta lankidetza bideratzeko hainbat oinarri eta tresna proposatu zituzten. Esparru horretan, euskal udalek milaka ekimen solidario sustatu dituzte azken 25 urteotan, era askotako entitate eta erakundeen bitartez.

Hala ere, EAEko udalek bultzatutako garapenerako lankidetzaren garrantziak gainditu egiten du hertsiki udalen eremua, izan ere, horietako askok, handienek batez ere, garrantzizko zeregina bete dute Euskadiko garapenerako lankidetzari buruzko eztabaidan. Talde teknikoen sorreraren eta plan estrategikoak osatzeko erabakiaren bitartez, udalaren eremuko lankidetzari zer norabide eman behar zaion eta udalek garapenerako euskal lankidetzaren barruan zer zeregin bete dezaketen eztabaidatzeko baldintzak sortu ziren. Udal handietako lankidetza-zerbitzuek betetako zeregin horrez gainera,

[1] *Euskal Fondoa*ren 1996-1999 memoriak.

ezinbestekoa da azpimarratzea *Euskal Fondoa*k gogoetari eta eztabaidari egindako ekarpena, izan ere, horren eragina funtsezkoa izan da udal ertain eta txikiek egindako lanean. Ildo horretatik, ez litzateke gehiegizkoa izango esatea haren laguntzarik gabe euskal udalen lankidetzaren ibilbidea oso bestelakoa izango zela.

Hori guztia, edonola ere, testuinguru orokorrago baten barruan kokatzen da: udalek lankidetzan izan duten parte-hartzeak bultzada handia izan du Espainiako estatuan azken bi hamarraldietan zehar, eta hori, aldi berean, foro zabalagoetan gai horri buruz sortu diren gomendioen barruan sartzen da. Halakoa da, esaterako, Europako Udalen eta Eskualdeen Kontseiluaren kasua, zeinak 1984an europar tokiko administrazioak eta eskualdeetakoak bultzatu zituen eremu horretan laguntzera; edo Hiriak eta Garapena europar sarearen kasua, 1985ean Kolonian sortu, eta udalerriak, udal-federazioak eta GKEak bildu zituena. Hark argitaratutako *Karitatetik justiziara* manifestuak eragin handia izan zuen, eta baita bultzada handia ere esperientzia aitzindariak egiteko. 1988an Madrilen izan zen Interdependentzia eta Solidaritateari buruzko Europar Kontseiluaren Konferentziak tokiko erakundeen solidaritatea bultzatzeko aholkua eman zuen, eta handik urtebetera Interdependentziarako eta Munduko Solidaritaterako Europar Zentroa sortu zen. Lisboan hartu zuen egoitza Zentroak, eta lankidetza dezentralizatua bultzatzea izan zen haren helburua. 1990ean Bulawayon (Zimbawe) izan zen Ipar-Hego Nazioarteko Konferentziak besteak beste honako ondorio hauek proposatu zituen: politika orokorren norabidea alda zezaten bultzatzeko, Iparraldeko eta Hegoaldeko tokiko agintariek beren gain hartzea gobernuetan eta parlamentuetan eragiteko erantzukizuna, eta 1992an *Hiriak eta Garapena* izenburuko Berlingo Konferentzian berriro ere adierazi zen tokiko gobernuek Hegoaldearekin lankidetzan jarduteko modu berriak ezarri behar zituztela, izan ere, garbi geratu baitzen agintari publikoen epe laburreko politikek porrot egin zutela, hainbat mailatan, Iparra-Hegoa (FEMP, 2007) arazoei modu egokian heltzerako orduan. Testuinguru horretan esan liteke udal-lankidetza bultzatzeko prozesuaren oinarrian zeuden kezkatako batzuek zerikusia zutela beste maila batzuetako emaitzak eskasak zirela egiaztatu izanarekin eta, tokikotik abiatuta, lankidetza ulertzeko eta aurrera eramateko baliabide alternatiboak bilatzearen aldeko erronkarekin.

Espainiaren kasuan, udal-lankidetzaren sorrera 80ko hamarraldikoa da, aurretik azaldutako joeren ildo beretik. Hala ere, laurogeiko hamarraldiaz geroztiko % 0,7 mugimenduaren bitartez, udalerri ugaritara zabaldu zen parte-hartze hori (FEMP, 2011a). Batean baino gehiagotan adierazi bezala, mugimendu horrek autonomia erkidegoetan eta udaletan eragindako presioa oso nabarmena izan

zen. Ildo horretatik, aditu askoren ustez, Espainian lankidetza dezentralizatuaren eremuan egindako jauzi kuantitatiboak lotura estua izan zuen GGKEen eta % 0,7ren aldeko mugimenduaren protagonismoarekin eta horiek egindako presioarekin; eskaera horiek, askotan, aurrekontuko zuzkidura bidez gauzatu ziren, eta ez zen horiekin batera autonomia erkidegoek edo udal-eremuko administrazioek garapenerako lankidetzan betetzen duten zereginari buruzko gogoetarik batere egin.

Azken bi hamarraldietan zabalkunde handia izan duen gertaera baten -udal-eremuko lankidetzaren- aurrean gaude, beraz; edonola ere, azken urteotan hainbat arazo hauteman dira, finantza-krisiak tokiko erakundeetan izan duen eraginaren ondorioz. Hala eta guztiz ere, neurri batean, udal-lankidetzaren garrantzia lausotu egin da, izan ere, lankidetza dezentralizatuaren testuinguruan, gai horrek egin diren azterketa gehienen arreta bereganatu baitu. Hori dela eta, beharrezkoa da hertsiki udal-lankidetzaren alorreko proposamenen eta praxiaren inguruko alderdi berezietan sakontzea, era horretara hobeto egingo baitzaie aurre lankidetza horrek etorkizunean izango dituen aukerei.

## 1.2. Azterketa kualitatiboaren premia

Garapenerako udal-lankidetzaren azterketan sakonduz gero, ezin dugu ahaztu garapenerako lankidetza horrek Euskadin lortu duen garrantziak ezin dituela ezkutatu horren oinarriei eta norabideari buruz sortutako hainbat zalantza. Aurretik aipatu bezala, 80ko hamarraldian izandako zenbait eskarik adierazten zuten lankidetza dezentralizatuak oro har eta udal-lankidetzak zehazki irtenbide bat izan zitezkeela, beste maila batzuetan ikusitako porroten edo eskasen aurrean; baina denbora horretan ez da udaletan oinarritutako lankidetzaren osagai bereizgarriei buruz gogoetarik eta sistematizaziorik egin.

Azpimarratu dugunaren arabera, esparru honetan egindako ahalegin askok lotura izan zuten, hasieran, GGKEen eta % 0,7 mugimenduen eskakizunekin. Eskakizun horietan, tokiko erakundetako aurrekontuetan lankidetzari bideratutako diru-partidak bereizi beharra azpimarratzen zen, honela bigarren mailan uzten zuten udal-lankidetzari loturiko helburu zehatzei edo lankidetza horrek lankidetzaren egitura osoaren barruan bete zezakeen zereginari buruzko eztabaida.

Gertaera horren alderdi kuantitatiboetan jarritako arretaren ondorioz, udalek eremu horretan hartuak dituzten konpromiso finantzarioen arabera aztertu da, oro har, tokiko lankidetza. Azken urteotan lan eta txosten ugari

egin dira, burututako lankidetzaren, horretarako jarritako diruaren eta abian jarritako programa eta proiektu multzoen berri emanez. Euskal Herriaren kasuan aipatzekoak dira, besteak beste, Gonzalez et al. (2007) egileen edo Euskadiko GGKEen Koordinatzailearen (2008,2012) lanak.

Aurrekoa testuinguru zabalago baten barruan kokatzen da, zeinetan lankidetza dezentralizatua (bai autonomia erkidegoena bai udalena) alderdi kuantitatiboaren arabera baloratzeko joera nagusitu den denbora honetan guztian; hau da, helburu horretara bideratutako funtsen bolumenari erreparatu zaio, bai kopuru absolutuei bai kopuru erlatiboei dagokienez (aurrekontuari edo biztanle kopuruari). Ildo horretatik, ziurtzat jo izan da, oro har, tokiko lankidetzaren kalitatea kantitateari lotuta dagoela. *Zenbat eta gehiago hobe* esapideak oso ondo adierazi dezake erakunde batek eskakizunen aurrean izan dezakeen sentiberatasuna. Dena dela, ideia horrek beste pentsamendu oker batera eraman izan gaitu askotan, *gehiago eginez gero* lankidetza eraginkorragoa lortuko denaren ustea, hain zuzen ere.

Beste alde batetik, horrek guztiak zerikusia du beste instantzia batzuetatik, gobernu zentraletatik bereziki, bultzatutako lankidetza-jarduerek eragindako zuhurtasunarekin, izan ere, lankidetza hori era askotako konpromiso eta interesei lotuta dago, eta horrek mugatu egiten du laguntzaren garrantzia. Estatuz azpiko erakundeek lankidetza solidarioagoa eta baldintza gutxiagokoa proposatzeko orduan abantaila handiagoak eskaintzen zituzten ideia sendotu egin zen, besteak beste, estatuen kanpo-politikaren ondoriozko interesen edo herritarren kontrol eskasaren eraginez. Testuinguru horretan, autonomia erkidegoetako -edo udaletako- lankidetzak gobernu zentraleko erakundeek bultzatutako lankidetzak baino benekotasun handiagoaren patentea lortu zuen, hura hurbilagokotzat eta parte-hartze handiagokotzat hartzen baitzen.

Baina azken urteotan nabarmen gelditu da lankidetza dezentralizatuaren bitartez egin den ekarpenari buruzko gogoetan eta azterketan sakondu beharra dagoela. Faktore askok lagundu dute horretan. Alde batetik, autonomia erkidegoetako eta tokiko administrazioek emandako funtsen handitasunak egindakoa ebaluatu beharra azaleratu zuen, eta baita abian jarritako politiken benetako irismena aztertzeko beharra ere. Bigarrenik, lankidetza dezentralizaturako politiken kalitatearen eta eraginkortasunaren azterketan arreta jartzen zuten hainbat lan argitaratu ziren (Martinez eta Sanahuja 2009, Unceta et al. 2011). Lan hauetan, lankidetza politikak politika publiko moduan aztertzen ziren, proiektu espezifikoen tradiziozko analisitik haratago geratzen ziren azterketak izanda. Eta azkenik, azken urteotan, bat-bateko murrizketa

izan da funts horietan, Espainiako estatuari eragin dion finantza-krisiaren testuinguruan. Murrizketa horren ondorioz, lankidetza-politikak eta horien oinarri izan behar duten tresnak berraztertzeko premia sortu da.

Egoera horretan, lankidetza dezentralizatuari buruzko zalantza ugari sortu dira, laguntzaren berezitasunari eta orientazioari lotuak guztiak. Zenbaitek aditzera eman dute Autonomia Erkidegoek eta udalek bideratutako lankidetzak beste eremu batzuetako lankidetza-eskema berberak berregiteko joerari jarraitu diotela, gai berak lantzeko eta antzeko tresnez baliatzeko joera izan dutela, administrazio horien ahalmenei buruzko gogoeta alde batera utzita. Era horretara, Autonomia Erkidegoei eta tokiko erakundeei egotzitako abantailak lausotu egin dira, hein handi batean, lankidetza-eskema berak berregin izanaren ondorioz.

Aurreko guztiak aditzera ematen du, hortaz, azterketa zehatzagoa egin behar dela eremu horretan identifikatu litezkeen arazoei buruz, eta baita jardunbide egokiak zein diren argitzen lagun dezaketen esperientzia interesgarrienei buruz ere. Emandako funtsen kopuruan eta erakundeen finantza-konpromiso handian edo txikian oinarritutako azterketek bide eman behar diote azterketa kualitatiboagoei, hau da, egindako lanaren orientazioari eta dauden baliabideekin eta ahalmenekin duten harremanari buruzko eztabaida oinarri izango dituzten azterketak. Testuinguru horretan, lan honek euskal udalen esperientziaren azterketan jartzen du arreta, udal horiek ordezkatzen dituen lagin batean oinarri hartuta.

## 1.3. Ikerketaren helburuak eta egitura

Egindako azterketatik abiatuta, ikerketaren **helburu nagusia** euskal udalerriek bultzatutako lankidetzaren osagai nabarmenenak aztertzea izango da; azterketa hori, halaber, aurretik finkatutako erreferentziazko esparru batekin erkatuko da, era horretako lankidetzaren berezitasuna eta nortasuna zehazten duten osagaiak biltzen dituen esparruarekin, hain zuzen ere. Erkaketa horrek aukera emango luke, etorkizun hurbilean, hainbat alderdi zehatzetan sakontzeko; eta, ondorioz, *jardunbide egokiak* identifikatuko lirateke, arreta horietan jarri ahal izateko.

Honako hauek dira azterketa honekin bilatzen diren beste **helburu espezifiko** batzuk:

- Udaletatik abian jarritako lankidetza-estrategien egokitasuna eta koherentzia sistematizatzeko aukera ematen duten osagaiak zehaztea.

- Tokiko lankidetzaren eta beste erakunde batzuek, hala nola aldundiek edo autonomia erkidegoek, bultzatutako lankidetzaren arteko aldeak eta osagarritasuna aztertzeko irizpideak zehaztea.
- Udalei lankidetzaren lehentasunak definitzen lagun diezaioketen proposamenak egitea.
- Lankidetzarako erabilgarriak izan litezkeen eta lankidetza sektore berrietara zabaltzeko aukera eman dezaketen udal-eremuko baliabideen diagnostiko hobea egiteko aukera ematea.
- Tokikoaren eremuan hedadura eta esanahi berezia lor dezaketen lankidetzarako tresnak eta moduak identifikatzea.
- Tokiko edo udal-eremuko lankidetzari dagokion erreferentziazko esparru bat ezartzeko orduan, udal baten tamainak edo udalerri mota desberdinek eragin ditzaketen desberdintasunak diagnostikatzea.
- Datozen urteetan zenbait gai lantzeko eta eztabaida zehatzagoak bultzatzeko helburuarekin, udal-lankidetzaren etorkizunari buruzko hainbat gomendio proposatzea.

Proposatutako helburuak aurrera eramateko, ikerketa hiru atal handitan banatu da. Lehenik -2. kapitulua- lana zer erreferentzia-esparrutik egingo den azaltzen eta justifikatzen da; esparru horrek, halaber, kasuaren azterketan bildutako informazioa antolatzeko eta sailkatzeko balio behar du.

Bigarrenik, ikerketan aztertutako laginetatik lortutako emaitzak aurkezten dira, baliatutako metodologiaren azalpenetik abiatuta. Azkenik, ondorio nabarmenetako batzuk aurkeztuko dira, eta baita zenbait gomendio ere, etorkizunera begira.

# 2. Udal-lankidetzaren azterketarako erreferentziazko esparrua

Bigarren kapitulu honetan erreferentziazko esparru orokor baten premia azaltzen da, hortik abiatuta udalek aurrera eramandako lankidetza-politikaren azterketa egingo da, alderdi kuantitatiboetatik haratago, hau da, helburu horretarako baliatutako finantza-funtsetatik haratago. Aurrera eramandako proposamenen eta jardueren norainokoa aztertzeko balio duten zenbait osagai ahalik eta zehaztasun handienaz identifikatzea da helburua. Horretarako, ezinbestekoa da zehaztea zein diren udal-eremuko lankidetzaren doktrina-esparrua osatu beharko luketen eta, ondorioz, lankidetza hori ebaluatzeko erreferentzia izan litezkeen gai nagusiak.

Gai horri heltzeko, lehenik hainbat lanetan azaldutako hainbat alderdiri buruz jardungo dugu, udaletatik bultzatutako lankidetzari hainbat abantaila eta muga ekartzen dizkiotenak, hain zuzen ere. Bigarrenik, nazioarteko erakundeek laguntzaren kalitateari buruz adierazitako iritziek eta jarraibideek lankidetzaren alorreko tokiko politiken orientazioan izan dezaketen eragina aztertuko da. Eta azkenik, alderdi batzuk zein besteak abiapuntu hartuta, lau ataletan banatutako erreferentziazko esparrua proposatuko da, aipatutako politiken egokitasuna eta koherentzia aztertu ahal izateko.

## 2.1. Tokiko erakundeen garapenerako lankidetzaren gaitasunak eta mugak

Azaldu bezala, azken urteetan hainbat lan eta azterketa argitaratu dira udal-lankidetzari buruz, eta horietan lankidetza horren ezaugarriak zehazten saiatu dira, zenbait ahalmen eta muga kontuan hartuta.

Tokiko lankidetzaren abantailari eta ahalmenei dagokionez, CONFOCOSek (2001) duela hamar urte baino gehiago azpimarratu zuen udalerriak direla parte hartzeko bide zuzenena eta herritarrengandik hurbilen dagoena, udalen erantzukizun demokratikoa kontuan hartuta eta erantzukizun horien artean dago, hain justu, garapenerako lankidetzari lotua. Lan horretan bertan parte-hartze sozial handiagoak zekarren abantaila azpimarratzen zen, eta halaber jendea sentsibilizatzeko eta inplikatzeko eremu egokiagoa zela nabarmentzen zen. Garapenerako esku-hartzeen eremuan aipatzen zen, orobat, udalek tokian tokiko boterea indartzeko beste lurraldeetan betetzen duten zeregina, gizakien funtsezko premiak asetzera bideratutako politikak demokratizatuz eta finkatuz, eta halaber zehazten zen beren esperientzia eta ezagutza teknikoaren parte handi bat emateko aukera. Lan horretan aipatzen zen, bestalde, udalek zeregin interesgarria bete dezaketela hainbat gairen inguruko salaketari eta presio politikoari dagokionez, tokiko erakunde horiek ez baitaude hain baldintzatuta, kanpo-politikaren

eta beste hainbat gairen ondorioz. Azkenik, aipatzen zen udalen esparrua eremu berezia dela Iparraldeko eta Hegoaldeko herrien arteko solidaritate-sareak ehuntzeko, herritarrek hainbat erakunde motatan, sindikatuetan, ikastetxeetan, eta abarretan duten parte-hartzea abiapuntu hartuta. Gai horri dagokionez, udalek, herritarrengandik hurbilen dauden erakundeak izanik, gizarte-ekimen horiei laguntzeko erantzukizuna dutela azpimarratzen da, eta orobat haiena dela beren bokazio solidarioa gauzatzeko bideak eskaintzeko erantzukizuna.

Badia i Dalmases-ek (2009), Kataluniako kasuari buruz hitz egitean, udal-lankidetzaren ahalmenak deskribatzen ditu, eta eremu horretako lana sustatzeko udalek dituzten zortzi indargune identifikatzen ditu. Hona hemen, banan-banan, indargune horiek: Lehenik, kanpora begirako ekintzen helburuak eta tresnak dibertsifikatzeko gaitasun handiagoa dute. Bigarrenik, hainbat gairi buruzko ikuspegi bereziak eskaintzeko aukera dute, proiektu orokor handiei beren nortasuna eta berezitasunak erantsiz. Hirugarrenik, gertaera aldakorretara egokitzeko gaitasuna dute, harreman zuzena baitute unean uneko errealitateekin. Laugarrenik, administrazioaren beste eremu batzuetako tresnen eta tokiko agintaritzen osagarri dira. Ondoren, herritarren parte-hartzea dago, tokiko proiektuetan errazagoa eta zuzenagoa izan litekeena. Seigarren lekuan solaskideekiko harreman zuzena eta pertsonala dago; horrek konfiantza eta konplizitate handiagoa sortuko luke, eta baita politika eta lankidetza pertsonalizatuagoak ere. Zazpigarrenik, sarean lan egiteko aukera dute, tokiko eragileek trebetasun handiagoa baitute eremu horretan. Eta, azkenik, kapilaritatea dago, zeinari esker ekimen global bat lurralde baten azken bazterreraino eraman litekeen.

Unceta et al. (2011) egileak, bestalde, bat datoz aurreko hainbat iritzirekin, eta hiru ardatz handiren inguruan biltzen dituzte estatuez azpiko erakundeen ahalmenak. Alde batetik adierazten dute autonomia-maila handiago dutela diplomaziaren edo merkataritzaren alorreko gaiei dagokienez -Estatuek bultzatutako lankidetza, aldiz, era askotako interesen mende dago, larregi- eta milioika gizakiren bizitza hobetuko duen benetako eraldaketa ekonomikoaren eta sozialaren alde ekarpen handia egin dutela. Bigarrenik, aipatutako lan horrek tokiko erakundeek edo autonomia erkidegoetakoek zuzenean inplikatzeko gaitasun handiagoa dutela azpimarratzen zuen, eta baita tokiko garapen-prozesuen gainean eragiteko aukera handiagoa ere. Baieztapen horrek tokiko ekonomiaren garapenaren sustapenetik hurbilago dauden gaiekin lotura du, zerbitzu jakin batzuk ematearekin edo gizarte-sarea sendotzearekin, izan ere,

estatuek (bereziki tamaina handiko estatuek, hala nola Espainiak) beste lurralde-administrazio batzuk baino zailtasun handiagoak dituzte eremu horietan jarduteko eta baliabideak mobilizatzeko. Zehaztapen horretatik abiatuta, estatuz azpiko gure inguruko erakundeak, beren esperientzietan oinarri hartuta, egoera pribilegiatuan daude garapenerako lankidetzaren alorreko jarduеretan modu aktiboan parte hartzeko -beren baliabideak lankidetzaren zerbitzura jarriz-, tokiko garapena sustatzeko -garapen-mota horren aldaera guztietan- eta garapenerako programak beste herrialde eta lurralde batzuetan gauzatzeko erantzukizuna duten erakundeei eta organizazioei sendotzen laguntzeko. Azkenik, tokiko erakundeak herritarrengandik hurbilago daudela eta harreman handiagoa dutela azpimarratzen zen, eta ondorioz, aukera handiagoa dutela baliabideak mobilizatzeko eta erakundeen arteko itunak eta itun publiko-pribatuak egiteko.

Beste lan batzuetan ere (Euskal Fondoa 2007, Ruiz Seisdedos 2008, Van Ewijk 2008) gizarteko hainbat sektoreren hurbiltasuna eta eremu horretan parte hartzeko aukera handiagoa dela azpimarratzen da; horrek, bestalde, maila horietan presioa egiteko gaitasun handiagoarekin lotura du, erakundeen esku-hartzea eskatzeko orduan bereziki. Euskal Fondoak (2007) eremu horretako lanak dakarren balio pedagogikoa nabarmendu zuen, eta adierazi zuen herritarrek, oro har, hobeto ezagutzen dutela udal-eremuan egiten dena, eta, aldiz, ez dituztela ezagutzen estatu mailako politikak. Gai horri dagokionez adierazten da sentsibilizazioa errazago sustatu litekeela tokikoaren eremutik. Lan horietako batzuetan ere aipatzen da udalek baldintza gutxiago edukitzearen ideia, eta horrek estatu-mailako lankidetzaren aldean abantailak ekartzen dituela eta gai horri dagokionez askatasun-esparru handiagoa eskaintzen dutela azpimarratzen da (Ruiz Seisdedos 2008).

Euskal Fondoak (2007) tokiko politiken sustapenean izan duen esperientzia eta eskura dituen ezagutzen eta esperientzia teknikoak kontuan hartuta, indartu egiten du, halaber, udalerriek lankidetzan duten zeregina. Bontenbalek, bestalde, tokiko politiken esperientziaren ideia pobreziaren kontrako borrokarekin lotzen du (Bontenbal, 2009), kontuan hartuta pobrezia horrek mundu osoan gero eta gehiago duela hiri-aurpegia. Horrek guztiak, aldi berean, lotura du eremu horretan elkarrekiko lankidetza-harremanetarako ahalmen handiagoa edukitzeari buruzko hainbat gogoetarekin (Bontenbal 2009, Martínez eta Sanahuja 2009, Van Ewijk eta Baud 2009), izan ere, harreman horietan baliatu bailitezke udalerrien ahalmenak eta esperientziak, edonolakoak direla ere.

Azkenik, EBk tokiko agintariek lankidetzaren eremuan betetzen duten zereginari buruz egindako gogoetatik abiatuta FEMPak berak eztabaida horri egindako ekarpenak aipatutako ditugu. FEMPak (2011) gai horri dagokionez adierazi du tokiko agintariek balio erantsi guztiz berezia ematen dietela garapenerako prozesuei eta, garapen bidean diren herrialdeetan egiten diren ekimen zehatzetatik haratago, tokiko agintariek funtsezko zeregina betetzen dutela eragile guztiak mobilizatzeko eta elkarrekin lan egitera bultzatzeko; eta horrek guztiak garapenaren alorrean dituzten helburu komunak betetzera bideratutako prozesu parte-hartzaile bat eragiten du. FEMPek azpimarratzen du, halaber, tokiko erakundeek esperientzia zuzena dutela lurraldearen garapenean, dezentralizazioan eta gobernu demokratikoaren sendotasunean; hori, bestalde, bat dator gaur egun gobernu onari eta demokraziari buruz dagoen kezkarekin, eta tokiko erakundeek funtsezko papera jokatzen dute, inondik ere, prozesu horietan.

Hala eta guztiz ere, udal-erakundeek lankidetzaren alorreko politikak eta programak sustatzeko eta aurrera eramateko dituzten abantailei buruzko aurreko gogoeta horiek guztiek ezin ezkuta dezakete esparru horretan ere badirela oso kontuan hartu beharreko zenbait arrisku eta muga. Horietako bat CONFOCOSek (2001) zehaztutakoa da, hain zuzen ere, atomizazioaren arriskuari dagokiona; alegia, ahalegin txiki ugari biderkatzeak dispertsio-maila handia eragin dezake denboran zein espazioan, eta horrek, aldi berean, elkarrengandik urrun dauden geografia-eremuetan proiektu txikiak -osatu gabeak askotan- ugaltzea eta jarraipenik ez izatea ekarriko luke ondorioz. Lan horretan bertan zehazten zen, halaber, lankidetzaren gisako esparru batean erantzukizunak hartzeak zailtasunak ekartzen dituela zenbaitetan, izan ere, beti ez daude horretarako behar adina gaitasun eta baliabide.

Ruiz Seisdedosek (2005) eremu horretako lanaren hainbat muga aipatzen ditu, eta honako gertaera hauen ondoriozkoak direla adierazten du: udalen eremuan parte hartzen duten eragileen arteko koordinaziorik eza; aurrera eramandako jarduerak bereziki hauteskundeetarako estrategiaren eremura helburu argirik gabe mugatzearen arriskua; era horretako lankidetzaren ondorio mugatua, profesionalizazio eskasari lotua dagoena askotan; %0,7aren erreibindikazioaren ondorioz laguntzaren kalitatea alde batera uztea eta arreta ia guztia funtsen kopuruetan jartzea; edo erakundeen zatiketaren arriskua. Azken ideia horren aldekoa da, halaber, Badia i Dalmases (2009). Haren ustez, erakundeen arteko komunikazioa eskasa da autonomia erkidegoek eta tokiko erakundeek bultzatutako lankidetza-politikei dagokionez.

Unceta et al. (2011) egileek, bestalde, lankidetza dezentralizatuak udalerri handienetan bereziki eragiten dituen zenbait joera aipatzen dituzte beren lanean: Estatuen lankidetzari dagozkion zenbait eskema berregiten dira eta, aldi berean, uko egiten zaio jardun-eremuan bertan dauden ahalmenekin eta gaitasunekin bat egingo duen egitura berezi eta osagarri bat bilatzeari. Joera horren ondorioz, zenbait udal-administraziorentzat garapenerako lankidetzak beste administrazio batzuek ukitzen dituzten jarduera-eremu eta -esparru guztietara iritsi behar du, eta alde batera uzten dituzte berariaz udalera begirakoa izan litekeen politika. Horrekin batera, tokiko zenbait administraziotan lankidetza morrontza moduan ikusteko joera dagoela nabarmendu da, "eskaera" eredu sakabanatu eta ez oso eraginkorraren aldekoa, zeinaren bitartez politikaren zati handiena GGKEen eskakizunetara joaten den eta uko egiten dioten politikaren definizioan eta hori aurrera eramateko prozesuan tokiko administrazioek duten zereginari. Lankidetza ulertzeko modu horren eraginez uko egiten zaio, isilean, lurralde-administrazioek dituzten baliabideak erabiltzeari, esku-hartzeen parterik handiena erakunde pribatuen esku uzten da, eta aurrera eramaten den politika erakunde horiek ekitaldiz ekitaldi eskatzen dutenaren emaitza baino ez da.

## 2.2. Tokiko erakundeen lankidetza eta laguntzaren kalitateari eta eraginkortasunari buruzko eztabaida

Udal-eremuan oinarritzen den lankidetzaren ahalmenei eta mugei buruz aurretik aipatutako lan horietan adierazitako gaiez gainera, gure ustez badira beste hainbat gai lankidetza-mota horren azterketarako erreferentziazko esparru bat zehaztean kontuan hartu beharko liratekeenak. Horien artean dago laguntzaren kalitateari eta eraginkortasunari buruzko eztabaidarekin eta horrek oro har lankidetza dezentralizatuari eta zehazki udal-lankidetzari eragiten dion moduarekin zerikusia duen guztia.

Lankidetza dezentralizatuaren ikuspegitik, Parisko Adierazpena lurralde-erakundeen eta tokiko korporazioen jarduera-eremuko kezka nagusietatik nahiko urrun dagoen erreferentzia bat da, gure ustez; izan ere, Adierazpena bera aldebiko lankidetzari (estatuen artekoari) eta gobernu "emaileen" eta herrialde "hartzaileetako" kideen artean ezartzen diren harremanei eragiten dioten arazoetatik abiatuta sortuta dagoela ematen du. Garapenerako lankidetzaren ikuspegi horrek, hau da, estatuak lankidetza horren protagonista bakartzat hartzen dituen ikuspegi horrek, oso kontuan hartu beharreko hainbat arazo eragiten ditu. Herrialde-emailetzat hartzen direnei dagokionez, Parisko logikak estatuetako gobernuei lortu nahi duen elkarte berriaren protagonista gisa eta definitutako printzipioak aplikatzeko solaskide gisa

ematen dien monopolioak kanpoan uzten ditu garapenerako lankidetzaren garrantzizko beste eragile batzuk -hala nola estatuz azpiko erakundeak-, eta eraginkortasunaren printzipioak estatuetako gobernuen arteko elkarketaren mende uzten ditu eta jabetzeari edo lerrokatzeari buruzko gaiak estatu barruan lantzera mugatzen ditu.

Testuinguru horretan, garapenerako tokiko planak eta programak -garrantzi handiko erreferentzia osatzen dutenak- estatuetako gobernuek aurreikusitako plangintzen aldeko azterketatik kanpo gelditzen dira. Beste alde batetik, estatuen protagonismoa oinarri hartuta, elkarte-harreman horizontalagoak eraikitzeko asmoak ez du aintzakotzat hartzen herrialde batzuen eta besteen gizarte zibilak eta estatuz azpiko erakundeek osatutako sareen garrantzia, udal-administrazioek sustatutako eta kudeatutako finantza-fluxuena barne.

Parisko Adierazpenaren ondorengo urteetan, Accrako eta Busango goi-bileretan egindako lanetan elkarte inklusiboagoen premia azaldu da, hainbat eragile-motari lekua emango diotenak, hain zuzen ere. Edonola ere, Laguntzaren eraginkortasunari eta kalitateari buruz egindako eztabaidetan nagusi den logika orokorra, Paris-Accra-Busan sekuentzia, ez da oso erabilgarria tokiko lankidetzaren alorrean irtenbide eraginkorragoak proposatzeko.

Hala eta guztiz ere, tokiko oinarria duen lankidetza ezin azter daiteke lankidetza horren zentzua eta egokitasuna ebaluatzen lagunduko duten eraginkortasun eta kalitate irizpideetatik bereizita. Horretarako, Parisko Adierazpenean eta haren ondoren Accran eta Busanen aurrera eramandako garapenetan sortu diren zenbait gai intereseko erreferentzia izan daitezke irizpide horiek berriro interpretatzeko eta lankidetza dezentralizatuko politiketan, udal-lankidetzaren alorrekoetan bereziki, aplikatzeko. Horrek bertako herritarren jabetze-printzipioei, edo kontrako alderdien tokiko politikekiko lerrokatze-printzipioei eragiten die (politika horiek, bestalde, elkarren kontrakoak izan litezke edo gobernu zentralen politikekin liskarrean egon). Gogoeta horiek, halaber, elkarrenganako erantzukizunaren ideiari egiten diote erreferentzia, elkarte eraginkor eta inklusiboagoen eraikuntzarekin lotuta baitago hori, eta horrek *garapenerako toki-arteko elkarte* bihur ditzake. Eta, bistan denez, beste hainbat gairi ere eragiten die, hala nola emaitzen ebaluazioari edo prozeduren armonizazioari, nahiz eta azken horiek politika publikoei dagokien gai orokorrak izan.

Hori guztia dela eta, tokiko lankidetza-politikak ebaluatzen edo aztertzen hasteko erreferentziazko esparru bat osatzeko orduan, uste osoa dugu ezinbestekoa dela Parisko Adierazpenean eta, oro har, azken urteotan lanki-

detzaren eraginkortasunari buruz sortutako eztabaidetan agertutako printzipioekin zerikusia duten zenbait gai kontuan hartzea, beharrezko zehaztapenak eta egokitzapenak eginda, noski. Hori dela eta, kezka horiek hurrengo atalean aurkezten diren erreferentziazko esparrua osatzen dute.

Diagnostiko gehienek azpimarratzen dute laguntzaren kalitateari eta eraginkortasunari buruzko eztabaida eta proposamen gehienetan ez dela lankidetza dezentralizatuari buruzko aipamenik egiten, Parisko Adierazpenean bereziki; edonola ere, zenbait egileren ustez, hala nola Martínez eta Sanahujaren (2009) ustez, haren ondorengo Accrako Ekintza Planean egin zen bide horretatik nolabaiteko aurrerabiderik, eta zabaldu egin zen garapen-estrategien definizioaren fokua, eta baita eragileen zeregina ere.

Hala eta guztiz ere, lankidetza dezentralizatuari -eta oso modu berezian udal-eremukoari- oro har egotzi ohi zaizkion ahalmenetako batzuk lotura estua dute eztabaida horiekin. Zenbait egilek jabekuntzari buruzko kezkak elkarrekikotasunaren ezaugarriarekin lotu ohi dituzte (Bontenbal, 2009), eta balioa ematen diote hegoaldeko hiri askotan parte-hartze komunitarioaren alorrean dagoen tradizioari, iparraldeko hirien inspirazio-iturri izan bailitezke. Elkarrekikotasunaren ideia horren alde egiten dute, halaber, Van Ewijk-ek (2008) edo Johnson eta Wilson-ek (2006).

Martínez eta Sanahujak (2009) jabetzearen ideia -Parisko printzipioetako bat- eta herritarren parte-hartzea ere lotu ohi dute; azken hori da, hain zuzen, udal-lankidetzaren ezaugarri aipagarrienetako bat. Kontrako zentzuan, egile horiek aipatzen dute gobernu zentralekin egiten dituzten politiken eta udal-eremuetatik sustatzen direnen artean deskoordinazioa egoten dela askotan. Koordinaziorik ezak, haien ustez, hobetu beharreko tarte bat uzten du maila askotako politikaren harmonizazioari, irizpide komunen bilaketari eta prozedura administratiboen homogeneizazioa bultzatzeari dagokionez.

Hainbat egilek, bestalde, tokiko gobernuen eta, oro har, estatuz azpiko erakundeen parte-hartze eskasa aipatzen dute. Fernández de Losada et al.-ek (2009), bestalde, horrek guztiak dakarren arazoan jartzen dute arreta, eta parte-hartze horrek funtsezko hainbat gaitan, hala nola, ingurumenaren eta aldaketa klimatikoaren gaietan, duen garrantzia azpimarratzen dute.

Azken batean, tokiko gobernuek laguntzaren kalitateari eta eraginkortasunari buruz nazioarteko eztabaidetan betetzen duten zeregina azpimarratu behar da, eta gobernu horiek eztabaida horietan duten parte-hartze eskasak ez

du zerikusirik eremu horretan dauden ahalmen aipagarrienetako batzuekin. Azken urteotan aurrerabide txiki batzuk egin badira ere, eraginkortasunari eta kalitateari buruzko agiri garrantzitsuenek aldebiko eta alde ugariko lankidetzan jartzen dute oraindik ere arreta, lankidetza dezentralizatutik abiatuta alderdi horiek hobetzeko egin daitekeenaren ekarpen zehatzik aztertu gabe. Hori guztia, gure iritzian, garrantzi handieneko gaia da, oso kontuan hartu beharrekoa lankidetza dezentralizatuaren zeregina kontzeptualizatzeko orduan eta lankidetza horren azterketaren erreferentziazko esparru bat proposatzeko orduan.

## 2.3. Erreferentziazko esparru bat garapenerako udal-lankidetza ebaluatzeko

Aurreko bi ataletan egindako gogoetatik abiatuta, erreferentziazko esparru bat aurkeztuko dugu oraingo atal honetan, eta hori abiapuntutzat hartuta egingo da laginean parte hartutako udalerriek lankidetzaren esparruan egindako lanari buruzko azterketa. Horretarako, lau bloke handi hautatu dira, eta horietako bakoitzean hainbat gai sartu dira, funtsezkoak tokiko garapenerako lankidetzaren esparruan. Hona hemen bloke horiek:

### 2.3.1. Udal-lankidetzaren helburuak

Aztertu beharreko lehenengo blokea tokiko erakundeetatik bultzatutako lankidetza orientatzeko erreferentzia izan litezkeen edo erreferentzia izan beharko luketen helburuei dagokiona izango da. Aurretik aipatu bezala, udal asko sartu dira garapenerako lankidetzaren zereginetan eta nazioarteko solidaritatearen eremuan, gizarte-erakundeetatik, GGKEetatik bereziki, egindako presioaren ondorioz, eta, era horretara, gizartean dagoen sentiberatasunari erantzun diote. Baina lankidetzaren esparruan sartzeko modu horren ondorioz, ez da ia eztabaidarik egin proposatu beharreko helburuei dagokionez eta, zehazkiago, udal-lankidetzaren berariazko logika izan beharko lukeenari dagokionez.

Testuinguru horretan, garapenerako lankidetza definitutako profilak dituen jarduera-eremu bat dela eta tokiko erakundeek eremu horretan dirua besterik ezin eman dutela aditzera ematen duen ideia nagusitu da, zenbaitetan. Erakunde espezializatuei tokiko eremutik kanpoko zeregin eta helburu definitu batzuetarako finantza-baliabideen bitartez lagundu nahi zitzaien. Gainera, eta aurretik esan bezala, tokiko erakunde batzuek -handienek bereziki- maila garaiagoko lankidetzen eskema berei jarraitzeko joera izan dute, hau da, gai askotara iristen ahalegindu dira eta era askotako eskakizunei erantzun nahi izan diete. Gauza bat eta bestea dela-eta, jarraitu beharreko

helburuei eta udalek eremu horretan duten berariazko zereginari buruzko gogoeta urria izan da, inondik ere.

Gaur egun, lankidetza dezentralizatuaren etorkizunari buruz sortu diren galderek nabarmen utzi dute ezinbestekoa dela lankidetza horren helburuei buruz gogoeta egitea eta jarduerak tokiko erakundeek beste eragile batzuen aldean abantaila handiagoko eremuetan pilatzea. Horrekin batera, agerian gelditu da askotan lankidetzaren ibilbidea aztertzeko eta horren emaitzak ebaluatzeko interesa. Begien bistakoa dirudi behar-beharrezkoa dela gai horri buruzko gogoeta, eta, horretarako, balio handikoa izan liteke azken bi hamarraldietan udal-eremuko lankidetzan izan den esperientzia zabala.

Tokiko lankidetzaren helburuen definizio-mailari buruzko azterketak eta, hala dagokionean, jardun-eremu horren erdigune izan diren gaien azterketak hainbat ikuspegitatik du garrantzia, baina bereziki bi ebaluazio-irizpideri eragiten die zuzen-zuzenean. Alde batetik, egokitasun-irizpideari, zeinaren arabera jarduerek diagnostiko bati erantzun behar dioten eta diagnostiko horrekin koherenteak izan behar duten. Eta beste alde batetik, koherentziaren irizpidea, zeinaren arabera jarduera horiek koherenteak -eta osagarriak- izan behar duten beste maila batzuetatik gauzatzen direnekin.

Hori guztia kontuan hartuta, udaletatik proposatutako helburuekin eta tokiko garapenerako lankidetzak izan dezakeen zeregin bereziaren azterketarekin zerikusia duten alderdi zehatz horiek kontuan hartzea izan da gure azterketaren oinarria.

***a) Helburu argiak dauden edo ez***

Gure ustez, garapenerako lankidetza-jarduerek argi eta garbi definitutako helburuei erantzun behar diete -erakundeetatik bultzatutako beste edozein politikarekin gertatzen den bezala-, eta horiek, aldi berean, aurre egin nahi zaien arazoei buruzko diagnostikoari edo gogoetari erantzun behar diete. Orain dagokigun kasuan, eta aurretik esan bezala, udalbatzak beste instantzia batzuetan egindako diagnostikoetatik eta aurretik finkatutako pertzepzioetatik abiatu dira. Gainera, horietako gehienek ez dute arazo horiei buruzko diagnostikoa egiteko ez baliabiderik ez aukerarik. Hala ere, gure ustez horrek ez du eragozpena izan behar tokiko erakundeek eremu horretan egiten dituzten jarduerek argi eta garbi finkatutako eredu bati jarrai diezaioten.

Zentzu horretan, horien definizio-maila kontuan hartuko da, justiziari, solidaritateari edo giza eskubideei buruzko balio jakin batzuen aldeko eskakizun gutxi-asko orokorretatik haratago. Ikuspegi horretatik guztiz positibotzat

hartzen da tokiko erakundeek jarduera-esparru berezi batzuk definitzea, lankidetzak gizarte-erakundeen eskakizun aldakorren ondorio izateari utzi gabe.

### *b) Bi gai jakini emandako lehentasuna: tokiko erakundeak sendotzea eta garapenerako hezkuntza*

Aurreko lan batean (Unceta et al. 2011) lankidetza dezentralizatua aztertzeko eta ebaluatzeko osatutako metodologia oinarri hartuta, uste osoa dugu zenbait eremutan badagoela garapenerako lankidetzaren barruan udalek bete dezaketen garrantzi handiagoko zeregin bat. Tokiko erakundeen ezaugarriekin, ahalmenekin eta jarduera-eremuekin zerikusia duten esparruak dira. Bestalde, gai horiei dagokionez, praktikak ondo erakutsi du eraginkortasun handiagoa lortzeko aukerak, eta, hortaz, udal-lankidetzaren helburuak zehazteko orduan kontuan hartzeko erreferentzia izan litezke.

Bi gai horietako lehenengoak zerikusia du tokiko erakundeek tokiko instituzionalitatearen eta tokiko garapen-prozesuen sendotasunean arreta jartzeko premiarekin. Gai konplexua eta mugatzen zaila, hainbat alderdi hartzen baititu bere baitan. Gure proposamenean gaiaren ikuspegi zabal baten aldeko hautua egin dugu, erakunde publikoei buruzko gaiak zein oinarriko gizarte-erakundeei dagozkienak kontuan hartzeaz gainera, lotura komunitarioak eta prozesu parte-hartzaileak sendotzeari dagozkienak ere hartuko dituena. Bigarren gaiari dagokionez, zerikusia du tokiko lankidetzak sentsibilizazioan, garapenerako hezkuntzan eta gizartearen beraren konpromiso solidarioan bete dezakeen zereginarekin.

Hori dela eta, lagineko udalerriek aurrera eramandako lankidetzan bi gai horiek nola aztertu diren baloratuko da zehazki, bai begiratutako agirietan bai egindako elkarrizketetan jasotako iritzien bitartez.

### *c) Jardueren zeharkakotasuna kontuan hartzea*

Alor honetan lan egiten duten nazioarteko erakundeek egindako azterketa guztietan eta osatutako proposamenetan azken urteotan gehien errepikatu den kezkatako bat jardueren zeharkakotasuna izan da, gai jakin batzuei dagokionez bereziki. Horien artean lau dira nagusiak: sustatutako proiektuek edo programek pobreziaren kontrako borrokari nola laguntzen dioten; nola eragiten dioten genero-berdintasunari; nola lagunduko dioten ingurumenaren babesari; eta nola laguntzen dioten giza eskubideen babesari.

Esparru orokor horren barruan, eta orobat tokiko erakunde askotan sor litezkeen mugen barruan, interesgarria da aztertzea erakunde horiek kontuan

hartzen dituzten edo ez aipatutako gaiak. Gai horien zeharkakotasunaren tratamendua eta, hala dagokionean, zeharkakotasun hori nola bultzatu edo bermatu nahi den baloratu behar da.

***d) Beste gai orokor batzuk kontuan hartzea edo ez***

Aurretik aipatu bezala, zenbait udalek beste erakunde batzuetatik (estatukoetatik zein nazioartekoetatik) abiatuta osatutako lankidetzari buruzko diskurtsoa onartu dute, oro har, eta saiatu dira eskema berak berregiten helburuak zehaztu eta lehentasunak ezarri behar izan dituztenean. Zenbaitetan, horren ondorioz, eraginkortasuna eskasa izan da, bereziki udalek eraginkortasun txikiagoa badute jarduera horiek bultzatu edo aurrera eraman diren eremuetan.

Laguntza humanitarioa edo larrialdikoa da horren adibideetako bat. Eremu horretan, oro har, tamaina handiko jarduerak behar izaten dira, hau da, tokiko erakundeen eremutik kanpo daudenak. Zentzu horretan, interesgarria da aztertzea nola landu den gai hori euskal udalen lankidetzaren baitan, eta modu horretan, udal desberdinak eremu horietan dituzten mugez jabetu diren, horiei uko egin dieten edo beste erakunde batzuekin jarduera komunak sendotzera mugitu diren ikustea garrantzizkoa dela uste dugu.

***e) Udal-politiken koherentzia***

Azkenik, helburuekin eta lehentasunekin lotura duten bloke honetan garrantzi handikoa da tokiko erakundeek beren politiken multzo osoari dagokionez gutxi-asko koherenteak diren jarduerak proposatzen dituzten kontuan hartzea. Hain zuzen ere, eremu horretako erantzukizun nagusia estatuetako gobernuei dagokie, askotan horiek baitira merkataritza- eta finantza-politikak edo garapenerako lankidetzan defendatzen diren printzipioen kontrakoak bultzatzen edo sustatzen dituztenak.

Hala ere, gure ustez, eremu jakin batzuetan udalek badute politiken koherentziari laguntzeko aukera, hala nola udalen erosketen politikari, bidezko merkataritzarekin zerikusia duten gaiei eta beste batzuei dagozkionak. Horregatik interesgarria iruditzen zaigu aztertzea helburu hori zenbateraino izan den tokiko lankidetzak finkatutako lehentasunetako bat.

### 2.3.2. Baliabide eta eragileei dagokienez

Udaletatik bideratutako garapenerako lankidetza aztertzeko kontuan hartu beharreko bigarren gai-esparruak zerikusia du lankidetza hori aurrera eramateko dauden baliabideen diagnostikoarekin eta neurketarekin. Nolabait

esatearren, aurreko gaiarekin (helburuen gaiarekin) lotura estua duen gaia da, arazo beraren parte baitira biak: helburuak eta horietara iristeko eskura dauden baliabideak.

Zenbait udalen ustez, erakunde espezializatuei (GGKEei) dagokien gaia da garapenerako lankidetza eta programak, proiektuak eta jarduerak egitearen arduradunak ere haiek direla pentsatzen dute; era horretara, udalerrien papera finantzatzaile hutsarena izaten da. Bi ondorio ditu horrek: alde batetik, udalen gaitasun eta ahalmen ugari alferrik galtzen dira, bai eremu instituzionalean bai gizartearen eremuan. Eta beste alde batetik, egindako ahalegina hitzartutako funts finantzarioen ikuspegitik baino ez baloratzea eragiten du, dauden baliabideak mobilizatzeko erakutsitako gaitasuna eta horrek guztiak udalerrien bizitzan izan dezakeen eragina alde batera utzita.

Aurreko guztiak zerikusia du lankidetza-politiken ebaluazioari eta azterketari lotutako zenbait gai interesgarrirekin, jardueren koherentziari, eraginkortasunari eta beste ebaluazio-irizpideei eragiten baitiete. Gai horiek guztiak kontuan hartzeko moduari dagokionez, bi esparru nagusi hartu behar dira kontuan. Lehena diagnostikoari dagokio, hau da, udalerrian dauden eta garapenerako lankidetzaren alorreko jardueretarako balia daitezkeen baliabideak ezagutzeko kezkari. Eta bigarrenak zerikusia du aurreikusitako tresnekin eta horiek baliabide- eta gaitasun-mota desberdinak eransteko duten gaitasunarekin.

Hori guztia oinarri hartuta, tokiko lankidetza baloratzeko erreferentzia diren beste gai bereziago batzuk ere hartu dira kontuan. Hona hemen gai horiek:

***a) Lankidetzaren arloko jardueren zama nagusia udalerriak berak eta udalerriko gizarte-eragileek beren gain hartzeari eman zaion garrantzia***

Lehendabiziko gai hau, udal-lankidetza eta horren zeregina ulertzeko moduarekin zerikusia duen, aurretiazko gogoeta bat da. Zenbaitetan, tamaina ertaineko edo handiko udalerrien kasuan bereziki, tokiko erakundeen lankidetza-politikak funtsak alor horretara bideratzeko balio izan du, bertako gizarteak eta erakundeek parte hartu duten kontuan hartu gabe. Horrek lotura izan du, zenbaitetan, zenbait GGKE handiren jardunarekin, zehazki hainbat erakunderen finantzaketa duten -estatu mailakoena, autonomia erkidegoetakoena eta tokikoena- programak edo proiektuak bultzatzeko jardunarekin.

Horregatik, interesgarritzat jotzen da fenomeno hori Euskal Herriko udal-lankidetzaren baitan gertatzen den edo ez aztertzea. Zentzu horretan, kontuan

hartzen da lankidetza-jarduerak finantzatzeko deialdi irekiak egiten direnean edo beste tresna batzuk baliatzen direnean (hitzarmenak, etab.) horiek izaera orokorra duten edo berariaz udalerri bertako gizarte-ehunaren parte-hartzea bultzatzeko sortuak diren.

### *b) Udal-administrazioaren baliabideak kontuan hartzea eta erabiltzea*

Aztertu beharreko bigarren gaia tokiko administrazioan dauden baliabideak erabiltzeko kezka da; baliabide horiek, halaber, udal-kudeaketaren eremuko zerbitzu eta esparru ugarirekin dute zerikusia. Gai horrek, beraz, lotura du, lehenik, udala bera lankidetzaren eragiletzat hartzearekin eta, ondorioz, lankidetza zuzenari bideratutako zenbait baliabideren aldeko apustuarekin, hau da, lankidetza gizarte-erakundeen esku utzi gabe.

Ikuspegi horretatik, garrantzizkotzat hartzen da Euskal Herriko tokiko erakundeek udalen baitan dauden gaitasun teknikoak eta giza gaitasunak diagnostikatzeko eta, behin-behinean, lankidetza bera sendotzen laguntzeko erakutsi duten gaitasuna. Horregatik, ikerketak kontuan hartzen du zuzeneko lankidetzari emandako garrantzia eta lankidetza hori bultzatu denentz.

### *c) Tokiko gizarteko eragileen eta baliabideen inplikazioan jarritako arreta, GGKEetatik haratago*

Udalerrian dauden eta garapenerako lankidetzarako baliagarriak izan litezkeen baliabideei buruzko beste alderdi bat tokiko gizartean dauden gaitasunei dagokiena da, udal-administraziotik beretik haratago. Elkarteen esparruan, ehun ekonomiko eta/edo enpresarialean, osasunaren eremuan edo hezkuntzan, gizarte-mugimenduetan edo tokiko gizartearen beste eremu batzuetan dauden baliabideei eta gaitasunei buruz ari gara.

Zenbaitetan, lankidetzarako gizarte-baliabideak zeregin horretan espezializatuak diren erakundeekin, GGKEekin esaterako, identifikatu izan dira. Horregatik, euskal udalerriek bultzatutako lankidetzaren barruan gai horri nola heldu zaion eta gizartean dauden baliabideak nola diagnostikatu eta erabili diren ezagutzea eta baloratzea komeni da.

### *d) Partaidetza-organoak*

Azkenik, bloke honen barruan, gizarte-eragileek lankidetzaren alorrean gauzatzen diren jarduerak osatzeko, jarraipena egiteko eta ebaluatzeko prozesuan parte har dezaten aurreikusitako moduak hartuko ditugu lehenik

kontuan. Hauek atal honen barruan sartu ditugu, izan ere, harreman zuzena dago lankidetza hainbat eragiletara zabaltzeko kezkaren edo lankidetza eragile tradizionaletara mugatzearen artean.

Horregatik ikerketa honetan zer partaidetza-mekanismo formal eta informal dauden aztertzen da, eta baita, orobat, zenbateraino bideratzen diren mekanismo horiek aipatutako zabalkundea sustatzeko zereginetara ere.

### 2.3.3. Abian jarritako lankidetza- eta elkartasun-tresna eta mekanismoak

Tokiko erakundeek baliatutako lankidetza-politikak aztertzeko kontuan hartu beharreko azken gai-esparrua elkartasun-mekanismoei eta abian jarritako lankidetza-harremanei dagokiena izango da. Gai horri dagokionez esan beharra dago udalek sustatutako lankidetzari buruz diharduten hainbat lanetan aipatzen denez, udalek elkarrekikotasun- eta lankidetza-lotura egonkorrak errazago eratzeko abantaila edo ahalmena dutela, estatu mailako erakundeekin eta gobernuekin alderatuta.

Zentzu horretan, eta helburuen inguruan aipatutakoarekin lotuta, ezinbestekoa da azpimarratzea udalen esparruak antzeko arazoak dituela testuinguru geografiko batzuetan zein besteetan. Zehazki, udalek antzeko gizarte-erantzukizunei aurre egin behar diete herrialde batzuetan zein besteetan, beraz, esperientziak trukatzeko eta elkarri laguntzeko aukerak administrazioaren beste eremu batzuetakoak baino handiagoak dira. Bestalde, tokiko erakundeen funtzionamendu-sareak eta egiturak, udalerri ertain eta txikietan bereziki, erraz identifika litezke, eta ondorioz, beste leku batzuetan antzeko kezkak dituzten ordainak topa ditzakete; hortaz, esperientziak eta gaitasunak trukatzen direnean partaidetza-harreman emankorrak sortzen dira.

Horrek guztiak lotura du, aldi berean, garapenerako lankidetzari buruzko lan berrienetan eta lankidetza horren eraginkortasunari buruzko azterketetan berebiziko garrantzia duen gai batekin. Elkarrenganako erantzukizunari eta emaileetan eta hartzaileetan oinarritutako ikuspegi tradizionala gainditu beharreko premiari buruz aipatutako printzipioari buruz ari gara; beraz, zinez kontuan hartu beharreko ebaluazio- eta azterketa-irizpide bat da.

Ikuspegi horretatik, berezitasun hori kontuan hartuko duen lankidetza aurrera eramateko eta solidaritate-loturak ehuntzeko eta topaketa-guneak osatzeko gai izango den lankidetza aurrera eramateko gaitasuna ere aintzat hartu behar direla uste dugu, proiektu edo jarduera berezi eta sakabanatuen finantzaketatik haratago. Kezka horrekin bat eginik, gure ikerketa alderdi hauen azterketan oinarritu da:

### *a) Garapenerako lankidetzaren esparruan gauzatutako jardueren jarraitutasuna*

Tokiko erakundeek garapenerako lankidetzaren alorrean egindako jarduerek zer denbora-mugak dituzten kontuan hartzea da lehenengo alderdietako bat. Alor horretan, halaber, ezinbestekoa da egiten den apustu-mota eta gauzatutako jardueren sakontasunari buruzko azterketaren aurrean jarduera horretarako emandako funtsen bolumen osoari ematen zaion garrantzia ikustea. Jarduera horien jarraitutasunari eta intentsitateari dagokionez, sakabanatuta edo modu puntualean egin diren aztertzea da helburua.

Ondorioz, oso interesgarritzat hartzen da gai horiek argitzen lagun dezaketen euskal udalerrietako lankidetza-politikaren alderdi guztiak aztertzea. Alderdi horien artean honako hauek daude, besteak beste: erabilitako tresnak, plangintzaren denborazko mugak edo urte anitzeko finantzaketa lortzeko aukerak.

### *b) Elkarguneak eta elkarrekikotasunerako guneak sortzeko gaitasuna, lankidetza-harreman horizontalen esparruan*

Bigarrenik, antzeko erantzukizunak, kezkak edo jarduera-eremuak dituzten entitateei eta erakundeei elkartzeko aukera emango dieten topagune eta elkarrenganako lankidetzagune gutxi-asko egonkorrak sortzeko gaitasuna aztertzeko premia adierazten da. Lankidetzaren ikusmoldea bera logika horizontalago batetik baloratzea da helburua, hau da, esperientzien trukea bultzatuko duen eta emaile-hartzaile ikuspegi tradizionaletik urrunduko den logikatik.

Eremu horren barruan interes handiko tresna bat nabarmentzen da, logikoa denez: udalerrien arteko senidetzeak eta garapenerako lankidetzari begira duten orientazioa. Ahalmen handiko mekanismo bat da eremu askotara zabal daitekeen lankidetza-harreman egonkorra lortzeko. Edonola ere, senidetze horiek udal-administrazioen arteko harremanen ikuspegitik ez ezik, senidetutako udalerrietako hainbat eratako erakundeak eta entitateak elkartzeko gaitasunaren ikuspegitik ere aztertu beharko lirateke, era horretara baliabide elkarren guztiz desberdinak baliatzen baitira. Horregatik guztiagatik interesgarritzat hartzen da alderdi horiek atal honen barruan baloratzea.

### 2.3.4. Politika gauzatzeko erabilitako baliabideei dagokienez

Azkenik, erreferentziazko esparru honen barruan kontuan hartu dugun laugarren eta azken atalak zerikusia du proposatutako politika eraginkorra

izan dadin erabilitako baliabideekin, izan ere, berebiziko garrantzia du politika horren benetako sendotasuna baloratzeko orduan.

Gai horrek bi alderdi ditu, aldi berean: alde batetik, beharrezkoa da kontuan hartzea asmoen adierazpenaren eta proposatutako helburuen eta horiei aurre egiteko erabili diren baliabide egokien arteko harremana. Baina bada kontuan hartu beharreko interes handiko beste gai bat ere, hain zuzen ere, helburu horretarako kontuan hartutako tresnei dagokiena, jarduerak finantzatzeko erabilitako funtsetatik haratago. Zentzu horretan, konpromisoaren ikur gisa emandako kopuruei oro har eman izan zaien garrantziak ezkutatu egin du lankidetza modu eraginkorrean kudeatzeko erabilitako baliabideen ahultasuna eta lankidetzaren emaitzen azterketari emandako garrantzi eskasa.

Atal honetan aztertutako alderdiek lotura dute azterketarako eta ebaluaziorako hainbat irizpiderekin, hala nola, koherentziarekin, eraginkortasunarekin, emaitzei begirako kudeaketarekin. Horregatik, garrantzizkoa da gai horiek guztiak tokiko erakundeek aurrera eramandako lankidetzaren azterketaren barruan analizatzea. Honako hauek dira horri dagokionez kontuan hartutako gaiak:

***a) Gogoetarako eta/edo plangintza estrategikorako agiriak***

Lankidetza-politika bultzatzeko eta kudeatzeko dauden baliabideen barruan, interesgarria da lehenik politika hori nola zehaztuta dagoen kontuan hartzea. Lankidetza-politikaren helburuak eta tresnak dokumentu zehatzetan agertuz gero, politika hori zenbateraino bete den azter daiteke, eta orobat ebalua daiteke zenbateko koherentzia dagoen proposatutako helburuen eta xedatutako baliabideen artean.

Argi dago lankidetza-politikak diseinatzeko gaitasuna, maila handi batean, udalen tamainaren eta helburu horretarako erabilitako baliabideen bolumenaren araberakoa dela. Edonola ere, interesgarria da baloratzea garapenerako lankidetza aurrekontuko diru-kopuru bati lotutako printzipioen aitorpen bat baino gehiago izan den eta eztabaidatu, aztertu eta ebaluatu daitekeen benetako estrategia baten barruan sartu den, nahiz eta estrategia apala izan.

***b) Lankidetzaren kudeaketa-organoak eta horiek politika gauzatzeko duten gaitasuna***

Aurreikusitakoa gauzatzeko eta proposatutako helburuak iristeko bidean aurrera egiteko gaitasunarekin zerikusia duen bigarren gaiaren barruan

sartzen dira kudeaketa-organoak eta horretarako erantzukizuna duten pertsonak edo giza taldeak.

Oro har, udal batzuek zein besteek lankidetza-programen kudeaketa nola burutu duten ezagutzea komeni da, eta baita horrek gainerako udal-organoekin duen harremana ezagutzea ere. Gainera, garrantzizkoa da lankidetzan diharduten giza taldeek zer prestakuntza duten jakitea; edonola ere, agindutako zereginaren garrantzia eta orientazioa kontuan hartuta egin beharko da.

### *c) Baliabide ekonomikoak eta aurrekontu baliabideak, eta horren aurreikusgarritasuna*

Finantza-baliabideen gaia da garapenerako lankidetzari buruz egiten diren azterketetan gehien landu ohi den gaia, inolako zalantzarik gabe. Gure iritziz, udalek lankidetza-programak edo -proiektuak finantzatzeko funtsak edukitzea ez da, nahitaez, erabilitako baliabideen osagairik garrantzitsuena, ezta adierazgarriena ere. Hala ere, ez dago zalantzarik funtsen hornikuntza hori garrantzizko gaia dela eta, gainera, zeregin horri dagokionez udalek duten konpromisoaren adierazgarri ere badela.

Horregatik, interesgarria iruditzen zaigu finantza-baliabideen hornikuntza, horrek izan duen bilakaera eta denboran zehar aurreikusi ahal diren aztertzea. Bestalde, interesgarritzat hartzen da aurrekontuaren barruko hornikuntza hori zer erreferentziaren bitartez zehazten den jakitea.

### *d) Sustatu eta gauzatutako jardueren ebaluazioa*

Garapenerako lankidetzaren alorreko jarduerak aurrera eramateko baliatutako baliabideak aztertzen direnean, garrantzizkoa da lankidetza bera aztertzeko eta horren emaitzak analizatzeko gaitasuna. Horrek zerikusia du ebaluazioak egiteko eta horiek kontuan hartzeko ardurarekin.

Ardura horren arabera, alor horretan zer aurreikuspen dagoen eta ebaluazio horiek benetan egin diren aztertzen da, bai barruko bai kanpoko baliabideen bitartez.

### *e) Beste erakundeekiko eta administrazioaren beste eremuekiko koordinazioa*

Atal honetan kontuan hartu beharreko bosgarren gaia lankidetzaren alorrean egindako jarduerak maila bereko edo maila garaiagoko beste erakunde batzuek egindakoekin osatzeko edo koordinatzeko aukerari dagokio.

Horrek garrantzi berezia du udal txikien kasuan eskasak baitira erabiltzen diren baliabideak.

Eremu horretan, garrantzizkotzat jotzen da udalen arteko lankidetzaren esparruan zer kezka dauden eta zer hitzarmen lortu diren ezagutzea eta aztertzea, arreta berezia emanez Euskal Fondoan duen parte-hartzea eta parte-hartze horren izaera. Erakundeetako beste eremu batzuekin dauden loturak eta udalaren lankidetza-politikaren eta beste lurralde-esparruetatik bultzatutakoaren arteko harremana ere baloratuko da.

### *f) Lankidetza-jarduerei buruzko informazioa emateko eta zabaltzeko tresnak*

Azkenik, gure ustez nahiko interesgarria da beste eremu hau ere, hain zuzen ere, lankidetza-politika gauzatzeko baliatutako baliabideekiko kezka erakusten duena. Herritarrei informazioa emateko tresnei buruz ari gara: aukera emango dute lankidetza-jarduerak gehiago zabaltzeko, horien inguruko adostasun handiagoa lortzeko eta baliabide berriak behin-behinean txertatzeko.

Ikuspegi horretatik, udalek helburu horretarako berezko baliabideak badituzten baloratuko da, edo baliabide orokorren barruko guneak dituzten. Horien barruan baloratuko dira, besteak beste, webguneak, memoriak edo informazio-buletinak.

# 3. Tokiko garapenerako lankidetzaren alderdi nabarmenenak Euskadin

Aurreko atalean zehaztutako erreferentzia-esparrutik abiatuta, gure ikerketan saiatu gara esparru hori EAEko udalek aurrera eramandako lankidetzarekin kontrastatzen. Zeregin horretarako lagin bat hautatu dugu, lankidetzaren eremuan jarduerak egin dituzten euskal udalez osatua, eta egindakoaren eta aipatutako erreferentzia-esparruaren arteko egokitasun-maila aztertzeko helburua izan dugu.

Hemendik aurrerako orrietan lan horretatik lortutako emaitzak azalduko dira, laginaren hautapenari buruzko azalpen labur bat eman ondoren.

## 3.1. Laginaren hautaketa eta informazio-iturriak

Aipatutako lagin hori hautatzeko, hasierako datu-base bat eratu da, eta EAEko udalen informazioa bildu da bertan. Udal horietako bakoitzari dagokionez, honako gai hauei buruzko informazioa bildu da:

- Lankidetzarako erabiltzen diren tresna-motak eta kopuruak.
- Lankidetzan erabilitako baliabideak (ekonomikoak eta giza baliabideak).
- Lankidetzaren alorrean duen tradizioa (antzinatasuna).
- Espezializazioa/jardunbide egokiak/berrikuntza lankidetzaren esparru jakin batzuetan.

Datu-base horretatik abiatuta, udalen atariko hautaketa egiteko, aurreko irizpide horiez gainera, beste bi irizpideri jarraitu zitzaien: lurraldeen arteko oreka (ahal den neurrian, hiru herrialdeetako udalen arrazoizko proportzioari eustea) eta udalen tamaina (saiatu gara biztanle kopuruaren arabera hiru udal mota sailkatzen -hiriburuak, 10.000 biztanletik gorako udalak eta 10.000 biztanletik beherako udalak-).

Irizpide horiek kontuan hartuta, ikerketa-taldeak atariko hautaketa bat egin zuen, eta, ondoren, Euskal Fondoarekin kontrastatu zuen. Kontrastazio horren ondorioz, doikuntza txiki batzuk egin ziren, eta, azkenik, udal hauek hautatu genituen ikerketa hau egiteko: Abadiño, Abaltzisketa, Amorebieta-Etxano, Amurrio, Andoain, Aretxabaleta, Azkoitia, Barakaldo, Berastegi, Berriz, Bilbao, Donostia, Durango, Elorrio, Erandio, Ermua, Getaria, Getxo, Güeñes, Hernani, Ibarra, Irun, Lasarte-Oria, Laudio/Llodio, Lekeitio, Maruri-Jatabe, Oñati, Ordizia, San Millán/Donemiliaga, Santurtzi, Vitoria-Gasteiz eta Zizurkil.

Hautatutako udal horiek aurretik finkatutako hiru kategorien arabera banatu eta gero, honako taula honetan azaltzen da hautaketaren emaitza:

| | Gipuzkoa | Bizkaia | Araba | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| **Hiriburuak** | Donostia | Bilbao | Vitoria-Gasteiz | 3 |
| **Bizt. kop.<br>>10.000** | Hernani<br>Irun<br>Andoain<br>Lasarte-Oria<br>Oñati<br>Azkoitia | Amorebieta-Etxano<br>Erandio<br>Ermua<br>Getxo<br>Barakaldo<br>Santurtzi<br>Durango | Llodio<br>Amurrio | 15 |
| **Bizt. kop.<br><10.000** | Ordizia<br>Aretxabaleta<br>Ibarra<br>Berastegi<br>Getaria<br>Zizurkil | Abadiño<br>Elorrio<br>Berriz<br>Güeñes<br>Maruri-Jatabe<br>Lekeitio | San Millán | 13 |
| **Guztira** | 13 | 14 | 4 | 31 |

Erabilitako informazio-iturriei dagokienez, honako hauek hautatu ditugu:

a) Zeharkako informazio-iturriak:

- Lankidetzari buruzko ordenantzak eta beste araudi-mota batzuk.
- Diru-laguntzetarako deialdien oinarriak (aldizkari ofizialak, Arabakoa -ALHAO-, Gipuzkoakoa -GAO- eta Bizkaikoa -BAO-).
- Garapenerako lankidetza-sailen eta udaletan garapenerako lankidetza kudeatzen duten alorren memoriak.
- Udaletako webguneetako informazioa.
- Euskal Fondoaren urteko memoriak.
- EAEko erakundeen webguneetan dagoen informazioa (bereziki Euskal Fondoaren webgunean, baina baita EUDELen eta beste batzuen webguneetan ere).
- Estatu-mailako erakundeen webguneetan dagoen informazioa (FEMP eta beste batzuk).

**b)** Zuzeneko informazio-iturriak:

- Elkarrizketak udaletako ordezkariekin[2]. Horien barruan bi talde hauek bereizi dira:
  - Langile teknikoak (lankidetzako teknikariak eta beste batzuk -gizarte-ongizatea, etab.-).
  - Ordezkari politikoak (alkateak eta zinegotziak).

## 3.2. Emaitzen azterketa

Ondoren, azterketan lortutako emaitzak aurkezten dira, modu agregatuan eta hautatutako hiru udal-kategorien arabera bereizita. Edonola ere, aztertutako udalen informazio zehatzagoa ematen duten taulak gehitu dira Eranskinean. Hemendik aurrerako orrietan, txostenaren atalak bat datoz 2. kapituluko erreferentzia-esparruan proposatutako atalekin.

### 3.2.1. Udal-lankidetzaren helburuak

Labur-labur azaldutako proposamenaren arabera, lehenik, udal-lankidetzak bultzatu beharko lituzkeen helburuak edo ildoak kontrastatuko ditugu, eta aztertu dugu, orobat, horien definizio-maila, definitutako lehentasunak, zeharkakotasuna eta beste gai orokor batzuk kontuan hartzen diren, eta lankidetzaren alorreko udal-politiken koherentziarekin zerikusia duten alderdien tratamendua.

#### *a) Helburu argiak dauden edo ez*

Erreferentziazko esparruan aipatu bezala, garapenerako lankidetza-politiken bitartez bultzatutako jarduerek argi definitutako helburuak eduki beharko lituzkete, beste edozein politikarekin gertatzen den bezala, eta landu nahi den arazoari buruzko diagnostiko edo gogoeta bati erantzun beharko liokete, aldi berean. Interesgarria da, beraz, helburu horien definizio-maila aztertzea, orokortasunetatik haratago, eta baita jarduera-eremu zehatzak finkatzen diren aztertzea ere.

Helburuak dauden aztertzeko eta horiek zenbateko definizio-maila duten zehazteko, hautatutako erakundeen lankidetza-politikari buruzko doku-

[2] Guztira 43 laguni egin zitzaien elkarrizketa: 31 langile teknikariak (7 lankidetzako teknikariak eta 24 beste eremu batzuetakoak, gizarte-ongizatekoak bereziki), eta 12 kargu politikoak (9 zinegotzi eta 3 alkate). Elkarrizketatu 43 lagun horietatik 14 gizonezkoak ziren eta 29 emakumezkoak (lanpostu teknikoen % 77 eta postu politikoen % 42 emakumeek betetzen dituzte). Egindako elkarrizketei buruzko oinarrizko informazioa I. eranskinean ikus daiteke.

mentuak aztertu dira. Ildo horretatik, azpimarratzekoa da oso eskasak direla udal-lankidetzaren helburuak oro har zehazten dituzten egoerak -diru-laguntzei dagozkienetik haratago- edo abian jarritako ekimenak edo baliabideak modu orokorrean azaltzen dituztenak. Hiru hiriburuak alde batera utzita, horiek plan zuzentzaileak baitituzte, oso udal gutxik dute beren politika dokumentatua. Udal gehienek deialdietarako oinarriak hartzen dituzte erreferentziatzat, eta horietan, oro har, ez da zehazten zein diren udalak lankidetzaren alorrean dituen helburuak; eta, gehienez ere, atarikoan egoten dira inplizitatuta.

**1. grafikoa: Lankidetza-politikari buruzko helburu esplizituak, udalerri-motaren arabera**




Iturria: Lan honen egileak sortua.

1. grafikoan ikusten denez, lagineko 31 udaletatik 5ek baino ez dute deialdien ohiko esparrutik kanpo politikari buruzko helburu zehatzik doktrina-agirietan. 3 hiriburuei dagokienez, hirurek dituzte plan zuzentzaileak, eta horiei erantsi behar zaizkie (nahiz eta beste maila bateko dokumentuak izan) Getxoren kasua -garapenerako lankidetzaren alorraren helburuak definitzen dituen Legealdi Plan bat du-, eta Ordiziaren kasua, garapenerako bere lankidetza-programa arautzen duen araudiarekin, baliabideekin (lankidetza zuzena, beste erakundeetarako ekarpenak, gazteak lankidetzan, GGKEentzako diru-laguntzak) eta kasu bakoitzaren helburuekin.

### *b) Bi gai jakini emandako lehentasuna: tokiko erakundeak sendotzea eta garapenerako hezkuntza*

Erreferentziazko esparruan finkatutakoaren arabera, bi eremutan udalek a priori garrantzi handiagoko zeregina bete dezakete garapenera lankidetzaren barruan. Hona hemen bi esparru horiek: Tokiko Garapena (tokiko instituzionalitatea eta tokiko garapen-prozesuak sendotzeko helburua duena) eta Garapenerako Hezkuntza (tokiko gizartearen konpromiso sustatzea dakarrena).

Bi gai elkarren guztiz desberdinak badira ere, elkartu egin dugu horien azterketa, zehazki udal-lankidetza definitzen duten gaiak baitira. Kasu batean zein bestean, alderdi horiek politikari buruzko agiri orokorragoetan duten definizioa hartu dugu abiaburu, horrek aditzera eman baitezake zer garrantzi ematen zaien alderdi horiei. Agiri-mota horiek eskasak direnez -aurreko puntuan ere azaldu bezala-, zabaldu egin dugu ekintzen eta baliabideen azterketa-eremua; zer ekintza sustatzen diren aztertu dugu, eta deialdiei, hitzarmenei, aurrekontuei eta abarrei buruzko informazioa ere hartu dugu kontuan. Informazio hori elkarrizketekin osatu da batzuetan.

**- Tokiko erakundeak sendotzea eta tokiko garapena**

Azaldutako irizpideen arabera, eta eskuratutako informazioarekin, udaletako politikari buruzko agiriak aztertzen hasi gara, zentzu zabalean hartuta (planak, deialdiak, etab.), eta bi egoera baino ez ditugu bereizi: edo ez da horien aipamenik egiten (zentzu zabalean hartuta) eta ez zaie lehentasunik ematen, edo garrantzizkotzat hartzen dira eta nolabaiteko lehentasuna ematen zaie (helburuen edo lan-ildoen artean aipatuta edo deialdien/hitzarmenen baldintzetan edo lehentasunetan txertatuta).

Tokiko erakundeak sendotzeari dagokionez, eta kontuan hartuta horri buruzko dokumentazioa, 31 udalerrietatik 14k nolabaiteko lehentasuna ematen diote edo arreta egiten diote alderdi horri. Hori argi ikusten da plangintzarako doktrina-agirietan (udalen kasuan, aurrerago itzuliko gara horietara), baina batez ere diru-laguntzetarako deialdiei lotutako agirietan, udal askoren kasuan horiek baitira politikari buruzko agiri bakarrak.

2. grafikoan lehentasun horri buruzko informazioa laburtzen da, azaldutako mugak kontuan hartuta. Ikus daitekenez, hiriburu guztiek eta udal ertain gehienek lehentasunezkotzat hartzen dute alderdi hori, nola edo hala; aldiz, udal txikietan ez da halakorik gertatzen, eta era horretako bi udaletan baino ez da kontuan hartzen alderdi hori.

**2. grafikoa: Erakundeen sendotasunarekin eta tokiko garapenarekin zerikusia duten helburuen garrantzia, udalerri-motaren arabera**




Iturria: Lan honen egileak sortua.

Aurretik ere aipatu bezala -eta pentsatzekoa zenez-, hiru hiriburuak dira alderdi hori zabalago landu dutenak. Edonola ere, hiri horietako plan zuzentzaileek ez dute guztiek modu berean landu alderdi hori. Bilbon, esaterako, argi eta garbi azaltzen da ildo hori lehenengo plangintzan, eta bigarren Plan Zuzentzailean (2010-2013) aipatzen da tokiko eremuak lehentasunezko jarduera-eremua izan behar duela; halaber azpimarratzen ditu eremu horretan udaletatik bertatik lan egiteko dauden aukerak eta tokiko boterearen ideia lanerako hiru ildo sektorialetako bat dela azaltzen du (emakumeen jabekuntzaren eta gizartearen aldaketarako sentsibilizazioaren eta hezkuntzaren alorrekin batera).

Gasteizen tokiko garapenaren sustapena lankidetza dezentralizatuaren helburu gisa definitu zen 2000. urtean. Plan Zuzentzailean (2010-2013) tokiko garapenaren alorreko gaiei buruzko irizpide espezifiko bat dago, eta bertan halakotzat hartzen dira gaitasunen sorkuntza eta pertsonen bizi-baldintzen hobekuntza eraginkorra bateratzen dituzten gaiak. Gainera, jarduerak tokiko lurralde-esparrura mugatzeko beharra aipatzen da. Donostiako Udalak, bere aldetik, tokiko garapena eta gaitasunen sorkuntza lankidetza-politikaren funtsezko ezaugarritzat hartzen ditu Lankidetza Udal Planean (2008-2011), eta tokian tokiko boterea eta partaidetza estrategia osoaren zeharkako lerrotzat hartzen dira.

Gainerako kasuetan, erreferentziak askoz ere lausoagoak dira. Baremazioan ohikoagoak izaten dira, baina, hala ere, ez dute garrantzizko lekurik, eta,

zenbaitetan, proiektuen baldintza gisa agertzen dira. Oro har, erakundeen sendotzeari buruzko aipamenak oso orokorrak eta lausoak izaten dira (oinarrizko erakundeen eta tokiko organizazioen sustapena), eta kasu batzuetan baino ez zaio erreferentzia esplizitorik egiten tokiko erakunde publikoei eta horien sendotasunari[3].

Aipatu bezala, politikei buruzko dokumentaziora jotzeko baliabidea oso mugatua da, izan ere, zenbait udalek planik edo diru-laguntzetarako deialdirik eduki gabe ere, nolabaiteko lehentasuna eman diezaiokete alderdi horiei (erakundeak sendotzeko senidetzeen bitartez, esate baterako). Ildo horretatik, gainerako kasuetan, eta dokumentu formalik ez badute ere, elkarrizketetan bildutako informazioak aukera ematen du ondorioztatzeko diru-laguntzetarako deialdiak ez diren beste baliabide batzuen bitartez lantzen dela erakundeak sendotzeari buruzko gaia. Baliabide horien artean lankidetza zuzenaren alorreko jarduerak eta Euskal Fondoaren bitartez bideratuak nabarmentzen dira. Laburbilduz, tokiko garapenari eta erakundeen sendotzeari dagozkien gaiak nahiko maiz agertzen dira, baina ez dago horien garrantziaren azterketa zehatzik, ezta alor horretan aurrera egiteko aukera ematen duten jarduera-ildoen eta tresnen definiziorik ere.

- **Garapenerako Hezkuntza eta Sentsibilizazioa**

Garapenerako hezkuntzaren kasuan, nabarmena da kezka handiagoa dagoela gai horri dagokionez, eta aztertutako ia udal guztietan nolabaiteko lehentasuna ematen diote (udal txiki baten salbuespen bakarrarekin). Alderdi horretan jartzen den arreta argi ikusten da helburuen artean finkatuta eta diru-sail eta/edo deialdi berezi batean sartuta dagoenenan, ildo horretako berezko ekintzen bitartez, edo udalerrian bertan era horretako ekintzen babesaren bitartez -era batera edo bestera-[4].

Lehenik, lankidetzaren orientazioari buruzko agiri orokorrenei dagokienez, halakoak dituzten 5 udalen ustez babestu beharreko lan-ildoa da garapenerako hezkuntza, eta hori bat dator, oro har, euskal lankidetzaren ibilbidearekin, gai hori izan baita, hain zuzen ere, osagai bereizgarrietako bat, bereziki gobernu zentraletik bultzatutako lankidetzarekin konpara-

[3] Aztertutako udaletan Erakundeen Sendotasunarekin eta Tokiko Garapenarekin zerikusia duten helburuei buruzko alderdiak II. eranskineko 1. taulan ikus daitezke.

[4] GHetaS gaia hainbat bideren eta baliabideren bitartez kontuan hartzen den udalerri horietan, II. eranskineko 2. taulan ikus daiteke.

tzen bada. Hiru hiriburuen kasuan -eta bereziki Gasteizen kasuan, gai horri buruzko hainbat azterketa egin baititu- garrantzizko ahaleginak egin dira garapenerako hezkuntzaren alorreko jarduerak planifikatzeko eta hobetzeko. Horren erakusgarri da plangintzetan eta araudietan gaiari ematen zaion garrantzia, denbora baita helburuen eta jarduera-ildoen artean sartzen dutela eta deialdi bereziak egiten dituztela (hainbat urterakoak ere bai) eta aurrekontuan diru-sail zehatzak aurreikusten dituztela jarduera horietarako.

Programa-agiriak badituzten beste udalen artean, Getxok herritarrak sentsibilizatzeko eta garapenaren alorrean hezteko ildoak txertatzen ditu bere jarduera-programaren ildo estrategikoen artean. Horretarako, udalak hainbat baliabide jartzen ditu martxan: diru-laguntzen deialdian modalitate berezi bat garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioan, berariazko jarduerak eta beste eragile batzuentzako laguntzak udalerrian jarduerak antolatzeko. Ordiziak, bestalde, ez du GSetaH ildoa sartzen plangintza-agirietan, eta alor horretan egiten duen lana berariazko jardueren bitartez egiten du; beste eragile batzuei ere laguntzen die jarduerak antolatzen.

Azpimarratzekoa da, halaber, 31 udalerrietatik 10ek berariazko diru-laguntzetarako deialdi bat dutela (edo deialdiaren barruan modalitate bat dutela); horrek erakusten du kezka horrek ezarpen zabala duela[5]. Bestalde, araudirik osatu ez duten udalerrietan ere eremu horretako jarduerak nahiko ohikoak izaten dira, eta udalak berak antolatutako jardueren ildoa zein GGKEen bitartez edo beste eragile batzuen bitartez egindako jardueren ildoa bereizten da horietan.

Jasotako informazioa 3. grafikoan laburtzen da, eta bertan azpimarratzen da praktikan zer garrantzi ematen zaion garapenerako hezkuntzari eta sentsibilizazioari, eta horretarako 3 aukera bereizi ditugu: a) Ez da era horretako jardueretarako laguntza-ildorik topatu; b) GGKEek eta kanpoko beste eragile batzuek egindako jarduerak baino ez dira babesten, bai diru-laguntzen bitartez bai beste era bateko laguntzen bitartez (laguntza logistikoa lokalekin, zabalkundea, etab.); eta c) Udalak ere bere aldetik jarduera bereziak egiten ditu.

[5] GHetaS gaiari buruzko alderdiak aztertutako udalerrietako deialdietan nola hartzen diren kontuan II. eranskineko 3. taulan ikus daiteke.

**3. grafikoa: Garapenerako Hezkuntzari eta Sentsibilizazioari buruzko gaien tratamendua, udalerri-moten arabera**




Iturria: Lan honen egileak sortua.

Udal txiki bat baino ez dago eremu horretako jarduerarik batere aurreikusi ez duena; aitzitik, 6 udalek beste eragileek bultzatzen dituzten jarduerak babesten dituzte, eta 24 kasutan udalak era horretako jardueretan parte hartzen du, era batera edo bestera. Aipatzekoa da jarduera-mota horietan parte hartzen ez duten Udaletan egindako elkarrizketek aditzera ematen dutenez, baliabiderik eza dela horren arrazoi nagusia, lankidetzaren alorreko zereginez arduratzen diren teknikariak lanez gainezka baitaude.

Beste alde batetik, jarduera multzo horretan eta bertan lantzen diren gaietan sakonduz gero, 4 alor nagusi bereizten dira: Sahara, bidezko merkataritza, giza eskubideak eta immigrazioa[6].

4. grafikoan ikus daitekenez, Sahararen gaia da udalerri guztietan arreta gehien duena, eta 18 kasutan berariaz helburu horretarako jarduerak antolatzen dira. 4 kasutan, bidezko merkataritzaren eta immigrazioaren inguruko jarduerak antolatzen dira, eta beste hirutan giza eskubideei buruzkoak.

[6] II. Eranskineko 4. taulan, aztertutako udalerrietan jarduera horiei buruz dagoen informazioa eskaintzen da.

**4. grafikoa: Udalek Garapenerako Hezkuntzaren eta Sentsibilizazioaren eremuan egindako jardueren gaiak, udalerri-motaren arabera**




Iturria: Lan honen egileak sortua.

Udalerri-motaren arabera, udal ertainetan eta handietan ekimen horiek askoz ere ohikoagoak dira, logikoa denez, eta, zenbaitetan, hainbat gaitako jarduerak hartzen dituzte. Udal txikienen kasuan, salbuespenen bat izan ezik, Sahararekin zerikusia duten gaiak baino ez dira lantzen.

### *c) Jardueren zeharkakotasuna*

Erreferentzia-esparruan deskribatu bezala, jardueren zeharkakotasunaren gaia behin baino gehiagotan agertu da lankidetzaren eremuan diharduten nazioarteko erakundeek landutako proposamenetan. Proposamen horietan, zeharkakotasun hori lau gai hauen ingurukoa da: pobreziaren kontrako borroka, genero-berdintasuna, ingurumenaren iraunkortasuna eta giza eskubideak.

Hala ere, lankidetzaren alorreko jardueren zeharkakotasuna, tokiko erakundeei buruz ari garela, oso gai konplexua da, eta baita eztabaidagarria ere. Euskal udalei buruz egindako azterketen kasuan, konplexutasuna bi alderdi zehatz hauetan islatzen da. Alde batetik, aztertutako agiri gehienetan gaiari oso erreferentzia gutxi egiten zaizkiola ikusi dugu, baina hori, aldi berean, ezin daiteke hartu datu bakartzat azterketan. Kontuan hartzen bada aztertutako agirietan -planak edo deialdiak- zeharkakotasuna berariaz zer kasutan aipatzen den, lau kasutan baino egiten ez dela ikusiko dugu (Bilbao, Donostia, Amurrio eta Santurtzi), nahiz eta horietakoren batean *zeharkako*

hitza erabiltzen den, azken batean, helburuei edo xede-taldeei buruz jarduteko. Hala ere, aipatutako gai horietakoren bat aipatzea, zenbait kasutan, ezinbesteko baldintzatzat hartzen da hainbat jarduera mota finantzatzeko, eta hori zeharkakotasunaren ildotik joango litzateke. Hori bereziki nabarmena da generoaren dimentsioari dagokionez. Irun, Ermua, Hernani, Barakaldo edo Ordizian baldintza hori kontuan hartu ohi da, eta baremoetan edo beste nolabait azaldu ohi da[7]. Beste alde batetik, elkarrizketetan jasotako iritzietatik ondoriozta daitekeenaren arabera, udalaren eremuan baliabide gutxiago izaten dituztenez eta, oro har, doktrina oso modu zabalean lantzen ez denez, zeharkako zenbait kezka era askotara islatzen dira eta ez dira beti modu formalean azaltzen[8].

Horrez gainera, ez da ahaztu behar, zeharkakotasuna udaletatik bultzatu edo babestutako jardueretan sartzen den ziurtatzeko zailtasunaren ondorioz, udal horietako zenbaitek berariaz uko egin diotela programa-proposamenetan edo baldintzatzen sartzeari. Horixe da Gasteizko udalaren kasua, izan ere, lankidetzaren alorrean ibilbide luzea badu ere eta gai horri buruzko doktrina-ondare aberatsa badu ere, uko egin dio zeharkakotasuna helburu edo baldintza gisa proposatzeari, uste baitu ez dela errealista, sektorearen ezaugarriak eta jarduera gehienak egiten dituzten eragileen aukerak kontuan hartuta.

### *d) Beste gai orokor batzuk kontuan hartzea edo ez*

Erreferentziazko esparruan aipatu bezala, zenbait udalek hitzez hitz hartu dute beren gain lankidetzaren alorreko beste erakunde batzuen diskurtsoa eta jarduteko modua, laguntza-moduei dagozkien gaiak barne. Gai horien barruan sartzen da giza laguntza edo larrialdikoa; gai horretan, tokiko erakundeetatik bultzatutako jardunbideen eraginkortasuna eztabaidagarria da, baldin eta jardunbide horiek koordinatuta ez badaude. Horregatik, alderdi horren azterketa lankidetzaren diskurtsoa asumitzeko moduaren eta berariazko estrategia baten kezkaren erakusgarri dela iruditzen zaigu. Beraz, udalek gai hori nola landu duten aztertu nahi da, eta orobat aztertu nahi da udalak beren mugen jakitun diren.

---

[7] Ezinbestekoa da aipatzea generoaren gaien zeharkakotasunaren kasuan zenbait udaletan lankidetzako eta berdintasuneko zerbitzuen artean dagoen loturak lana erraztu dezakeela.

[8] GGKEen Koordinakundeak 2012an egindako “Euskal lankidetzaren azterketa, 2008-2010” azterketak adierazten du aztertutako 31 udalerrietatik 13k (% 40 inguru) nolabaiteko zeharlerroak dituztela, 1 eta 6 lerro bitartean, kasuaren arabera. Horien artean genero-berdintasunaren gaia nagusitzen da (aipatutako 13 kasu horietatik 12).

Lehenik, 5. grafikoan laguntza humanitarioa eta larrialdikoa bai diru-laguntzetarako deialdi berezien bitartez bai deialditik kanpo emandako laguntzen bitartez beren jardunbideetan kontuan hartzen dituzten udalak erakusten dira.

**5. grafikoa: Laguntza Humanitarioko eta Larrialdiko jarduerak kontuan hartzen diren eta/edo sustatzen diren, udal-moten arabera**




Iturria: Lan honen egileak sortua.

Ikus daitekeenez, aztertutako udalerri gehienetan egiten dira era horretako jarduerak (31 udalerrietatik 23tan), nahiz eta oso eremu zaila den, jarduera handiak egin behar izaten direlako, oro har, eta tokiko erakundeen eremutik kanpo daudelako. Era horretako ekimenak bultzatzeko baliabideei erreparatuz gero, unean uneko deialdiak eta laguntzak ere badaudela ikusten da[9]. Udalerriaren tamainak ere eragina duela ematen du: zenbat eta handiagoa izan, orduan eta ohikoagoak dira gai hori kontuan hartzen dituzten deialdiak. Horrek adierazten du udal handienetan errepikatu egin dela beste eremu batzuetako lankidetzaren eskema orokorrak.

Elkarrizketatutako pertsonek gai horri buruz duten iritzia -udal-lankidetza bada esparru egokiena era horretako laguntzak bideratzeko, edo zer egoeratan izan litekeen- askotarikoa da oso. Elkarrizketek aukera ematen dute ondorioztatzeko oso gutxi direla horri buruz gogoetan jarduten dutela

[9] Udalez udaleko informazioa II. Eranskinaren 5. Taulan agertzen da.

onartzen duten udalak, eta beren mugez jabetzen direla adierazten dutenek ere onartzen dute larrialdi-egoeretan komunikabideetan sortzen den presioaren (eta era horretako egoerek herritarrengan eragiten duten sentiberatasunaren) eraginez eusten diotela era horretako laguntzari.

Oro har, udalentzat laguntza humanitarioa harri kozkor moduko bat da, beste erakunde batzuen harri kozkorrarekin elkartuta zenbait larrialdi-egoera arintzen lagun dezakeena. Unean uneko laguntza zuzenak ematen dituzten udalek aurretik ezagutzen dituzten eta arestian ere diruz lagundu dieten erakundeei laguntzen diete, oro har, edo EUDELen bitartez bideratzen dituzte, bestela, laguntza horiek. Ohikoa da, halaber, Euskal Fondoari aholkularitza eskatzea jakiteko kasu bakoitzean noren bitartez bidera ditzaketen laguntzak.

Hiriburuen kasuan, sakonagoa izan da gogoeta. Gasteizen, 1998. urteaz geroztik deialdi berezi bat dago, baina azken urteotan ikuspegia aldatu egin du, Arabako Foru Aldundiarekin eta Vital Kutxarekin batera Larrialdietako Arabako Funtsaren sorreran parte hartu baitu. Garapen bidean diren herrialdeetan larrialdiko esku-hartzeei laguntza eraginkorra eta azkarra emateko tresna bat sortzea izan da erakunde horren helburua, erakundeen koordinazioaren bitartez eta funts gehiagoren ekarpenaren bitartez. Funts horretara ekarpenak egiteaz gainera, giza eskubideak babesteko deialdiari eusten dio, laguntza humanitariora eta larrialdi laguntzara bideratua, nahiz eta onartzen duen tokiko erakunde horretatik kasu horietan eman dakiokeen erantzuna oso mugatua dela. Bilbon araudi berezia dute, eta 2006-09 Plan Zuzentzailean zuzentarau bat sortu zuten, ekimen horien eta lankidetzaren alorreko ekimenen arteko koherentziari eusteko beharra aipatzen zuena. 2010-13 Planean laguntza humanitarioaren eta larrialdietarako laguntzaren arteko bereizketa egiten da, eta udalak esparru horretan izan ditzakeen abantaila konparatiboak aztertzeko premia aipatzen du. Ildo horretatik, Donostiako udalaren arabera (2008-11 planean), eremu horretako jardunak larrialdiaren ondorengo prozesuan du zentzua, eta ekimen horiek garapenerako proiektuen ohiko deialdian aurkeztu behar dira.

Orokorrean egiaztatu da kontraesana dagoela alde batetik egoera horiei aurre egiteko baliabideen eskasiaren -eta baita horri buruz dagoen kontzientziaren- eta beste alde batetik larrialdien ondoriozko arazoak direla-eta gizartearen sentiberatasun nabarmenaren artean.

### *e) Udal-politiken koherentzia*

Azpiatal honetan saiatu gara aztertzen tokiko erakundeek gogoeta egin duten beren jardueren eta udal-politika multzoaren arteko koherentziari buruz. Horretarako, aurreko kasuekin batera, alde batetik aztertu da plangintzari buruzko agirietan politiken koherentziari buruzko erreferentziarik azaltzen den (helburuen edo lehentasunezko jarduera-ildoen artean), eta, beste alde batetik, aurrera eramandako ekintzak berraztertu dira (hala nola, erosketen politikari buruzkoak edo bidezko merkataritzaren sustapenari buruzkoak).

Dokumentu-erreferentzien gaia era horretako plangintzen garapen txikiak mugatua da. Edonola ere, halako agiriak dituzten 5 udalen azterketak erakutsi digu inork ez duela "politiken koherentziaren" erreferentzia espliziturik egiten, ez behintzat azaldutako zentzuan. Bilboren kasuan, lankidetza-ekimenetan bertan aipatzen da koherentzia, baina ez udalaren gainerako politikekin. Era horretara aipatzen ez bada ere, bi kasutan bidezko merkataritza lehentasunezko jarduera-ildoen artean sartu dela ikusi da; horrek aditzera ematen du, beraz, badutela gai horri buruzko interesa.

Programa-agirietatik haratago, udaletako politiken koherentziaren alorrean aurrera eramandako jarduerak oso eskasak dira. *"Euskal administrazio publikoak kontratazio etikoago baten alde"* proiektuaren esparruan, hiru hiriburuetako udalek eta Durangoko udalak konpromiso bat izenpetu zuten bidezko merkataritza beren funtzionamenduan txertatzeko. Konpromiso horretan adierazten zen bidezko merkataritza kontuan hartuko zela lankidetzarako eta garapen-hezkuntzarako baliabide gisa, ekimenean parte hartzen duten udalek osatutako banakako lan-egitasmo baten bitartez. Ildo horretatik beretik, orain dela gutxi Getxok eta Bilbok bat egin dute *bidezko merkataritzaren aldeko hiriekin* (1.000 baino gehiago, 19 herrialdetan). Horretarako, eremu pribatuaz gainera, arreta jarri behar da udal-administrazioaren beraren jardueretan eta gai horren zabalkundean eta sustapenean.

Beste alde batetik, hainbat jarduera identifikatu dira lankidetzaren eta udaleko beste alor batzuen arteko zeharkakotasunarekin lotura dutenak, eta hori garrantzizko aurrerabidea da politiken koherentziari dagokionez. Horien artean nabarmentzekoak dira honako kasu hauek: Getxo, zeinetan sustapen ekonomikoaren, enpleguaren eta kontratazioaren zerbitzuek lankidetzaren sailari laguntzen dioten, gizarte-klausulen gaiarekin, erosketa etikoarekin eta bidezko merkataritzarekin; Bilbo, zeinetan Osasun eta Kontsumo Saileko

langileek Bilbon barrena antolatzen dituen zirkuituetan hiriko hainbat leku ematen dituzten ezagutzera, bat Kooperatik igarotzen dena eta gizarte-ekonomia eta ekonomia solidarioa erakusten duena; Donostiako udalaren eta Gizarte Ongizatea-Immigrazioa-Ingurumena eta Lankidetza sailen arteko koordinazio-mahaia, politiken koherentziaren gaiarekin aurrera egiteko helburuarekin; Gasteiz, zeinak bere Plan Zuzentzailean GSetaH, immigrazioa eta bidezko merkataritza zeharlerroak adieraztea proposatzen duen, udaleko beste sailei erosketa publikoa egiten zaienean. Azken kasu horretan aipatutako hiru eremuetan egin dira ekimenak (batez ere azkenekoan, bidezko merkataritzako kafea eskaintzen da udalaren eraikinetako kafe-makinetan eta zentro zibikoetako kafetegietan, etab.), baina zenbaiten iritziz aldea dago lankidetzaren sektoreko diskurtsoaren eta praktikaren eta lankidetza-gaiak eta beste batzuk (ingurumena, gizarte-klausulak...) zeharlerro gisa kontuan hartzeko zailtasunaren artean.

Beste alde batetik, zenbait jarduerek nolabaiteko harremana dute koheretziarekin, nahiz eta zuzenean ez dagozkien politiken koherentziari. Esparru horretan sartzen dira Barakaldoko eta Bilboko bidezko merkataritzako azokak, garapenerako sentsibilizazio eta hezkuntzaz gainera, udalen parte-hartzea bultzatzen dutenak; edo lankidetzaren gaiak ukitzen dituzten 21 Tokiko Agendaren esparruko zenbait jarduera, ikasleak, gurasoak, irakasleak eta udala elkartzen dituztenak.

Laburtzeko, era askotako programetako adierazpenak eta hainbat jarduera elkartuta, 31 udalerrietatik 6tan baino ez da islatzen halako kezkarik, eta hiriburuak eta udal ertain-handiak dira eremu horretan aurrerabide txiki batzuk egin dituztenak.

### *f) Udal-lankidetzaren helburuei buruzko gogoeta orokorrak*

Azpiatal honetan udal-lankidetzaren helburuekin eta ildoekin zerikusia duen orori begiratuta ikusitakoaren laburpen bat egingo dugu. Lehenik, azpimarratu behar da aztertutako kasuak askotarikoak direla eta, horren ondorioz, ezinezkoa dela multzo osoari dagokion balorazioa egitea. Espero zitekeen bezala, hiru hiriburuak dira helburuen eta programa-ildoen definizioan gehien aurreratu dutenak -horiek baitira ibilbide luzeen egin dutenak eta baliabide gehien dituztenak alor horretan lan egiteko-. Aitzitik, udalerri ertainak eta bereziki txikienak dira hutsune gehien dituztenak. Kasu horietakoren batzuetan, lankidetzaren inplikazioa nazioarteko solidaritatearen aldeko apustu politikoa izaten da -goresgarria, zalantzarik gabe-, nolabaiteko boluntarismo bati lotuta.

Bigarrenik, azpimarratu beharra dago programa-dokumentu gutxi dagoela, eta horrek zailtasunak sortzen ditu, bai azterketa egiteko bai abian diren politikak hobeto bideratzeko. Arrazoizkoa dirudi hiriburuek baino ez edukitzea garrantzizko dokumentuak -plan zuzentzaileen gisakoak-, baliabide gehiago dituztelako eta proportzionaltasun-printzipioari jarraitzen dietelako eskura jarritako baliabideei dagokienez. Edonola ere, iruditzen zaigu komenigarria izan litekeela politikarako aurreikusten diren helburu nagusiak eta osagai giltzarriak definituko dituen programa-dokumentu motaren bat edo ibilbide-orri bat edukitzea.

Erreferentziazko gure esparruan tokiko lankidetzarako bereziki garrantzizkotzat hartu ditugun sektoreei dagokionez, tokiko garapenari dagozkion gaiei buruzko gogoeta askotarikoa dela ohartu gara, eta orobat ikusi dugu udal txikietan ez dela gogoeta hori oso kontuan hartu. Aldiz, garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioa modu espezifikoan lantzen dira kasu gehienetan, gai horietan tokiko eremuek duten ahalmenaz baliatuta.

Udal-eremuan lankidetza-politikak definitzeko ikusitako zailtasunaren ildotik nabarmentzekoa da ez dela apenas urratsik egin beste eremu batzuetan azaldutako zeharkako kezkak txertatzeko. Hala ere, Gasteizko Udalak azaldutakoaren bidetik, beharrezkotzat jotzen dugu gai horren hedadura mugatzea, zalantzan jartzen baita halakorik proposatzea eraginkorra den benetan ez badago horiek aurrera eramateko aukerarik. Edonola ere, zenbait urrats egin litezkeela uste dugu, bereziki generoaren inguruko gaiei dagokienez.

Larrialdiko kasuetan udalek bete dezaketen zereginari buruzko gogoetak ere eskasak direla ikusi da. Alde batetik, badago zeregin horretarako mugen ezaguera, baina, aldi berean, egoera horietan gizarteak eskakizun gehiago egiten dituela azpimarratzen da. Dena dela, begien bistakoa dirudi administrazioaren maila guztietan antzeko urratsak berregiteko joerak izan duen ereduaren eragina, eta baita udal-lankidetzarentzat profil jakin bat bilatzeko premia ere.

Azkenik, politiken koherentziaren gaia azterketatik kanpo gelditzen da oro har, eta aurrerabideak emateko eremu egokia da, bereziki lankidetzari eta garapenari buruz egin berri diren gogoetek aditzera ematen dutelako, aho batez, ezinbestekoa dela “laguntzaren” esparrua gainditu eta lankidetza eta jardunbide arduratsuagoetan oinarritutako harremanetara igarotzea.

**6. grafikoa: 3.2.1. atalean landutako gaien laburpena, udalerri-motaren arabera**




Iturria: Lan honen egileak sortua.

Edozelan dela ere, beharrezkoa da azpimarratzea alde handiak daudela udalerri batzuetatik besteetara garapenerako lankidetzan proposatzen diren helburuak kontuan hartzeko moduari eta horiei egiten zaien tratamenduari dagokionez. 6. grafikoan hurbilpen grafiko bat egiten da, eta ikus liteke hiru hiriburuen artean homogeneotasun handiagoa dagoela eta gainerako udalek zenbait gairi arreta handiagoa ematen diotela, bereziki garapenerako hezkuntzari eta sentsibilizazioari, nahiz eta kasu gehienetan ez egon argi definitutako helbururik.

### 3.2.2. Baliabideei eta eragileei dagokienez

Analisiaren bigarren atalean, udalerriek garapenerako lankidetzan finkatutako lehentasunei aurre egiteko beharrezko baliabideak mobilizatzeko duten gaitasun potentziala izango da ardatz nagusia, eta, horrekin batera, udalek beren jarduerak gauzatzeko aurreikusita dauzkaten tresnen azterketa egingo dugu.

Horretarako, arreta berezia eman diegu honako alderdi hauei: garapenerako lankidetzako jardueren zama udalak berak eta udalerriko gizarte-era-

gileek beren gain hartzeari ematen zaion garrantzia; udal-administrazioaren baliabideei ematen zaien garrantzia eta erabilera; GGKEak alde batera utzita tokiko gizarteko eragileak eta baliabideak inplikatzeari ematen zaion arreta; eta, azkenik, lankidetzaren esparruko partaidetza-organoei ematen zaien tratamendua.

### *a) Lankidetzaren arloko jardueren zama nagusia udalak berak edo/eta udalerriko gizarte-eragileek beren gain hartzeari ematen zaion garrantzia*

Alderdi hau aztertuta, aztergai ditugun udaletan udal-lankidetzari buruz duten ikuspegiaren beste alderdi bat ezagutuko dugu.

Ikerketaren emaitzek agerian utzi dutenez, aztertutako kasu guztietan, udalerriaren neurria edozein dela ere, tokiko gizarte-erakundeak udal-lankidetzaren baitako eragile aktibo eta funtsezko gisa hartzen dira; eta udal-administrazioari berari dagokionez, Santurtzin eta Abadiñon bakarrik udala ez da hautematen eta hartzen lankidetzaren arloko funtsezko eragiletzat. 7. grafikoan ikus daiteke aztertutako udalerriek zer egoera duten gai honi buruz.

**7. grafikoa: Udalak eta udalerriko gizarte-eragileek lankidetza eragile bezala udal motaren arabera**




Iturria: Lan honen egileak sortua.

Udal-lankidetzaren bitartez abian jarritako tresna eta jardunbideei dagokienez, hainbat aukera bereizten dira, kontuan hartuta udalek abian jarritako jarduerak edo beste gizarte-eragile batzuek gauzatutako jarduerak diren. Lehenengo kasuan, honako tresna hauek bereizten dira: a) udalerrian ekintza propioak egitea; b) zuzeneko lankidetza, harreman biziak izateko Hegoaldeko herri edo eragileekin, senidetzeen eta hitzarmenen bidez; eta c) Euskal Fondoan modu aktiboan parte hartzea -zuzendaritza-batzordean nahiz bestelako eginkizunetan-, betiere, Fondoari diru-ekarpen hutsa egitetik haratago.

Eta lankidetzako jarduerak gauzatzeko ardura tokiko gizarte-eragileek duten kasuetan, berriz, honako tresna hauetaz baliatzen dira, oro har: a) diru-laguntzen deialdiak; eta b) hitzarmenak. II. eranskineko 6. taulan ikus daiteke udalerriaren lankidetza-politikaren eragile gisa udala bera edo gizarte-eragileak hartzeari loturiko informazio xeheagoa.

Tokiko administrazioek lankidetzaren arloan zuzenean parte hartzeko tresna ohikoenak udalerrian ekintza propioak gauzatzeari lotuak izaten dira. Udala lankidetzarako eragile aktibotzat duten kasuetan (aztertutako 31 udalerrietatik 29), Oñatin izan ezik, administrazioak lankidetzan inplikatuz eta ekintza propioak bideratuz hartzen du protagonismoa.

Gainerako tresnak ez dira hain erabiliak. Hala, zuzeneko lankidetzan nahiz Euskal Fondoko partaidetza aktiboan, txikiagoa da aztertutako udalen zuzeneko inplikazioa; hain zuzen ere, aztertutako 31 kasuetatik 11k bakarrik baliatu ohi ditu bi tresna horietakoren bat. Hegoaldeko eragileekiko hitzarmenen edo senidetzeen bidez gauzatutako zuzeneko lankidetzaren esparruan, hiru euskal hiriburuek partaidetza aktiborako aipatu diren tresna guztiak erabiltzen dituzte; hortik aurrera, neurri ertaineko 15 udalerrietatik 5ek (Irun, Oñati, Andoain, Amorebieta-Etxano, eta Laudio/Llodio) eta 13 udalerri txikietatik 3k baino ez dituzte erabiltzen baliabide horiek. 8. grafikoan adierazita dago hori guztia.

**8. grafikoa: Udalak eta udalerriko gizarte-eragileek lankidetza eragile bezala tresnen eta udal motaren arabera**




Iturria: Lan honen egileak sortua.

Azkenik, nabarmentzekoa da udalek Euskal Fondoaren bitartez bideratzen duten zuzeneko partaidetzan alde handiak ikusten direla udalerrien artean. Udal batek lankidetzan modu aktiboan diharduela esateko kontuan hartzen badugu diru-ekarpena egitea ez ezik zuzendaritza-batzordean karguren bat izatea eta Euskal Fondoak proposatzen eta garatzen dituen ekintzetan parte hartzea, aztertutako udalerri-sail bakoitzeko launa udalerri baino ez daude egoera horretan: Getxo, Irun, Amurrio eta Lasarte-Oria, neurri ertaineko udalen artean, eta Güeñes, Berriz, Zizurkil eta Maruri-Jatabe, udal txikien sailean.

Udal-lankidetzak bere funtsak beste gizarte-eragile batzuen bitartez bideratzen dituenean, diru-laguntzen deialdiak edo hitzarmenak baliatzen dira horretarako. Hiru euskal hiriburuek -Getxo eta Irunekin batera- bi tresna horiek erabiltzen dituzte, eta gainerako udalerriek, bietako bat. Hala, funtsak gizarte-eragileei banatzen dizkieten neurri ertaineko udalerrien erdietan diru-laguntzen deialdiak erabiltzen dira (Oñati, Azkoitia, Andoain, Ermua eta Barakaldo), eta beste erdietan (Erandio, Amorebieta-Etxano, Durango eta Santurtzi), gizarte-eragileek hitzarmenen bidea lantzearen aldeko apustua egiten dute. Aldiz, neurri txikiko udalerrien jarduera aztertzean ikusi dugunez, horietako seik (Lekeitio, Abadiño, Elorrio, Aretxabaleta, Getaria eta San Millán/Donemiliaga) diru-laguntzen deialdietaz baliatzen dira, eta bik baino ez dute garatzen gizarte-eragileen partaidetza hitzarmenen bitartez (Berriz eta Ibarra).

Diru-laguntzen udal-deialdietan tokiko gizarte-eragileei ematen zaien garrantzia neurtzeko, lankidetza-jarduerak finantzatzeko deialdiak irekiak diren aztertu dugu; alegia, izaera orokorra duten edo udalerriko gizarte-sarearen partaidetza sustatzeari begirako deialdi espezifikoak diren. Horretarako, honako kategoria hauek bereizi ditugu: a) Tokiko eragileen erabateko lehentasuna (tokiko eragileetara mugatutako deialdiak); b) tokiko eragileen lehentasun erlatiboa (tokiko esparrutik haratagoko geografia-eremuko eragileei irekiak izan arren tokiko eragileei lehentasuna ematen dietenak[10]); eta c) tokiko eragileen inolako lehentasunik eza.

**9. grafikoa: Diru-laguntzen deialdietan tokiko eragileei emandako lehentasuna, udalerri-motaren arabera**




Iturria: Lan honen egileak sortua.

9. grafikoan ikusten denez, diru-laguntzen deialdiak egiten dituzten 22 udalerrietatik % 70ek baino gehiagok ematen diete nolabaiteko lehentasuna (erabatekoa edo erlatiboa) udalerri horretan diharduten eta egoitza bertan duten gizarte-erakundeei (16 udalerri). Eta sei udalerri besterik ez daude (neurri ertaineko 5 eta neurri txikiko 1) deialdietan erakunde horiei lehentasuna aitortzeko inolako mekanismorik ez dutenak. Diru-laguntzen deialdietan zehaztutako baremoak udal bakoitzak tokiko eragileei lankidetzarako eragile aktibo modura aitortzen dien garrantziaren adierazle espezifiko bat dira. Hiriburuei dagokienez, guztietan ematen diote puntuazio jakin bat

[10] Lehentasun hori modu esplizituan adierazita egon daiteke eragileek laguntzak eskatzeko bete beharreko baldintzen atalean (adibidez: *"irabazi-asmorik gabeko erakundeak, egoitza nagusia edo ordezkaritza iraunkorra Euskal Herrian dutenak, udalerrian errotutakoek lehentasuna dutela"*), edo udalerrian egoitza izateagatik edo udalerriko kideek osatua izategatik baremoetan puntuak esleituz aitor daiteke.

kontzeptu horri, baina Donostiak udalerrian presentzia erreala izatea ere eskatzen die laguntzen eskatzaileei; Vitoria-Gasteizek presentzia aktiboa izan behar dutela zehazten du; eta Bilbok lankidetzako udal-kontseiluko partaide izateari lehentasuna ematen dio, hiriburuan bulegoa edo ordezkaritza izateaz gainera.

Neurri ertaineko udalerriei dagokienez (12 udalerri), Azkoitian, deialdi horietara aurkezteko ezinbestekoa da udalerrian sustraituta egotea edo herrian ordezkaritza iraunkorra izatea, eta sail horretako 4 udalek baino ez dute gai horri buruzko klausula espezifikoren bat diru-laguntzen deialdien baremazioan. Hain zuzen ere, Oñatik -baremoetan modu esplizituan punturik eman ez arren- lehentasuna ematen die Euskal Herriko GGKEei, bereziki Gipuzkoakoei, eta udalerriko herritar eta taldeei; Ermuan, tokiko ikuspegiarekin loturiko baremoak txertatzen dituzte deialdietan, eta udalerrian modu aktiboan parte hartzen duten eta lankidetzako udal-kontseiluko kide diren tokiko GGKEei lehentasuna ematen diete diru-laguntzetarako sarbidea izateko; Irunek osoko baremoaren ehuneko jakin bat esleitzen die udalerrian egoitza duten erakundeei; eta Barakaldok, azkenik, 100 puntutik puntu bat ematen die udalerrian egoitza duten erakundeei.

Azkenik, aztertutako udal txikiei dagokienez, San Millán/Donemiliagan, Elorrion, Abadiñon[11] eta Lekeition, diru-laguntzen deialdiak udalerriarekin loturaren bat duten GGKEei edo pertsonei mugatuak dira, eta Getarian, Aretxabaletan eta Ordizian Gipuzkoa osoari begirako deialdiak egiten dituzte. II. eranskineko 7. taulan ikus daiteke, xeheago, aztertutako udalerriek alderdi horiei dagokienez duten egoera.

Hitzarmenei buruz, aipatzekoa da horixe dela tokiko gizarte-eragileei lehentasuna emateko oro har erabiltzen den tresna. Aurrez egindakoaren antzeko beste azterlan baten bidez ikusi dugunez, neurria gorabehera, hitzarmenen bat duten udalerri guztiek lehentasuna ematen diete tokiko eragileei (batik bat, deialdietatik kanpoko zuzeneko laguntzak eragile horientzat, eta, oro har, garapenerako hezkuntzako eta sentsibilizazioko jardueretarako). Nolanahi ere, udalek gutxien erabiltzen duten tresna da; hiru hiriburuak kenduta, aztertutako neurri ertaineko 15 udalerrietatik 6k eta lagineko neurri txikiko 13 udalerrietatik 2k baino ez dauzkate hitzarmenen bat tokiko gizarte-eragileekin. II. eranskineko 8. taulan bilduta dago horri buruzko informazio guztia.

[11] Abadiñok parte hartzeko aukera ematen die Durangaldeko eskualdeko eragileei.

Udal-hitzarmenak sinatzeko aukera duten erakundeei dagokienez, tokiko edo oinarri lokaleko GGKEak dira gehienak. Hain zuzen ere, udalarekin hitzarmenen bat sinatuta duten 34 erakundeetatik 18 lankidetzarako GGKEak dira (horien artean, Saharearekiko solidaritate-ekintzak bideratzen dituen auzo-elkarte bat); 6 elizarekin loturaren bat duten GGKEak dira; beste 6k SEAD eta Ukraina-Bielorrusiako haurrak hartzen dituzte udan; eta, azkenik, Euskadiko GGKEen Koordinakundea dago, 3 hiriburuekin hitzarmen bana sinatuta dituena. Guztiak ere udalek tokiko eragile jakin bat proiektu jakin bati lotzeko sinatutako hitzarmenak dira, Vitoria-Gasteizen kasuan izan ezik, zeinak sinatu baitu proiektu bat garatzeko hitzarmena hainbat GGKErekin[12].

Azken batean, 10. grafikoak modu laburtuan erakusten du udal-oinarria duten lankidetzarako tokiko eragileek zenbaterainoko garrantzia duten udalen hitzarmenetan eta diru-laguntzak banatzeko deialdietan. Hitzarmenen eta diru-laguntzen deialdien arteko alde nagusia da hitzarmenen bidez lan egiten duten udal guztiek tokiko eragileen jarduerak ere sustatzen dituztela hitzarmen horien bidez, eta, aldiz, diru-laguntzen deialdi batzuetan ez dela horri buruzko zehaztapenik ageri.

**10. grafikoa: Hitzarmenetan eta diru-laguntzen deialdietan tokiko eragileei ematen zaien lehentasunaren azterketa, udalerri-motaren arabera**




Iturria: Lan honen egileak sortua.

[12] Udalak eta Setem Hego Haizea, Bakeaz eta Emaus Fundación social GGKEek sinatutako hitzarmena da, *"Las administraciones públicas vascas por una contratación más ética"* proiektua gauzatzeko xedea du.

### *b) Udal-administrazioaren baliabideak kontuan hartzea eta erabiltzea*

Atal honetan, arreta berezia emango diegu aztertutako udalek baliabide propioak garapenerako lankidetzara bideratzeko duten gaitasunari. Hain zuzen ere, erabilgarri dituzten baliabide teknikoak eta giza baliabideak nahiz udal-garapenarekin loturiko hainbat gai kudeatzeko duten esperientzia nola baliatzen dituzten aztertuko dugu.

Ikuspegi horretatik, tokiko euskal erakundeek gizarteko hainbat arlotako baliabideak (kultura, hezkuntza, ingurumena, genero-berdintasuna...) mobilizatzeko duten ahalmena ere aztertuko dugu; eta baita garapenerako lankidetzan esperientzia duten beste erakunde edo gizarte-eragile batzuekin elkarlanean jarduteko programak eta proiektuak sustatzeko aliantza publiko-pribatuak edo erakundeen arteko aliantzak ezartzeari begira udal-eremuak zer aukera eskatzen dituen ere.

Errealitatearen azterketak berretsi egin du udalen inplikazioa eta garapenerako lankidetzaren alde baliabide propioak mobilizatzeko duten gaitasuna; izan ere, Santurtzi eta Oñatiko udaletan izan ezik -neurri ertaineko udaletan- eta Abadiño eta Abaltzisketan izan ezik -udalerri txikien sailean-, gainerako udalerri guztiek baliabide propioak ezartzen dituzte lankidetzaren arlorako (11. grafikoa).

**11. grafikoa: Udal-administrazioaren baliabideak kontuan hartzen eta erabiltzen diren, udalerri-moten arabera**




Iturria: Lan honen egileak sortua.

Hauek dira udal-administrazioek lankidetzarako baliabide propioak mobilizatzeko gehien erabiltzen dituzten bideak: a) zuzeneko lankidetza, Hegoaldeko herri edo eragileekin harreman biziak lantzeko, senidetze edo hitzarmenen bidez; b) udaleko langile teknikoek lankidetzaren arloko zereginetan parte hartzea, bai zuzeneko lankidetza-proiektuetan aholkularitza teknikoa eskainiz, bai udaleko beste arlo batzuetan lankidetza zeharlerro modura ezarriz edo lankidetza-arloari lagunduz; eta c) jarduera propioak gauzatzea; garapenerako lankidetza kudeatzeko ardura duen arloak antolatutako eta bideratutako ekintzak (garapenerako hezkuntzakoak edo sentsibilizaziokoak). Hori guztia ikusten da 12. grafikoan eta II. eranskineko 9. taulan, zeinak ematen baitu aztertutako udalerriek gai horiei buruz duten egoeraren gaineko informazioa.

Udal-baliabideak lankidetzaren zerbitzura jartzeko biderik ohikoena jarduera propioak gauzatzea da; eta bigarren bide ohikoena, lankidetzaz bestelako udal-arloetako teknikarien ekarpena. Hain zuzen ere, udaleko beste arlo batzuk lankidetzan inplikatu ohi dira, jarduera propioak bideratzeko nahiz Euskal Fondoaren bidez beste jarduera batzuetan parte hartzeko (batez ere, Euskal Fondoaren bidez jarduteko).

**12. grafikoa: Tokiko udal-administrazioaren baliabideak erabiltzeko mekanismoak, udalerri-motaren arabera**




Iturria: Lan honen egileak sortua.

Era berean, interesgarria da "jarduera propioak" izendatu dugun esparru hori zehatzago aztertzea, jardueren tipologiari erreparatuta. Analisi horren emaitza

13. grafikoan bildu dugu; grafiko horretan ikusten denez, harrera-programak dira nagusi, aztertutako hiru udalerri-sailetan.

**13. grafikoa: Udalek beren udalerrietan sustatutako jarduera-motak**




Iturria: Lan honen egileak sortua.

Udaleko langileek lankidetzako eginkizunetan aholkularitza teknikoa emateko nahiz lankidetzaren aldeko laguntza-eginkizunetan duten inplikazioari dagokionez, alde handiak ikusi dira aztertutako udalen neurriaren arabera. Hain zuzen ere, euskal hiriburuetan, sail askotako langileek dihardute lankidetza-jardueretan, hala nola sail hauetakoek: berdintasuna, immigrazioa, osasuna, ura, giza eskubideak, ongizatea eta gizarte-zerbitzuak. Neurri ertaineko udaletan, nabarmen murritzagoa da lankidetzan inplikatzen diren udal-arloen kopurua (arlo bat edo bi); eta neurri txikikoetan, ez da sail bat baino gehiago lankidetzan aritzen.

### *c) Tokiko gizarteko eragileak eta baliabideak inplikatzeari ematen zaion arreta, GGKEez haratago*

Atal honetan, arreta berezia emango diegu aztertutako udalek garapenerako lankidetzarako balizko balioa duten tokiko baliabideak -administraziotik beretik haratago- mobilizatzeko duten gaitasunari. Elkarteen eremuko, ekonomia- edo/eta enpresa-sareko, hezkuntza- edo osasun-arloko, gizarte-mugimenduetako edo tokiko gizarteko beste esparru batzuetako baliabide eta ahalmenei buruz ari gara.

Askotan, lankidetzara bideratutako gizarte-baliabideak zeregin horretan espezializaturiko erakundeekin identifikatu izan dira, GGKEekin, adibidez. Hori dela-eta, interesgarria da euskal udalerriek sustatutako lankidetzan gai horri nola heldu zaion jakitea eta gizartean eskuragarri zeuden balizko baliabide horiek zer neurritan diagnostikatu eta baliatu diren aztertzea.

**14. grafikoa: GGKEez bestelako tokiko gizarteko eragileei eta baliabideei ematen zaien garrantzia, udalerri-motaren arabera**




Iturria: Lan honen egileak sortua.

Udal gehienek irekitzen dizkiete beren deialdiak zehazki lankidetzarako GGKEak ez diren bestelako organismo, elkarte edo talde batzuei. Neurri ertaineko hiru udal eta neurri txikiko beste hirutan baino ez dira bestelako erakunde horiek -GGKEez bestelakoak- lankidetzarako laguntzen hartzailetzat jotzen.

Gai horri buruzko informazioa biltzeko, udalek egindako diru-laguntzen deialdien oinarriak aztertu ditugu, jakiteko GGKEez bestelako zer erakunde izan daitezkeen laguntza horien hartzaile. Era berean, deialdi horietan edo udalak sustatutako lankidetza-jarduereetan zer motatako erakundeek parte hartu duten ere aztertu da. Lehenengo alderdiaren emaitzak II. eranskineko 7. taulan jasota daude, eta bigarrenari buruzko ondorioak, berriz, 10. taulan.

Diru-laguntzen deialdietara aurkeztu diren edo/eta horien onuradun izan diren erakundeen artean, honako hauek aurkitu ditugu: etorkinen elkar-

teak, emakume-elkarteak, aisiako elkarteak, auzo-elkarteak, sindikatuak, ikastetxeak, ikastolak, parrokiak, kongregazio erlijiosoak eta kooperanteak. Emaitzen azterketatik ondorioztatzen denez, ez dago aztertutako udalerri guztiei aplikatzeko moduko jokabide-logika jakinik. Hala, Vitoria-Gasteizko Udalak diruz laguntzen dituen urte anitzerako jardueren kasuan, adibidez, beste talde batzuei zabaltzen zaizkie, hala nola, etorkinei edo tradizioz lankidetza-eragile izan ez diren beste batzuei, esaterako, abokatuen elkargoari. Dinamika hori sustatzeko, klausula berezi bat txertatzen da deialdietan: diru-laguntza eskatzen duen erakundeak hiriko beste gizarte-erakunde bat inplikatu behar du proiektuan, lankidetzaren arloko inplikazioa areagotzeko eta zeregin horretan dihardute udalerriko pertsonen eta erakundeen kopurua handitzeko. Bilbori dagokionez, udalak nazioarteko lankidetza-proiektuetarako diru-laguntzen deialdi bat sortu zuen etorkinen elkarteentzat.

### *d) Partaidetza-organoak*

Azkenik, atal honen barruan, garapenerako lankidetzaren esparruko jardueren formulazioan, jarraipenean eta ebaluazioan gizarte-eragileek modu aktiboan parte hartzeko aukera izan dezaten aurreikusten diren partaidetza-bideak aztertuko ditugu.

Horretarako, bereziki aintzat hartu dugu ea udalerriek elkarte guztiei ematen dieten lankidetzaren arloan parte hartzeko aukera, baita partaidetza bideratzeko zer mekanismo formal eta informal dauden ere. Gai horiek interes handikoak dira, gainera, gardentasuna eta partaidetza erreala eta eraginkorra sustatzeko dituzten informazio sistemak lortzeko.

Aztertutako udalerrien kasuistika kontuan hartuta, lankidetza-kontseiluen azterketa hartu dugu oinarri, baita gai honi loturiko askotariko alderdiak lantzen dituzten beste partaidetza-organo batzuena ere. 15. grafikoan ikusten denez, udalerrien erdiek baino gehiagok dituzte partaidetza-organoak, nahiz eta alde handiak dauden horien garapenean.

**15. grafikoa: Partaidetza-organoak, udalerri-motaren arabera**




Iturria: Lan honen egileak sortua.

Aztertutako partaidetza-organoak honako bi kategoria nagusi hauetan sailka daitezke: a) Lankidetza-kontseilu espezifikoak, esparru horretan partaidetza bideratzeko berariaz sortuak; eta b) esklusiboki lankidetzarakoak ez diren kontseiluak -batzuk sortu berriak eta beste batzuk ibilbide luzeagoa dutenak-, garapenerako lankidetzaz gainera beste arlo batzuk barne hartzen dituztenak (aztertutako udalerrien artean ohikoena; 16. grafikoa). Bereziki azpimarratzeko kasua da Güeñesko udalarena: ez du partaidetza-organorik, baina udalak 2.0 webgunearen bitartez sustatzen du partaidetza. Gai honi buruz bildutako informazioa II. eranskineko 11. taulan jasota dago.

Partaidetza-organorik ez izateko askotariko arrazoiak daude, itxuraz. Elkarrizketetan ikusi dugunez, kasu batzuetan ez dute aukera hori aztertu ere egin, lankidetza bazter-jardueratzat baitute. Beste kasu batzuetan, partaidetzarik izango ote den zalantza dutelako ez da antolatzen halako organorik; alegia, zalantza dutelako inork parte hartzeko interesik izango duen. Azkenik, kasu batzuetan, udalak aztertu du aukera hori -eta beste arlo batzuetan gauzatu ere bai-, baina ez da oraindik gauzatu, lan asko eta baliabide gutxiegi dituztelako.

16. grafikoa: Partaidetza-organoak, udalerri-motaren arabera




Iturria: Lan honen egileak sortua.

### *e) "Baliabideei eta eragileei dagokienez" atalaren laburpena*

Atal honetan adierazitakoaren laburpen modura, aipatu beharra dago udal gehienek tokiko errealitateari lotzen dizkiotela, era batera edo bestera, beren lankidetza-politikak, ezaugarri horrek doktrina-izaera eduki nahiz ez.

Beste ezertan baino lehen, begi-bistakoa da hala dela tokiko eragileak -udal-administrazioa bera barne- lehentasunezko eragiletzat hartzeari ematen zaion garrantzian. Alde batetik, lankidetza-jardueren protagonistak tokiko erakundeak izateko moduan antolatuta daude lankidetza-jarduerak finantzatzeko tresnak. Eta, bestetik, kasu gehienetan inplikatu ohi da udal-administrazioa eginkizun horietan.

Alderdi horri dagokionez, azpimarratzekoa da kasu gehienetan ikusten dela uda-administrazioaren baliabideen inplikazioa, era batera edo bestera, baina oraindik ez dute esperientzia handirik metatu landako proiektuen edo beste udalerri batzuekiko proiektuen asistentziaren esparruan edo lankidetza teknikoan, eta ohikoagoa da administrazioko kideak edo baliabideak udalerrian bertan gauzatutako jardueretan inplikatzea, garapenerako hezkuntzaren eta sentsibilizazioaren arloetan, bereziki. Praktikan, tokiko askotariko erakunde eta entitateak udal-lankidetzan inplikatzeari begirako jarrera nahiko irekia dute aztertutako udalek; lankidetzarako erakunde tradizionaletatik haragoko inplikazioa sustatzen dute (GGKEak). Hala ere, oraindik ere indar handia du erakunde tradizional horietan oinarrituriko lankidetzaren ikuspegiak.

Azkenik, kasu batzuetan izan ezik, ez dago lankidetzaren arlorako berariaz sorturiko partaidetza-organorik. Baina gabezia hori orekatzen dute beste gai batzuk ere lantzen dituzten partaidetza-organo zabalagoak egoteak edo tokiko erakundeei parte hartzeko eta proposamenak egiteko aukera ematen dieten kanal informalek.

**17. grafikoa: 3.2.2. atalean aztertutako gaien laburpena, udalerri-motaren arabera**




Iturria: Lan honen egileak sortua.

Espero zenez, aipatutako alderdi bakoitza modu jakin batean adierazten da udalerri-mota bakoitzean. Baina, 17. grafikoan ikus daitekeenez, ez dago 3.2.1. ataleko laburpenean adinako alderik udalerri-moten artean ere, salbu eta partaidetza-organo formalen atalean.

### 3.2.3. Abian jarritako lankidetza- eta elkarkidetza-tresnei eta mekanismoei dagokienez

Hirugarren azterketa-esparrua tokiko erakundeek abian jarritako garapenerako lankidetzako elkarkidetza-mekanismoei eta erlazioei dagokie. Udalek sustatutako ekintzen ahalmen edo abantailetako bat da aukera ematen dutela elkarrekiko loturak eta lankidetza-erlazioak eratzeko, beste erakunde

batzuen edo estatu-gobernuen kasuan baino errazago, guztiek antzeko arazoak eta kezkak dituztelako, esparru geografikoa gorabehera.

Gainera, udalek, bereziki neurri ertain eta txikiko udalerrietakoek, aise identifikatzeko moduko funtzionamendu-sareak eta egiturak dituzte eta antzeko kezkak dituzten partaideak topa ditzakete beste toki batzuetan; horrela, partaidetza-harreman oparoak sor ditzakete esperientzia eta gaitasunak trukatuz. Esan bezala, tokiko esparruan errazagoa da elkarrekiko arduran oinarrituriko lankidetza-harremanak eratzea, emaile-hartzaile ikustegi tradizionaletik haratago, eta ekintzei eraginkortasun handiagoa ematen die horrek.

Ikuspegi horretatik, garrantzizkoa iruditzen zaigu oinarri horietatik abiatzen diren solidaritatezko loturak josi eta topalekuak eraiki ditzakeen lankidetza gauzatzeko gaitasuna eta jarrera aztertzea, proiektuen finantzaketaren edo unean uneko jarduera sakabanatuen esparrutik haratago. Hala, gauzatutako jardueren jarraitutasunaren azterketa hartu dugu ardatz, baita lankidetzarako elkargune eta erlazio horizontalak sortzeko gaitasunarena ere. Eta hurrengo ataletan emango dugu horren guztiaren berri.

### *a) Garapenerako lankidetzaren esparruan gauzatutako jardueren jarraipena*

Lehenik, tokiko erakundeek garapenerako lankidetzaren arloko jarduerak zer denbora-epetan planteatzen dituzten aztertuko dugu. Horretan, funtsezkoa da, beste behin ere, egiten den apustu-mota eta egindako jardueren sakontasunaren azterketaren aurrean jarduera horietarako jarritako funtsen bolumen osoari ematen zaion garrantzia. Jarduera sakabanatu eta unean unekoak diren edo jarraitutasuna duten eta intentsitateari eusten dioten aztertu beharra dago.

Gai horri loturik ikertu beharreko alderdiak dira, gure ustez, abian jarritako tresna-motak, plangintzaren denbora-hedadura eta urte anitzerako finantzaketa-aukerak. Horretarako, landutako plangintza-dokumentuei eta sustatutako ekintza-motei erreparatuko diegu. Jarduera eta proiektu gehienak urteko deialdien bidez gauzatu direnez, arreta berezia jarri beharko diegu urte anitzerako jarduerei atea zabaltzen dieten edo denboran zehar jarraitutasun handiagoa duten mekanismoei, horiek espezifikoki ezagutzeko. Epe luzeagoa edo jarraitutasuna duten jardueren artean, honako bereizketa hau egin daiteke: a) Urte anitzerako jarduerak barne hartzen dituzten diru-laguntzen deialdiak; b) denboran zehar nolabaiteko iraupena izango duten

proiektuak edo ekintzak sustatzeko hitzarmenak; eta c) zuzeneko lankidetzako jarduerak, udalak berak askotariko tresnen bitartez bideratuak (senidetzeak, Euskal Fondoa, etab.).

Laginaren azterketatik ondorioztatu dugunez, hiru hiriburuetan beste inon ez dituztela baliatzen hiru tresna-mota horiek. Hiriburuetan eta Hernanin beste inon ez dituzte sustatzen urte anitzerako jarduerak deialdien bitartez. Xede horretarako hitzarmenak baliatzen dituzte, hiru hiriburuez gainera, neurri ertaineko zenbait udalerrik (hala nola, Getxo, Irun, Erandio, Amorebieta-Etxano, Durango eta Santurtzi) eta 2 udalerri txikik (Berriz eta Ibarra). Zuzeneko lankidetzaren bidea, berriz, 11 udalerrik baliatzen dute: hiru hiriburuek; neurri ertaineko herrien saileko 5 udalek -Irun, Oñati, Andoain, Amorebieta-Etxano eta Laudio/Llodio-; eta neurri txikikoen saileko hiruk -Berriz, Ibarra eta Zizurkil-. 18. grafikoan ikus daiteke horren guztiaren laburpena.

Bereziki azpimarratzeko alderdia da jarraitutasunarekiko kezka handiagoa sumatzen dela garapenerako hezkuntzarekin eta sentsibilizazioarekin loturiko jardueren kasuan. Itxuraz, bestelako jarduera batzuetan baino jarraitutasun handiagoa dago era horretakoetan, eta udalak zuzenean sustatutako hitzarmenen edo jardueren bitartez gauzatzen dira, nagusiki. Kasu horretan, askoz ere indar txikiagoa dute urte anitzerako deialdiek.

**18. grafikoa: Jarduerei jarraitutasuna emateko erabilitako tresnak, udalerri-motaren arabera**




Iturria: Lan honen egileak sortua.

### *b) Elkarguneak eta elkarrekikotasunerako guneak sortzeko gaitasuna, lankidetza-harreman horizontalen esparruan*

Atal honi dagokionez, hauxe izango da ardatza: aztertutako udalerriek antzeko erantzukizunak, kezkak edo jarduera-esparruak dituzten erakunde eta organismoen arteko erlazioa eta harremana sustatzeko elkargune eta lankidetzarako gune gutxi-asko egonkorrak sortzeko duten kezka edo/eta gaitasuna.

Atal honetan, arreta berezia emango diogu udalek baliabide propioak garapenerako lankidetzara bideratzeko duten gaitasunari. Mekanismo horrek potentzial handia du, berez, aukera ematen baitu askotariko esparruetan oihartzuna izan dezaketen lankidetza-harreman iraunkorrak ezartzeko. Hala ere, iruditzen zaigu senidetzeen azterketa egiteko kontuan hartu beharrekoa dela, udal-administrazioen arteko erlazioen ikuspegia ez ezik, senidetutako udalerrietako elkarte eta erakundeak elkartzeko duten ahalmena, eta, hortaz, hainbat baliabide-mota sustatzeko duten ahalmena.

Bistan denez, atal honek lotura estua du aurrekoarekin, jardueren jarraitutasuna baita elkarguneak eta elkarrekikotasunezko edo/eta lankidetza horizontalerako erlazioak sortzeko faktore egokiena. Bestalde, norabide horretan lagundu dezaketen lankidetza-tresnen artean, senidetzeek dute presentzia nabarmenena. Hain zuzen ere, aztertutako udalerrietatik 3 baino ez daude -Aretxabaleta, Getaria eta Abadiño- garapenerako lankidetzako politiken esparruan inolako senidetzerik hitzartu ez dutenak.

Aipatzekoa da, halaber, aztertutako udalek sinatutako senidetze-hitzarmenen kopurua senidetzeak bideratu dituzten udalerrien kopurua baino handiagoa dela, herri batzuek senidetze-hitzarmen bat baino gehiago dauzkatelako, 19. grafikoan ikus daitekenez. Zehazki, 28 udalerri horien artean (hiru hiriburuak, neurri ertaineko udalerri guztiak eta udalerri txikien % 77) 41 senidetze-hitzarmen dituzte; nahiko kopuru altua da, eta aztertutako udalerriek arlo horretan egindako ibilbide oparoa erakusten du.

Nolanahi ere, sinatutako senidetze-hitzarmen horietako askok ez dute ekarri garapenerako lankidetza-erlaziorik, ezta lehen aipatutako erlaziorako esparru eta elkarguneak sortzeko biderik eman ere. Praktikan, senidetze horietako asko ez daude aktibo[13], eta horrek aldatu egiten du era horretako jarduerei buruz hasieran genuen hautematea. Hain zuzen ere, landu diren 41 senidetzeetatik 12 baino ez daude aktibo, gaur egun, 8 udalerritan

[13] "Senidetze aktiboak" esaten denean, benetan funtzionatzen dutela eta edukia dutela adierazi nahi dugu, irekitzen dituzten lankidetza-ildoan jarduerak egiten direla.

(azpimarratzeko datua da 28 udalerrik sinatu dutela noizbait era horretako akordioren bat). 19. grafikoan ikus daiteke aztertutako udalerrien senidetzeei buruzko informazioa.

**19. grafikoa: Senidetzeak, gauzatuak eta aktibo daudenak, udalerri-motaren arabera**




| | Hiriburuak (3) | Neurri ertainekoak (15) | Txikiak (13) |
|---|---|---|---|
| Senidetutako udalerrien kopurua | 3 | 15 | 10 |
| Gauzatutako senidetzeak | 6 | 22 | 13 |
| Aktibo dauden senidetzeak | 5 | 4 | 3 |
| Senidetze aktiboren bat duten udalerrien kopurua | 3 | 2 | 3 |

Iturria: Lan honen egileak sortua.

Euskal udalerrien senidetzeak eta senidetzeek garapenerako lankidetzarekin duten erlazioa aztertzeko garaian, ezinbestean aipatu beharra dago Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa. Izan ere, euskal udalerriek sinatutako senidetze-ekimen asko eta asko, 1990eko hamarraldian bideratuak nagusiki, *daira* eta *wilaya* deritzenekin sinatu ziren, SEADeko herriekin, alegia: saharar herriarekiko sostengu politikoaren adierazpena izan ziren, eta eduki sinbolikoa izan zuten, beste ezer baino gehiago. Zehazki, aztergai hartutako denbora-tartean sinatutako 41 senidetze-hitzarmenetatik 23 -erdia baino gehiago- SEADekin sinatu ziren (21 *daira* eta *wilay*ekin); beste 18ak, berriz, Latinoamerikako, Afrikako, Asiako eta Europako beste udalerri batzuekin egin ziren. Gaur egun, SEADekin sinatutako 23 senidetzeetatik 7 soilik daude aktibo, era batera edo bestera[14].

[14] Aztertutako udalerriek sinatutako senidetzeen ikuspegi osoa jasotzen du II. eranskineko 12. taulak. Taula horretan, aktibo dauden eta ez dauden senidetzeak bereizita daude.

Senidetzeek islatzen dituzten udalerrien arteko erlazioez haratago, senidetze horietako batzuen baitan -tarteka bada ere- ahaleginak egin dira udalerrien arteko lankidetzar-ekintzei horizontaltasun eta elkarrekikotasun handiagoa emateko. Hala izan da Aiztondo bailarako udalerrien (Zizurkil, Aduna, Asteasu eta Villabona) eta Morazan departamentuko Segundo Montes komunitatearen (El Salvador) arteko senidetzearen baitan gauzatutako jarduerETAN. Mankomunitatean urtero "senidetzearen eguna" antolatzeaz gainera, esku-hartze eta senidetze txikiak egiten dira Zizurkilgo eta Segundo Montesko kolektiboen artean. Zehazki, bi udalerrietako kolektiboen arteko harremanen artean, Segundo Montesko Che Guevara elkartearen eta Zizurkilgo Gaztetxearen artekoak nabarmendu nahi ditugu; baita Segundo Montesko ikastetxeak Zizurkilgo San Millan eta Pedro Mari Otaño ikastetxeekin izandakoak.

### *c) "Abian jarritako lankidetza- eta elkarkidetza-tresnei eta mekanismoei dagokienez" atalaren laburpena*

3.2.1 eta 3.2.2 atalekin egin dugun bezala, grafiko batean laburbildu ditugu udalerri-motaren arabera gai honi dagokionez jasotako informazioaren zertzeladarik adierazgarrienak.

**20. grafikoa: 3.2.3. atalean aztertutako gaien laburpena, udalerri-motaren arabera**




Iturria: Lan honen egileak sortua.

Alde batetik, garatutako lankidetza-jardueren jarraitutasunari dagokionez, aipatzekoa da oro har ez dagoela programei buruzko adierazpenetan edo politikako agirietan islatzen den apustu garbirik gai honi dagokionez. Nolanahi ere, sumatzen da gaiari buruzko kezka badela, eta agerikoa da tresna jakin batzuk erabiltzearen eta ekintzei jarraitutasuna ematearen eta horiek denboran luzatzearen arteko erlazioa. Hain zuzen ere, diru-laguntzen deialdiak dira jarraitutasuna gutxien sustatzen dutenak, beste tresna batzuekin alderatuta, hala nola hitzarmenekin edo zuzeneko lankidetzarekin alderatuta. Bestalde, garapenerako hezkuntzaren eta sentsibilizazioaren esparruan beste esparru batzuetan baino jarraitutasun handiagoa sumatzen da.

Lankidetzarako eta elkarrekikotasunerako guneak eratzeari dagokionez, dagoeneko aipatu dugun salbuespenen bat gorabehera, udalerrien arteko senidetze-ekimenei lotuak izaten dira arlo horretako ahaleginak. Senidetze horietako batzuek ez dute eduki handirik, ordea, eta, hortaz, esan liteke euskal udal-lankidetzak artean bide luzea egin beharko duela arlo horretan.

### 3.2.4. Politika gauzatzeko ezarritako bitartekoei dagokienez

Laugarren eta azken atalean, erabilitako bitartekoen azterketatik ateratako emaitzen berri emango dugu, eta baliabide horiek helburuekin bat etorri diren edo ez ondorioztatuko dugu; izan ere, dagoeneko azaldu dugunez, garrantzi handiko alderdia da hori ere, lankidetzarako udal-politiken ebaluazioa egiteko garaian.

Hurrengo ataletan, beraz, abian jarritako estrategiaren ikuspegitik nahiz antolaketa organikoaren edo giza baliabideei eta ekonomia-baliabideei dagozkien beste alderdi batzuen ikuspegitik aztertuko ditugu erabilitako bitartekoak. Atal honetan, kontuan hartuko ditugu, orobat, abian jarritako ebaluazio-ekimenak, osagarritasuna edo koordinazioa sustatzeko ahaleginak eta jardueren informazioari eta zabalkundeari loturiko alderdiak.

#### *a) Gogoetarako eta/edo plangintza estrategikorako agiriak*

Erabilitako bitartekoak alderatzeko eta jarduerak gidatzeko, baliagarria da, gure ustez, unean uneko jardueretatik haratagoko esparru bat kontuan hartzea, landu nahi diren gai eta kezka nagusiak eta horretarako aukeratutako bitartekoak barne hartuta.

Ildo horretatik, dagoeneko esan dugu -helburu esplizituen azterketa egitean- dokumentu eta analisi estrategiko gutxi daudela.

3 hiriburuetan beste inon ez dute landu plan estrategiko modura har litekeen egitasmorik -zeinek bere gida-plana dute-, nahiz eta beste udalerri batzuek baduten erreferentziaren bat (helburu estrategikoak edo tresnak definitzeko dokumentu edo proposamenen bat), gure ustez kategoria horretan sartzeko bete beharreko gutxieneko baldintzak betetzen ez dituzten arren plangintzari begira ahalegina egin dela erakusten dutenak.

Bestalde, azpimarratzekoa da hiriburuetan duela urte batzuetatik hona bideratutako plangintza osatu ahal izateko (Bilbon, adibidez, bigarren plana gauzatzen ari dira) ibilbide oparoa eta lankidetzarako baliabide jakin batzuk behar izan zirela. Era horretako plan bat egiteko, ezinbestekoa da erakundearen eta udalerriko lankidetzaren arloko eragileen inplikazioa, eta kanpoko laguntza eta ahalegin handia eskatzen dituen prozesua izaten da, oro har. Hortaz, ikuspegi eta ekimen politikoaz gainera, baliabideak behar dira era horretako planak gauzatzeko -giza baliabideak nahiz baliabide ekonomikoak-, eta, jakina, udalerri guztiek ez dute behar adina baliabiderik.

Nolanahi ere, kontua ez da aurrera eramandako lankidetzaren kalitatea ebaluatzeko baldintza jakin batzuk betetzen dituen plan estrategiko bat dagoen edo ez aztertzea. Badira plangintzarako beste formula batzuk udalaren lankidetzari sendotasuna eta koherentzia eman diezaieketenak, plan estrategikorik eduki ez arren. Udalerri gehienetan, ordea, ez dute planteatu ere egin plangintza estrategikoa lantzeko prozesu bat bideratzeko aukera, udal-politikaren baitan garapenerako lankidetzak duen pisu txikia dela-eta. Hala ere, baliabide gutxirekin jarduteko tarteko bideak lantzea plantea daiteke, gutxieneko aurreikuspen batzuk egiteko eta norabide orokorra finkatzeko, bete ezin izateko moduko prozesu handinahiegiak abian jartzeko beharrik gabe. Ildo horretatik, udaleko beste arlo batzuetan antzeko prozesuak bideratu diren azter daiteke, gida modura.

### *b) Lankidetzaren kudeaketa-organoak eta haien gaitasuna politika gauzatzeko*

Lankidetzara bideratutako egitura bera eta langileak ere interes handiko elementuak dira lankidetzarako ezarritako bitartekoak eta planteatutako helburu edo xedeekiko egokitasuna ebaluatzeko. Azterketa hori egiteko, honako elementu hauei erreparatu diegu: a) Lankidetza zer arlori atxikita dagoen; b) erreferentziazko langile teknikorik baden, eta langile horiek zer ezaugarri eta espezializazio duten; c) langile teknikoak lankidetzako eginkizunetan emandako denbora.

Lankidetza-jarduerak zer arloren baitan sartuta dauden, askotariko egoerak bereizi dira azterketan, baina hiru kategoriatan bildu ditugu egoera horiek. Lehenik eta behin, lankidetzaren arloa argi bereizten den kasuak daude, lankidetza gainerako arloetatik bereiz lantzen den nahiz arlo zabalago baten baitan sartuta egon arren (berdintasuna, herritartasuna, giza eskubideak edo gizarte-zerbitzuekin loturikoak) ongi bereizten den kasuak. Bigarren kategorian, lankidetza gizarte-zerbitzuak izendatu ditugunen arloan (gizarte-ongizatea, gizarte-ekintza edo bestelakoak, beste funtzio batzuk betetzen dituztenak) sartuta dagoen eta sail horietan modu esplizituan han agertzen ez den kasuak sartu ditugu. Azkenik, hirugarren kategorian, lankidetza beste arlo espezifiko batzuei atxikitzen zaien kasuak edo arlo jakin bati atxikitzen ez zaienak[15] sartu ditugu. 21. grafikoan ikus daitezke azterketa horretatik ateratako emaitzen laburpena.

**21. grafikoa: Garapenerako lankidetza zer arlori atxikitzen zaion, udalerri-motaren arabera**




Iturria: Lan honen egileak sortua.

Jasotako informazioak lehenik eta behin erakusten duenez, praktikan, ez dago udal bakar bat ere garapenerako lankidetzara soil-soilik bideratutako sail bat duenik. Ohikoa da, aldiz, neurri handi samarreko udaletan, batik bat, lankidetzarako zerbitzu espezifiko bat eskaintzea, eta zerbitzu hori eskaintzen duen sailean lankidetzaren izena agertzea; horrek arloa agerian uzten eta haren garrantzia erakusten du. 31 udalerrietatik 9 daude egoera horretan. Aukerarik ohikoena (18 kasu) lankidetza gizarte-zerbitzuen sailari atxikitzea da, ñabardurak ñabardura, eta ez, nahitaez, sailaren izenean lankidetzaren erreferentzia adierazita.

Azkenik, badira bestelako kasu berezi batzuk. Batzuetan, kulturarekin zerikusia duten sailei lotu ohi zaie lankidetza; eta kasu batean kudeaketa

[15] II. eranskineko 13. taulan, lagineko udalerri bakoitzaren atxikipena agertzen da.

*informalagoa* topatu dugu, arlo espezifiko jakin bati atxiki gabe baitago[16].

Lankidetzaren arloa sailetan modu organikoan txertatuta dagoen jakitetik haratago, lankidetzarako erreferentziazko langile teknikorik ote dagoen jakitea komeni da, baita, halakorik izatekotan, langile horiek zer kualifikazio eta arduraldi duten jakitea ere. Hala, 31 udalerrietatik 29 udalerritan dituzte lankidetza-zereginetarako erreferentziazko langile teknikoak, eta bi udalerri txiki besterik ez daude zeregin horiek zuzenean Alkatetzaren esku utzita edo funtzio horiek betetzeko inor izendatuta ez dutenak.

Erreferentzia modura ageri diren eta zeregin horietan diharduten langileei dagokienez, lankidetzako teknikariak eta gizarte-zerbitzuetako teknikariak bereizten dira; izan ere, ikusi dugunez, gizarte-zerbitzuetan txertatu ohi da lankidetza, sarritan. Udalerri gehienen neurria dela-eta, pertsona berak izaten du lankidetzaren eta beste egiteko batzuen ardura, aldi berean. Gizarte-langileei dagokienez, langile horietako batzuk pixkanaka lankidetzan jarduteko gaitasuna hartuz joan dira. Euskal Fondoak badu zeresana horretan; izan ere, sortu zenetik, ezin konta ahala prestakuntza-ekintza bideratu ditu lankidetzako udal-teknikariak gaitzeko eta arlo horretan dauden gabeziei erantzuteko.

**22. grafikoa: Lankidetzaren ardura duten langile teknikoak, udalerri-motaren arabera**




Iturria: Lan honen egileak sortua.

22. grafikoan ikusten denez, 3 hiriburuek -eta neurri ertaineko 4 udalerrik- besterik ez dituzte lankidetzako teknikariak. Hiriburuetan, lankidetza-zer-

[16] Güeñesen kasuan, dagokion tresnaren arabera, arlo jakin batekin lan egiten da: Alkatetzak Euskal Fondoko lanaren eta senidetzeen ardura du; Gizarte Ekintza arduratzen da Oporrak Bakean programaz, eta Gazteria, berriz, Güeñes Gaztea programaz. Hortaz, nolabaiteko zeharkakotasuna dagoela esan liteke.

bitzuek lanaldi osoan ari diren langile bat baino gehiago dituzte, gainera (2, Bilbon; 3, Donostian eta Vitoria-Gasteizen). Hiriburuetan lankidetzaren arloko ekimenei jarraitutasuna ematea eta teknikari gero eta gehiago izatea funtsezko eragileak izan dira, zalantzarik gabe, haren bilakaeran eta lanaren kalitatearen hobekuntzan.

Lankidetzako teknikaririk ez duten udalerrietan, gizarte-zerbitzuetako teknikariek jarduten dute lankidetzako eginkizunetan. Kasu batzuetan, udalak gizarte-zerbitzuen arlorako duen langile bakarren ardurapean gelditzen da lankidetzaren arloa; eta, beste batzuetan, zeregin horretan teknikari bat baino gehiago aritzen diren kasuetan, arloko arduradun teknikoaren esku gelditu ohi da ardura, oro har. Bi kasutan, gizarte-zerbitzuetako langile teknikoak arduratzen dira lankidetzaz, baina beste arlo batzuetako teknikarien laguntzaz -Donemiliagan, kulturakoen laguntzaz, eta Lasarte-Orian, enplegukoen laguntzaz-, eta, kasu batean, lankidetzaren ardura duen langile teknikoa ez dago ez gizarte zerbitzuei ez lankidetzari atxikita, kulturari atxikita baizik (Zizurkil) [17].

Lanaldi osoz ari diren langileen kasuak alde batera utzita, ohikoa da erreferentziazko pertsonak lankidetzaren arloko eta bestelako zereginak uztartzea bere lanean, eta horregatik gehiago sakondu dugu egoera horretan. Askotariko erantzunak jaso ditugu arduraldiari edo lanaldiari buruz (urteko egunak edo lanaldiaren ehunekoa), eta lankidetzaren ardura duen langile teknikoak zeregin horietan emandako gutxi gorabeherako denboraren estimazioa egiten saiatu gara erantzun horietatik abiatuta, baina zenbait kasutan gutxi gorabeherako kalkulurik ere ezin izan da egin.

**23. grafikoa: Langile teknikoek lankidetzako zereginetan gutxi gorabehera emandako denbora, udalerri-motaren arabera**




Iturria: Lan honen egileak sortua.

[17] II. eranskineko 14. taulan bilduta dago horri buruzko informazio xehea.

23. grafikoan, aztertutako udalerrietan lankidetza kudeatzen diharduten langile teknikoek beren lanalditik zeregin horretan emandako ehunekoak adierazi dira[18]. Esan dugunez, hiriburuek -pertsona bat baino gehiago- eta neurri ertaineko udalerri batek -Getxo- dituzte lanaldi osoko langileak lankidetzaren arloan lanean. Neurri ertaineko eta neurri txikiko udalerrien artean, lankidetzari eskainitako ohiko lanaldia % 25etik beherakoa izaten da (hain zuzen ere, % 5 eta 15 bitartekoa, kasuaren arabera, baina inon ere % 25era iritsi gabe). Udalerri txikienek zailtasun gehiago dituzte lankidetzari eskaintzen zaion denbora kalkulatzeko, eta, oro har, adierazi dute diru-laguntzen deialdiei loturiko zereginek kentzen dietela denbora gehien (kasu batzuetan, horiek dira langile teknikoek aipatutako zeregin bakarrak).

Lanaldiaren estimaziorik egin ezin izan duten udalerriak alde batera utzita, neurri ertaineko udalerrietan lankidetzari eskainitako lanaldiaren zenbatekoa % 25ekoa da, eta % 8koa, berriz, udalerri txikienetan. Arduraldi partziala eta partekatua izatea muga handia da, zalantzarik gabe, arlo honetan egunez eguneko kudeaketatik haratagoko ahaleginak egin ahal izateko.

### *c) Baliabide ekonomikoak eta aurrekontu-baliabideak, eta horien aurreikusgarritasuna*

Baliabideen alderdiari lehentasunezko arreta eman ohi zaio lankidetza-politiken kalitatea eta arlo horretan ahaleginak ebaluatzeko garaian. Esan dugunez, ikerketa honek bestelako oinarri batzuk ditu abiapuntu, politiken egokitasuna eta koherentzia hartu baitira ardatz, lankidetzarako ezarritako funtsen kantitatearen gainetik. Nolanahi ere, azterketan garrantzia eman zaio politikak garatzeko aurrekontu nahikoa eta aurreikusgarria edukitzeari, eta udalaren konpromiso-mailaren adierazletzat hartu dugu, gainera.

Gai hori ikertzeko, 2011ko datuak erabili dira, lankidetzara bideratutako kopuruak eta tresna bakoitzaren araberako banaketa besteak beste. Lankidetzara bideratutako per capita aurrekontuari dagokionez[19], 0 eurotik hasi eta 10 eurotik gorako gehienekoetara bitarteko zenbatekoak aurkitu ditugu (Oñati, Aretxabaleta, Vitoria-Gasteiz eta Berriz). Eta aurrekontuen arloan egindako ahalegina ez dago udalerriaren neurriarekin estu lotuta. Aurrekontuen araberako sailkapena eta biztanle-kopuruaren araberakoa alderatuta, alde handiak ikusten dira udalerri batzuetan, positiboan nahiz

[18] Askotariko erantzunak jaso ditugunez (egun/urte, lanaldiaren ehunekoa…), horien arteko konparazioa egiteko, erantzun guztiak lanaldiaren ehuneko zenbatekoetan adierazi ditugu. II. eranskineko 15. taulan, kasu bakoitzerako estimatutako ehunekoak agertzen dira.

[19] II. eranskineko 16. taulan agertzen dira 2011ko ekitaldiko zenbatekoak.

negatiboan. Alde positiboan, aipatzekoa da 5 udalerri daudela beren biztanleriaren arabera legokiekeen tokitik 7 edo 8 toki gorago sailkapenean (Oñati, Aretxabaleta, Berriz, Ibarra eta Andoain). Kontrako muturrean, berriz, badira zenbait udalerri neurri handikoak izan arren udalerri txikiek baino zenbateko txikiagoak bideratzen dituztenak lankidetzara eta, hala, biztanle-kopuruaren arabera zerrendan duten tokitik 7 eta 13 toki bitarte beherago daudenak (Azkoitia, Barakaldo, Erandio eta Lasarte-Oria). Gorabehera horiek erakusten dutenez (beste aldagai batzuen arabera ñabardurak egin badaitezke ere, hala nola osoko aurrekontuen edo udaleko per capita errentaren arabera), lankidetzari ematen zaion arretari dagokionez, udalerriaren neurriak baino eragin handiagoa dute borondate politikoak eta beste irizpide batzuek.

Ildo horretan sakonduz, 24. grafikoak per capita lankidetzara batez beste bideratutako zenbatekoa erakusten du, udalerriak neurriaren arabera bereizita (eta aurrekonturik ez duten kasuak alde batera utzita). Ikusten denez, ardura handiagoa izan dute hiriburuek, bai batez besteko kopuruek bai gutxienekoek erakusten dutenez. Baina badira haien ekarpenen neurriko edo hortik gorako ekarpena egin duten udalerri ertain eta txiki batzuk ere, eta, are gehiago: udalerri txiki eta ertainek egin dute per capita ekarpen handiena. Oro har, ez dago alde handirik udalerri ertainen eta txikien artean (nahiz eta bi udalerri txikik partida hori ezabatu duten).

**24. grafikoa: 2011n lankidetzara bideratutako per capita aurrekontua (gehienekoa, gutxienekoa eta batez bestekoa), udalerri-motaren arabera**




Iturria: Lan honen egileak sortua.

Aurrekontuetako zenbatekoari dagokionez, zenbateko zehatzari baino gehiago, zenbateko horiek finkatzeko eta aurreikusteko irizpideak hartu ditugu kontuan. Ildo horretatik, nabarmendu beharra dago aldaketa eta murrizketa latzak gertatzen ari direla, baina ezinbestean aipatu behar ditugu aurkitutako aurrekontu-konpromisoak eta horiei loturiko arazoak.

Oro har, konpromiso gutxi-asko esplizituak topatu ditugu % 0,7 helburuari buruz, nahiz eta nahasmen handi samarra izan helburuak finkatzeko garaian, irizpide desberdinak erabili baitira, % 0,7aren kalkuluari berari buruz askotariko interpretazioak egin izanaren ondorioz. Udalerriko BPGa ez denez, itxuraz, erreferentzia egokia (udalerriak bere baliabideen parte bat baino ez baitu kudeatzen), udal-aurrekontua hartzen da kalkulua egiteko oinarri modura. Baina ikusirik aurrekontuari buruz askotariko interpretazioak zeudela, Euskal Fondoak, GGKEen Koordinakundeak eta beste erakunde batzuek zenbait gomendio egin dituzte. Interpretazio desberdinen erakusgarri dira, adibidez, hiriburuetako gida-planak; izan ere, kasu batzuetan diru-sarrerak hartzen dira erreferentziatzat, eta gastu arruntak, berriz, besteetan.

Zenbatekoen gorabeherak alde batera utzita -ez baitira laguntza handikoak-, bestelako zailtasun praktiko batzuk topatu ditugu lankidetzaren arloko gastuak zenbatzeko garaian, bereziki, diru-laguntzen deialdiez bestelako eremuetan -diru-laguntzen eremua mugatuagoa baita- eta jarduera propioen edo udalari atxikitako beste ekintza batzuen esparruan, zeinetan behar baita ikerketa analitikoagoa, baliabide propioen bidez edo beste arlo batzuekin lankidetzan (kultura…) gauzatzen direlako eta zailagoa delako horiek kontularitzan behar bezala erregistratzea. Edonola ere, kontua da gero eta ziurgabetasun handiagoa dagoela aurrekontuen arloan, eta, horren ondorioz, zapuzten ari direla garai bateko asmo onak eta aurreikuspenak; hori dela-eta, arlo honetan garatu beharreko politikei sendotasuna emateko behar diren konpromisoen aurreikuspen errealista egitea komeni da.

Aurrekontuaren banaketari dagokionez, askotariko kasuak daude, baina diru-laguntzen deialdiena da, zalantzarik gabe, partida nagusia. Askotan, isilbidezko banaketa-arau moduko bat erabili ohi da, gutxi gorabehera honela labur daitekeena: % 10 bideratzen da Euskal Fondora; % 80, deialdietara; eta gainerako % 10a, bestelako tresnetara, oso gutxi zuzeneko lankidetzara. Senidetzeetarako berariazko aurrekontu-partidarik ez da izaten, eta beste bide batzuetatik finantzatzen dira (senidetzeekin loturiko jarduerak egiten diren kasu apurretan), adibidez, senidetutako herriarekin lankidetzan diharduten tokiko erakundeen hitzarmenen bidez edo Euskal Fondoan ezarritako dirua senidetutako udalerrian garatuko diren proiektuetara bideratuz.

### *d) Sustatu eta gauzatutako jardueren ebaluazioa*

Lankidetzara bideratutako bitartekoen esparruan, garrantzizko alderdia da egindako jardueren ebaluazioa, gogoeta-prozesua sustatzeko eta arloaren funtzionamendu gero eta hobea lortzeko. Ebaluazio-lanetan askotariko formalizazio-mailak bereiz daitezke, baina komeni da ebaluazioa aurreikustea plangintza egitean edo politikak diseinatzean, eta ebaluazioa egitea, ondoren.

Ildo horretatik, udalerri batzuetan nahiko ohikoa da proiektuei jarraipena egitea, arduradun teknikoen eta politikoen bisitak barne, eta Euskal Fondoaren baitan gauzatzen da zeregin hori sarritan. Kasu jakin batzuetan, kanpo-kontratazioak egiten dira jarduerak ebaluatzeko. Ez da ikusi, ordea, eginkizun horiek gauzatzeko jarraibide edo plangintza jakinik; gainera, jarraipenetan arreta gehiago ematen zaio proiektu zehatzen (edo eskualde bateko proiektu-sorta baten) ebaluazioari, udalerriaren politika bera aztertzeari baino.

Beste lan batzuetan adierazi izan dugunez, ebaluazioaren garrantziari dagokionez, aldaketa nabarmena gertatu da erakundeetan gida-planak lantzen hasi zirenetik. Plangintzari begira egindako ahalegin horrek ardura handiagoa dakar, eta, horrek bultzatuta, proiektuen eta programen ebaluazio-jardueretarako jarraibide batzuk finkatzeko ahaleginak egin dira, baita hasieratik adierazle jakin batzuk txertatzeko ahaleginak ere, planaren betetze-maila neurtzeari begira[20]. Guri dagokigunez, dagoeneko azaldu dugu toki gutxitan lantzen dituztela plangintzako dokumentuak, eta horrek eragina izango zuen, seguru asko, ebaluazio-kultura pobrean.

Nolanahi ere, ebaluazioaren esparruan egindako ahalegin apurrek ez dute ekarri gauzatutako politika berbideratzeko edo hari buruzko eztabaida egiteko gogoeta- edo/eta analisi-prozesurik.

### *e) Beste erakunde eta administrazioaren eremuekiko koordinazioa*

Atal honetan aztertzeko alderdia da ekimenak beste erakunde batzuen jarduerekin koordinatzeko edo osatzeko aukera. Neurri handi samarreko lankidetza-arloak dituzten udaletako balizko sinergietatik haratago, funtsezko alderdia da udalerri txikientzat, hainbat esparrutako lana errazten lagundu diezaiekeen neurrian.

[20] Bilboko 2010-2013 Planeko adierazleen koadroa da, ildo horretatik, gure azterketan ikusitakotik ebaluazio-plan baten antz gehien duen tresna.

Erakundeen arteko koordinazioari dagokionez, Euskal Fondoa da haren kide diren udalerri gehienen erreferentzia nagusia. Proiektuak elkarrekin bideratzeko aukera emateaz gainera, aholkularitzako eta prestakuntzako zerbitzuak, deialdietarako eta araudietarako laguntza, irizpideak finkatzeko aukera eta elkarguneak eskaintzen ditu. Bestalde, elkarrizketa batzuetan Euskal Fondoak zuzeneko lankidetza lantzeko tresna gisa dituen aukerak nabarmendu dituzte, udal batzuentzat askoz ere zailagoa baita bakarka aritzea. Beste batzuek, berriz, zenbait udalerriren artean zuzeneko lankidetza bideratzeko zailtasunak nabarmendu dituzte, nahiz eta desiragarria eta sinergiak sortzeko egokia iruditzen zaien.

Euskal Fondoaz haratago, ez dago koordinaziorako gune asko. Hiru hiriburuetan Saharari buruzko baterako ekimenak egiten dituzte, eta, horretarako, elkarrekin zabaltzen dituzten jarduerak antolatzen dituzte. Hiriburu guztiek diote maila horretako koordinazioa zailagoa dela Euskal Fondoaren bidez egiten dena baino, baina oso iritzi positiboa dute koordinazio horri buruz, zailtasunak zailtasun. FEMPren baitan (Udalerrien eta Probintzien Espainiako Federazioa), Bilboko Udalak lankidetza deszentralizatuari buruzko lan-talde batean parte hartu du, Espainiako estatuko beste udalerri batzuekin batera, eta 2011n gidaliburu bat argitaratu zen lan-talde horren ekarpenean oinarrituta. Prozesu horretan zehar, aurrez aurreko 8 bileratan izan da Bilboko Udala, beste udal parte-hartzaile batzuetako arduradunekin batera, eta elkarrengandik ikasteko eta esperientziak trukatzeko baliatu dituzte bilkura horiek.

Azkenik, esan beharra dago lankidetzan inplikatutako udal gehienek oso partaidetza urria dutela EAEko koordinazio- eta partaidetza-organoetan eta eztabaidetan (erakundeen arteko batzordea, lankidetza kontseilua). Organo horien osaera dela-eta, Eudelen edo Euskal Fondoaren bidez zeharka bideratzen da partaidetza hori, eta ez da iristen udal gehienetara. Horren ondorioz, nolabaiteko urruntasuna sumatzen da lankidetzaren arloko udal-jardunaren eta beste euskal erakunde batzuek sustatutakoaren artean, eta litekeena da horixe izatea EAEko lankidetzari buruzko dokumentu estrategikoetan euskal udalen baliabideek eta gaitasunek hain garrantzi gutxi izateko arrazoia.

### *f) Lankidetza-jarduerei buruzko informazioa emateko eta zabaltzeko tresnak*

Atal honetan, herritarrei lankidetza-jardueren gaineko informazioa nola helarazten zaien aztertu da; informazioa emateak -gardentasunari mesede egiteaz gainera- aukera eman dezake jarduera horietan inplikazioa areagotzeko eta haietara baliabide gehiago bideratzeko.

Garrantzizkoa dela ukatzen ez duten arren, udal gehienetan ahulezia handia sumatzen da alderdi honetan, nahiz eta bide horretan hobera egin nahiko luketela esan duten elkarrizketetan. Toki gutxitan argitaratzen dituzte lankidetzaren arloko jarduerei buruzko txostenak, eta ez da horiei buruzko informazio asko ematen; gabezia hori azaltzeko behin eta berriz argudiatu izan dute denborarik ez dutela eta arduradunak oso lanpetuta daudela. Lankidetzaren ardura duten langile tekniko gehienen aburuz, ez da behar bezala ikusarazten lankidetzan egindako lana, nahiz eta udalerriko kide askok parte hartzen duten jarduera izan, kasu batzuetan.

Dena den, badira lankidetzari buruzko askotariko informazioa herritarrei helarazteko zenbait bide. Eskuarki jakinarazten den informazioa deialdien bidez banatutako diru-laguntzen gainekoa izaten da, eta, oro har, datu ekonomikoek izaten dute jakinarazpen horietan lehentasuna, jardueren edukiari buruzko informazioak baino gehiago. 25. grafikoan jasota dago alderdi horiei buruzko informazioa, eta, ikus daitekeenez, diru-laguntzei buruzko informazioa den arren gehien zabaltzen dena, udal gehienek ematen dute beste gai batzuen berri ere, hainbat bide erabilita[21].

**25. grafikoa: Lankidetzari buruzko informazioaren zabalkundea, udalerri-motaren arabera**




Iturria: Lan honen egileak sortua.

[21] II. eranskineko 17. taulan ikus daiteke aztertutako udalerriek zabalkunderako gehien erabiltzen dituzten tresnak zein diren.

Lehenik, neurri ertaineko udalerri batean izan ezik, aztertutako kasu guztietan transmititzen zaie nolabaiteko informazioa herritarrei. 5 kasutan, diru-laguntzen deialdiei eta haien ebazpenari loturiko informazioa besterik ez dute ematen, baina ez da joera orokorra, kasu gehienetan (31 udalerrietatik 25 udalerritan) informazio zabalagoa ematen baitute.

Informazioa helarazteko bideei dagokienez, askotariko formatu edo produktuak eta bideak bereizten dira. Udalek hainbat tresnaren bidez (tokiko aldizkariak, esku-orriak, kartelak, etab.) ematen diete herritarrei askotariko arloetan egiten dituzten jardueren berri, nazioarteko solidaritatearekin eta garapenerako lankidetzarekin lotura dutenen berri, besteak beste.

Gure ikerlanean, bi tresna-mota hartu ditugu aintzat, herritarrei helarazitako informazioari buruzko kezka neurtzeko bereziki adierazgarriak iruditzen zaizkigulako. Batetik, lankidetza-jardueren gaineko txostenak egiten diren edo ez aztertu dugu. 31 herrietatik 9 herritan egiten dituzte, baina hiru hiriburuetan eta Getxon baino ez dituzte zabaltzen eta ez diete aitortzen informazio-balioa; gainerakoetan, barne-erabilerarako baino ez dituzte prestatzen txostenak.

Bestetik, gero eta nagusitasun eta garrantzi handiagoa hartzen ari den tresna baten erabilera neurtu dugu: udalaren webgunearena. Aztertutako udalerri askotan beren webguneak eta informaziorako/komunikaziorako estrategiak birmoldatzeko prozesuetan murgilduta dabiltzan arren, 26. grafikoan ikusten da udalerrien erdiek baino gehiagok (15) dutela lankidetzari buruzko atal espezifiko bat webgunean (zenbat eta udalerri handiagoa izan, orduan eta ohikoagoa da hala izatea). 31 herrietatik 7n baino ez dute atal berezirik webgunean eta ez dute argitaratzen txostenik.

**26. grafikoa: Txostenen eta webguneen erabilera, udalerri-motaren arabera**




Iturria: Lan honen egileak sortua.

Azkenik, edukiei dagokienez, informazioa transmititzeko eta gardentasuna bermatzeko asmoak lotura estuagoa izaten du informazio ekonomikoarekin, elkarreraginerako aukerarekin baino, informazio kualitatiboa ematearekin edo lankidetzarako sostenguaren esparrua zabaltzearekin baino.

### *g) "Politika gauzatzeko ezarritako bitartekoei dagokienez" atalaren laburpena*

Atal honetan landu ditugun gaiak direla-eta, ez dago atala grafiko baten bidez laburtzerik, aurreko ataletan egin dugun bezala. Hala ere, aztertutako gaien zertzelada nagusi batzuk eman daitezke.

Lehenik, nabarmendu beharra dago lankidetza-politikarako bitarteko espezifiko erabilgarriei dagokienez alde handiak daudela udalerrien artean, neurriaren arabera. Desberdintasunak ikusten dira programari buruzko dokumentuak edo lankidetza-planak badituzten begiratuz gero, baita zerbitzu edo arlo espezifikoak edo langile tekniko kualifikatuak badituzten begiratuta ere. Hiru alderdi horiei dagokienez, hiru hiriburuek eta neurri ertaineko udalerri batzuek baino ez dute baliabide jakingarririk. Hala ere, nolabaiteko proportzioa ikusten da hartutako konpromisoaren heinaren eta kasu bakoitzean planteatutako zereginen artean.

Bigarrenik, lankidetzan ezarritako finantza-baliabideetan ere askotariko egoerak bereizten dira. Logikoa da kopuru absolututan neurri handieneko udalerrienak izatea ekarpenik handienak, baina termino erlatiboetan (euro/biztanle) alde handiak daude udalerrien artean. Batez bestekoetan nahiz gutxienekotan -betiere, euro/biztanle kopurutan-, lankidetzarako funts gehiago ezarri izan dituzte hiriburuek. Aldiz, neurri txiki eta ertaineko zenbait udalerrik egiten dute per capita ekarpen handiena.

Garatutako jardueren ebaluazioari ez zaio behar adinako garrantzirik ematen oraindik, eta, oro har, neurri handieneko udalerrietara edo Euskal Fondoaren baitan egiten diren jarraipen-lanetara mugatutako esparrua da. Horrek zuzeneko lotura du udalerriek erabilgarri dituzten baliabideekin eta aukerekin, eta ez dugu ahaztu behar tokiko lankidetza eremu mugatua dela oso.

Euskal udalen lankidetza-politikaren eta beste erakunde batzuenaren artean ez dago koordinaziorik, oro har. Alde batetik, ez dago arlo horretako lanaren berezitasunei egokitzen zaien partaidetza- eta koordinazio-organorik. Eta,

bestetik, udal askok ez dute maila horretako neurriak proposatzeko edo alternatibak planteatzeko gaitasunik ere. Gainera, Euskal Fondoak euskal udal-lankidetzaren esparruan betetzen duen zereginaren bitartez, udalen lankidetza-jarduera asko uztartu eta koordinatu daitezke, neurri ertain eta txikiko udalenak, batik bat.

Azkenik, jendartera informazioa zabaltzeko mekanismoei eta tresnei dagokienez, oro har askotariko bideak erabiltzen dira lankidetza-politikaren berri nahiz haren baitan garatutako jardueren berri emateko. Txostenak eta webguneak dira erabilienak.

# 4. Ondorioak eta azken buruko gomendioak

Une honetara iritsita, interesgarria iruditzen zaigu zenbait gogoeta orokor egitea, gure ikerketa eta analisitik abiatuta baina haietatik haratago iristeko xedez. Zehazki, euskal udal-lankidetzari buruzko ikuspegi orokorraren argazkia osatu nahi da, arlo horren lorpenei eta mugei buruzko eztabaida sustatzeko, batik bat kontuan hartuta lankidetza-politika deszentralizatuan aldaketa handiak gertatuko direla gaur egungo testuingurua dela-eta. Bi atal nagusitan bildu ditugu gogoetak. Lehen atalean, azterlanetik eta landutako informaziotik ateratako ondorio batzuk aurkeztuko ditugu. Bigarrenean, berriz, ikerketa-taldearen aburuz gogoetarako, eztabaidarako eta lankidetzako udal-politika berbideratzeko baliagarriak izan daitezkeen gomendio batzuk aurkeztuko ditugu.

## 4.1. Ondorioak

Jarraian aditzera emango ditugun oharren bidez ikerlanean nabarmendu diren eta gure ustez garrantzi gehien duten alderdien laburpena osatu nahi dugu.

**Lehenik**, nabarmentzekoa da udalek ez dutela egin gogoeta espezifikorik garapenerako lankidetzari buruz eta lankidetza horretan udalek eta tokiko erakundeek izan dezaketen egitekoari buruz. Gabezia horretan eragin handia du euskal udal-lankidetzaren ibilbideak, herritarren eskakizunari erantzunez, edo euskal udalerrietako herritarrek beste herrialde batzuetan egindako lanarekin loturiko eskakizun zehatzei erantzunez garatu baita udal-lankidetza, hein handi batean.

Udalen gogoeta espezifikorik eza modu jakin batean islatu da udal-mota bakoitzean. Hala, udalerri handienetan -bereziki, hiru hiriburuetan- izaera “integraleko” lankidetza-eredu bat bilatu dute, eredu hori gida-plan gutxi asko handinahietan zehaztu dute, eta helburu, eragile edo tresnei dagokienez goragoko mailetan dauden beste lankidetza batzuen plangintzan erabiltzen den logika erreproduzitzeko joerari jarraitu diote, oro har. Hala ere, bi hamarralditik gorako ibilbidea eginda, azken gida-planei buruz egindako eztabaidei esker, tartetxo bat zabaldu da zehazki udalei dagozkien lankidetza-politiken alderdi batzuei buruz gogoeta egiteko. Udalerri txikiagoetan, bestalde, gogoetarik ezak bultzatuta, tokian tokiko eskakizunekin lotura hertsiagoa duen lankidetza baten aldeko apustua egin dute, baina udalen potentzialtasunari buruzko diagnostikorik gabe, oro har.

Gure iritzian, kontua ez da udalek beren jarduera-ahalmenetik haratago doazen plan estrategiko handinahiak lantzea, baizik eta udal-lankidetzari

nola helduko dioten eta udal-lankidetzak garapenerako euskal lankidetzaren baitan zer-nolako tartea izan dezakeen aztertzeko analisi propio bat egitea.

Euskal Fondoaren bidez sustatutako proposamenek eta jarduerek udal-lankidetza espezifikoaren aukerei buruzko gogoeta zabaldu dute, nahiz eta zuzeneko lankidetzan egin diren aurrerapen nagusiak. Aldiz, bigarren mailan gelditu da tokiko gizartearen nahiz eragile eta erakundeen partaidetzari dagokion alderdia -udalek tokiko baliabidek mobilizatzeko eta aliantza publiko-pribatuak mobilizatzeko gauza dezaketen lidergoari buruzko gogoeta barne-, nahiz eta udal txiki batzuetan esperientzia batzuk abian jarri dituzten.

**Bigarrenik**, ez da gogoeta espezifikorik egin udal-lankidetzaren esparruan bereziki adierazgarriak iruditzen zaizkigun zenbait alderdiri buruz, hala nola, erakundeak sendotzeari eta tokiko garapenari buruz, batetik, eta garapenerako hezkuntzari eta sentsibilizazioari buruz, bestetik. Gure azterketatik ondorioztatzen denez, bi gaiak dira oso garrantzizkoak gauzatutako politikari dagokionez, eta halaxe erakutsi dute aztertutako dokumentuek nahiz egindako elkarrizketek.

Erakundeak sendotzeari eta tokiko garapenari buruzko gero eta kezka handiagoa dagoela ikusi dugu; baina neurri handiko udalerrietan plangintza estrategikoak garatu izanari esker areagotzen ari da kezka hori, eta gainerako udalerrietan, berriz, zerikusi handiagoa du zenbait mekanismoren bidez sustatutako dinamikekin, hala nola, Euskal Fondoaren proiektu eta ekintzetako partaidetzaren bidez.

Garapenerako hezkuntzarako eta sentsibilizaziorako ekintzek presentzia nabarmenagoa izan dute, hasieratik, politikako dokumentuetan (planetan nahiz deialdietan), udal gehienetan ikusten denez. Gainera, lan horrek hainbat motatako tresnak izan ditu euskarri, eta askotariko eragileek parte hartu dute horietan, udalek berek, besteak beste. Arlo horretako lanaren izaera askotarikoa bereziki nabarmentzeko ezaugarria da neurri ertaineko eta txikiko udalerrietan.

Nolanahi ere, ez arlo batean ez bestean gogoetarik eta sistematizaziorik ez dagoenez, ez da lortu jarduera-esparru horiei proiekzio eta sendotasun handiagoa ematea tokiko garapenerako lankidetza-politikaren baitan.

**Hirugarrenik**, udal-lankidetzaren jarraitutasunean eta sakontasunean lan handia dago egiteko oraindik. Ohiko lankidetza-ereduen logikaren ondorioa da hori, hein handi batean; izan ere, eredu horiek proiektuetarako

diru-laguntzen deialdietan eta GGKEen protagonismoan oinarritzen dira, eta emaile-hartzaile logikan eta eskari aldakorretan oinarrituriko eskema erreproduzitzeko joera dute. Esan dugunez, udal-esparrua bereziki egokia izan daiteke funtzionamendu horizontalagoa eta jarraitua sustatzeko, denboran zehar iraungo duten ekintzak oinarri hartuta eta helburuetan eta kezketan elkarren antza duten erakunde eta entitateak protagonista direla. Jakina, ez da bertan behera utzi behar laguntzaren esparrua, baliabideen edo ezagutzen alde bakarreko transferentzian oinarritua; baina lankidetzarako espazioak eraiki behar dira, elkarrekikotasuna landu.

Euskal udal-lankidetzaren egoerak erakusten duenez, aurrerapen batzuk egin dira bide horretan, baina gutxi, oraindik. Horretan begi-bistako eragina du deialdietan oinarrituriko ereduak; izan ere, zuzeneko lankidetzako programen edo hitzarmenen gainean lan egiten denean baino barreiadura handiagoa eta unean uneko jarduerak sustatzeko joera dakar. Gure azterketatik ondorioztatzen denez, gai horiei buruzko kezka nabarmenagoa dute gogoetak edo plan estrategikoak landu dituzten neurri handiagoko udal batzuetan, eta, bestalde, udal txiki batzuetan ahalegin interesgarriak egin dituzte eta erlazio eta lankidetzarako lotura iraunkorragoak eraiki dituzte.

Ildo horretatik, bereziki aipatzekoak dira senidetze-ekimenak. Berez, epe luzera begirako elkarrekiko lankidetza sustatzeko borondatearen erakusgarri izan behar lukete, eta, udalak ez ezik, udalerriko beste erakunde eta eragile batzuek parte hartu beharko lukete ekimen horietan. Izan ere, tokiko esparrua bereziki egokia da era horretako harremanak eratzeko. Euskal udalek sinatutako senidetze gehienek, ordea, proiekzio urria izan dute garapenerako lankidetzaren arloan, eta, salbuespen adierazgarriren bat gorabehera, ez zaio arreta handirik eman tokiko gizarteko erakundeak senidetzeetan txertatzeko.

**Laugarrenik**, euskal udalek finantza-konpromiso sendoa hartu dute garapenerako lankidetzari begira, eta beren udalerrietako kontzientzia solidarioaren erakusgarri bikaina da hori, zalantzarik gabe. Gainera, kasu batzuetan konpromiso bereziki esanguratsuak hartu dira, euro/biztanle ekarpenak erreferentzia modura hartuz gero. Ikerketan ikusi dugunez, udalerrien neurria ez da aldagai esanguratsua gai horri dagokionez.

Nolanahi ere, euskal udalek garapenerako lankidetzarako jardueretara bideratutako funtsak ez datoz beti bat udalerriaren baliabideak erabiltzeko edo tokiko gizartean sakon sustraituriko lankidetza-politika bideratzeko erakutsitako gaitasunarekin. Kasu batzuetan, garapenerako lankidetzarako

finantza-konpromisoa printzipio-adierazpen hutsa izan da, udalak nazioarteko solidaritatean parte hartzeko duen borondatearen erakusgarria, zeina baita bere horretan positiboa. Solidaritatezko adierazpen horrek, ordea, ez du beti ahalbidetu tokiko gizartearen kontzientzia areagotzea edo gizartea garapenerako lankidetzako jardueretan gehiago inplikatzea.

Aurreko ohar horiek esangura berezia izango dute etorkizunari begira; izan ere, aurrekontuen eremuan sortuko diren zailtasun gero eta larriagoei aurre egin beharko die udalen borondate solidarioak, eta, beraz, ezin izango da mugatu finantza-ekarpenetara soilik. Aurrez aurre dugun testuinguru berri horretan, finantza-ekarpenak berak bezain garrantzizkoa izango da, edo are garrantzizkoagoa, tresna berriak sortzea eta gizarteko sektore guztien eta udalen baliabide guztien inplikazioa.

**Bosgarrenik**, EAEko erakundeen arteko koordinazioa eta eremu horretan udalek duten zeregina aipatu beharra dago. Jasotako informazioaren eta egindako analisiaren arabera, euskal udalek lankidetza-estrategia propioak garatu dituzte, gobernuak edo aldundiek landutako jarraibide edo gida-planetatik haratago, zeinetan ez baita oso kontuan hartzen udal-lankidetza. Alderdi horrek garrantzi handia du, kontuan hartuta Euskadin tradizio sendoa duela udalgintzak; izan ere, onura handia ekar liezaioke lankidetzaren arloari eta sinergiak eta osagarritasunak sortzeko elementua izan liteke. Ildo horretatik, azpimarratu beharra dago, beste behin ere, EAEko erakundeen artean informazio-sistema homologarririk eta bateragarririk ez izatea eragozpen handia dela euskal lankidetzaren azterketa egiteko -ez udal-lankidetzari dagokionez soilik- eta ahalmenen eta osagarritasunen diagnostiko partekatua egitea eragozten duela.

Gainera, EAEko lankidetzako partaidetza-organoen egiturak elkarren arteko loturarik gabeko hiru gogoeta-esparru sorrarazi ditu. Batetik, Eusko Jaurlaritzak edo Lankidetzaren Euskal Agentziak sustatutako partaidetza-organoak daude; esparru horretan, udalek ez dute presentziarik izan, gizarte-erakundeen partaidetza bideratzeko sortuak diren heinean. Bestetik, neurri handiko udalek sustatutako kontseiluak daude; horietan, gogoeta paraleloak bideratu dira, eta lankidetzari buruzko udal-ikuspegia edo tokiko ikuspegia eta horren ahalmena agerian uzteko aukera eman dute, hein batean soilik. Eta, azkenik, Euskal Fondoa dago, elkarte horretako udal aktiboenei gogoetan parte hartzeko aukera eman diena.

Aurreko guztiak lotura estua dauka euskal lankidetzaren erakunde-egituraren antolaketarekin, haren plangintza estrategikoarekin eta udalei esleitu izan

zaien eginkizun mugatuarekin. Ildo horretatik, nabarmendu beharra dago lankidetza-kontseiluak eta erakundeen arteko batzordeak bereizita egoteak ez diola dinamismo eta koordinazio handiagoa eman lankidetzari; aitzitik, zatiketa horren ondorioz, udalek ez dute behar adinako presentziarik izan beste esparru batzuetan planteatutako eztabaida eta gogoetetan.

Azkenik, **seigarren ohar modura**, Euskal Fondoak gaur egungo euskal udal-lankidetzaren sarea egituratzen egindako lana aipatu behar da, aipatu ditugun arazo batzuk arintzen lagundu baitu. Azterketa honetan eta bildutako iritzietan behin eta berriro aipatu da lan horren garrantzia. Udalerri askok adierazi dute Euskal Fondoak aukera ematen diela abantaila erantsi asko dituen lankidetza bat bideratzeko, udalen arteko koordinaziorako esparru bat eskaintzeaz gainera.

Analisian ikus daitekeenez -eta halaxe aitortu dute udal gehienek- neurri txikiko udalek etekin bereziki handia ateratzen diote Euskal Fondoan parte hartzeari, ekarpen txikietatik abiatuta gauza gehiago egin baititzakete, Euskal Fondoaren proiektuak bere egiten baitituzte eta haien baitako ekintzetan parte hartzen baitute. Hala ere, paradoxikoa da praktikan tresna eta bitarteko gehien dituzten udalerriak -neurri ertain edo handikoak- izatea elkarte horretako partaide aktiboenak.

Ildo horretatik, azpimarratzekoa da Euskal Fondoak ordezkari politikoak (alkateak, zinegotziak) garapenerako lankidetzan inplikatzeari begira betetako eginkizuna ere, bai elkartearen bileren bitartez bai ordezkariek tokian tokiko misio eta bisitetan parte hartzeko bidea zabalduz; azterlanean ikusi denez, sentsibilizaziorako garrantzizko elementua eta proiektu edo ekimen berrietarako abiapuntua izan dira (senidetzeak, erakunde-bisitak, lankidetzarako sostengu handiagoa...)[22].

## 4.2. Gomendioak

Ikerketa amaitu aurretik, eta hasieran planteatutako asmoei jarraituz, azterketan aipatutako alderdi batzuetatik eta atal honetan azaldutako ondorioetatik eratortzen diren gomendio espezifiko batzuk emango ditugu. Honako hauek, hain zuzen ere:

[22] Hala ere, udalek Euskal Fondoari diru-ekarpena besterik egiten ez dieten kasuetan, jarduera horiekiko urruntasun handi samarra sumatzen da, azpimarratu egiten da proiektu propioen eta EFren proiektuen arteko bereizketa, eta zalantzan jartzen da tokian tokiko misio horien eraginkortasuna (teknikari batzuek misio horiek izaera politiko agerikoa dutela ere esan dute).

a. Gure ustez, komenigarria da euskal udalek partekatutako erreferentzia-esparru bat eraikitzea, udal-oinarriko garapenerako lankidetzaren gida modura erabiltzeko. *Liburu zuria*n edo gisa horretako lanen batean zehaztu liteke esparru hori, oinarrizko ideia edo jarraibide batzuk bilduta, udalerrien autonomia errespetatuz betiere; bereziki interesgarria izan daiteke beren estrategiak lantzeko baliabide gutxien duten udalentzat.

b. Ildo beretik -izan ere, *liburu zuri* horren parte izan liteke-, interesgarria litzateke jokabide-kode bat prestatzea, udalek horiek aintzat hartuta bidera dezaten garapenerako lankidetzako jarduna. Badira era horretako aurrekariak beste erakunde batzuetan -hala nola, garapenerako lankidetzaren arlorako unibertsitateen jokabide-kodea-, eta haiek har litezke erreferentzia gisa.

c. Era berean, interesgarria iruditzen zaigu ikerketa honetan aztertutako gaien diagnostikoan eta ezagutzan sakontzea; bereziki, jardunbide egokien katalogo bat prestatzeko oinarri izan daitezkeen interes handieneko esperientzien diagnostikoan eta ezagutzan. Horretarako, udalen arteko mintegi bat antola liteke, beste eragile batzuei ere ateak irekita nahi izanez gero, esperientzia horiek aurkezteko eta eztabaidatzeko.

d. Gure ikuspegitik, gogoeta espezifikoa egin behar da zuzeneko lankidetzari buruz eta udal-erakundeek lankidetzako programa eta jardueretan parte har dezaten sustatzeko biderik egokienei buruz. Gainera, aurrez aurre ditugun joerek eta balizko erreformek bide horretan aurrera egitea eskatzen dute, gure ustez, gero eta zailagoa izango delako udalaz kanpoko eragileen bitartez soilik bideratzea lankidetza (GGKEen bidez edo bestelakoen bidez).

e. Beharrezkoa iruditzen zaigu, halaber, gogoeta eta analisia egitea senidetzeek elkargune eta solidaritaterako espazio gisa eskaintzen dituzten aukerei buruz. Gure ustez, ez da behar bezain luze eta zabal aztertu tresna horren baliagarritasuna; izan ere, aukera eman dezake udalerrien arteko lankidetza abian jartzeko (ez soilik udalen artekoa, baita beste gizarte-talde batzuen artekoa ere) eta sentsibilizazio-lana sustatzeko, lankidetzako proiektu eta programei estuago lotuta.

f. Hobetu egin beharko lirateke garapenerako udal-lankidetzari buruzko informazio-sistemak, egiten denaren gaineko ezagutza hobetzeko eta erakundeen arteko koordinazioa areagotzeko. Zehazki, biziki interesgarria litzateke baterako datu-base bat sortzea, xede horretarako berariaz diseinatua, euskal udalek lankidetzaren arloan egiten edo sustatzen

duten guztiaren berri emateko. Jakina, tresna horrek udalez haratagoko beste maila batzuen inplikazioa eskatzen du, baina udalek izan lezakete haren baitan lidergoa, aldundien, Eusko Jaurlaritzaren edo unibertsitatearen aurrean.

g. Gure ustez, ezinbestekoa da gogoeta espezifikoa egitea udalek Larrialdiko Laguntzan bete beharreko eginkizunari buruz. Arabako esperientzia erreferentzia egokia izan daitekeela iruditzen zaigu, instituzioen, finantza-erakundeen, gizarte-erakundeen nahiz partikularren kolaborazioan oinarriturik larrialdiko laguntzarako euskal fondo bateratua eratzeari begira. Bide horretatik, herritarrek premia horiei buruz duten sentsibilizazioan jar lezakete udalek arreta guztia, eta arlo horretako lanaren eraginkortasuna areagotu, horrela.

h. Funtsezkoa deritzogu Euskal Fondoaren lana eta egiturak sendotzeari, aurreko proposamen horiek bideratzeko eta abian jartzeko erreferentziazko erakunde bakarra den heinean. Nolanahi ere beharrezkoa da, gure ustez, euskal udalek presentzia handiagoa izatea EAEko erakundeen arteko organoetan eta partaidetza-organoetan, udalen lankidetzako proiektu eta programek presentzia handiagoa izan beharko luketelako euskal lankidetzaren gogoeta eta programazio estrategikoan.

# Bibliografia

Badia i Dalmases, Francesc (2009): **Los gobiernos locales en la acción exterior. Una visión desde Cataluña**. CIDOB edicions, Bartzelona.

Bontenbal, Marike (2009): "*Strengthening urban governance in the South through city-to-city cooperation: Towards an analytical framework*". **Habitat International**, 33. zk., 181.-189. or.

CAD/OCDE (2005): **Declaración de París sobre la Eficacia de la Ayuda al Desarrollo**. http://www.oecd.org/dac/aideffectiveness/34580968.pdf (azken bisita: 2013/01/29)

CAD/OCDE (2008): **Programa de Acción de ACCRA**. www.oecd.org/dac/aideffectiveness/34580968.pdf (azken bisita: 2013/01/29)

CAD/OCDE (2011): **Declaración de Busán**. www.aideffectiveness.org/busan hlf4/images/stories/hlf4/OUTCOME_DOCUMENT_-_FINAL_EN.pdf (azken bisita: 2013/01/29)

Carballo, Silvia eta Rodriguez, Natalia (2008): **Análisis de la cooperación pública en Gipuzkoa 2005 - 2007. Una mirada a la cooperación descentralizada.** Euskadiko GGKEen Koordinakundea. Donostia.

Confederación de fondos de cooperación y solidaridad-CONFOCOS (2001): **Municipalismo y solidaridad. Guía sobre la cooperación descentralizada.** Cooperación Municipal al Desarrollo bilduma. zk. Bartzelona.

Confederación de fondos de cooperación y solidaridad-CONFOCOS (2010): **Cooperación Municipal Directa a través del Instrumento del Hermanamiento.** 28. ebaluazio-txostena. AECID. Madril.

Coordinadora de ONGD para el Desarrollo España-CONGDE (2012): **Informe de la Coordinadora de ONG para el Desarrollo-España sobre el sector de las ONG 2011**. Publicaciones Coordinadora, Madril.

Euskal Fondoa (zenbait urte): **Memorias.**

Euskal Fondoa (2007): "*La cooperación descentralizada. Los municipios, actores de primer orden*", PTM-Mundu Bat: **Riesgos y oportunidades en la cooperación descentralizada**. Gakoa, Donostia.

Federación Española de Municipios y Provincias-FEMP (2007): **La cooperación al desarrollo de las Entidades Locales, Informe 2005.** FEMP. Madril.

Federación Española de Municipios y Provincias-FEMP (2011a): **La cooperación al desarrollo de las Entidades Locales, Informe 2010**. FEMP. Madril.

Federación Española de Municipios y Provincias-FEMP (2011b), **Manual de gestión de la cooperación para el desarrollo de los gobiernos locales**. FEMP. Madril.

Fernández de Losada, Agustí; Godínez, Víctor eta Rimez, Marc (koord.) (2009): **De Valparaíso a México, la agenda de París vista desde lo local**. Observatorio de Cooperación descentralizada UE-AL.

González Martín, Miguel; Fuente, Noemí de la; Sagastagoitia, Jon (2007): **Zenbakiez haratago: la cooperación al desarrollo vasca a debate**. Alboan, Bilbao.

Iborra, Juanjo eta Santander, Guillermo (2012): **La cooperación para el desarrollo en la Comunitat Valenciana**. 2015 y más argitaletxea, Madril.

Johnson, Hazel eta Wilson, Gordon (2006): "*North-South/South-North partnerships: closing the 'mutuality gap*". **Public Administration and development**, 26. zk., 71.- 80. or.

Malé, Jean-Pierre (2008): **Panorámica de las prácticas y tendencias actuales de la cooperación descentralizada pública**. Observatorio de Cooperación Descentralizada UE-AL.

Martínez, Ignacio eta Sanahuja, Jose Antonio (2009): **La agenda internacional de eficacia de la ayuda y la cooperación descentralizada de España**. 38. lan-dokumentua. Carolina fundazioa.

Martínez, Ignacio eta Santander, Guillermo (2009): *"La Declaración de París y la cooperación descentralizada"*, **Anuario 2008 de la Cooperación Descentralizada**, Observatorio de la Cooperación Descentralizada, Bartzelona.

Martínez, Ignacio eta Santander, Guillermo (2010): **La Cooperación al Desarrollo en la Comunidad de Madrid**, Estudios e Informes ICEI nº5, Instituto Complutense de Estudios Internacionales, ICEI FONGDCAM, Madril.

Martínez, Ignacio eta Santander, Guillermo (2011): *"La cooperación descentralizada aportaciones para la eficacia de la ayuda"* , in **Cooperación Internacional y Desarrollo, Revista Sistema, n220. zk.**, 2011ko urtarrila, Madril. 79.-98. or.

Martínez, Ignacio; Medina, José eta Guillermo Santander (2012): **La Cooperación Madrileña. Crisis de una política necesaria**. 2015 y más. Federación de ONGD de Desarrollo de la Comunidad de Madrid.

Rodriguez, Natalia eta Beaskoetxea, Irune (2012): **Análisis de la cooperación pública vasca 2008 - 2010. Una mirada a la cooperación descentralizada**. Euskadiko GGKEen Koordinakundea. Bilbao.

Ruiz Seisdedos, Susana (2005): "*Unha análise crítcia da cooperación descentralizada*". **Tempo Exterior**, 11. zk., 119. - 129. or.

Ruiz Seisdedos, Susana (2008): "*La Cooperación Descentralizada, un nuevo modelo de desarrollo: análisis de las relaciones España - Nicaragua*". **HAOL**, 15. zk., 1070. - 120. or.

Sanchez Jacob, Eduardo (2003): **Análisis de la Cooperación Descentralizada en el Estado español (1999-2002)**. Coordinadora ONGD para el desarrollo España-CONGDE. Madril.

Santander, Guillermo (2010): *"La cooperación al desarrollo del Ayuntamiento de Madrid: el desafío del municipalismo"* en Rosa de la Fuente (koord.): **Los nuevos actores en la cooperación internacional. El papel de los gobiernos locales y regionales**, Los Libros de la Catarata-IUDC, Madril. 141.-150. or.

Unceta, Koldo et al. (2011): **La cooperación al desarrollo descentralizada: una propuesta metodológica para su análisis y evaluación**. Hegoa Institutua (UPV/EHU), Bilbao.

Unceta, Koldo et al. (2012): **25 años de cooperación al desarrollo en Euskadi. La política de las instituciones públicas y el sistema vasco de cooperación**. Hegoa Institutua (UPV/EHU), Bilbao.

Van Ewijk, Edith (2008): **Decentralized cooperation between Dutch municipalities and municipalities in migrant countries. Main developments and main theoretical debates illustrated by several case studies**. Report for NCDO. Amsterdam Institute for Metropolitan and International Development Studies.

Van Ewijk, Edith eta Baud, Isa (2009): "*Partnership between Dutch municipalities and municipalities in countries of migration to the Netherlands; knowledge exchange and mutuality*". **Habitat International**, 33. zk., 218. - 226. or.

# I. Eranskina

| 1. taula. Lagineko udalerrietan egindako elkarrizketak | | | |
|---|---|---|---|
| | Udalerria | Elkarrizketatutako pertsona (kargua) | Data |
| Hiriburuak | Bilbao | Miguel Pérez (Garapenerako Lankidetzako Teknikaria) | 02/24 |
| | Vitoria-Gasteiz | Aitor Gabilondo (Garapenerako Lankidetzako Teknikaria) | 03/02 |
| | Donostia | Agurtzane Orthous (Garapenerako Lankidetzako Teknikaria)<br>Arantxa Ferreras (Garapenerako Hezkuntzako Teknikaria) | 04/25 |
| Bizt. kop. > 10.000 | Barakaldo | Pilar González (Lankidetzako eta Berdintasuneko Teknikaria) | 05/16 |
| | Getxo | Unai García Gallastegi (Garapenerako Lankidetzako Teknikaria)<br>Kepa Miñambres (Kalitate eta Informazio Sistemen Arloko Zinegotzia) | 03/09 |
| | Irun | Mª Carmen Quesada (Garapenerako Lankidetzako Teknikaria) | 06/05 |
| | Santurtzi | Susana Martin (Gizarte Ekintzako Arloaren Zuzendaria) | 08/07 |
| | Durango | María Villar (Gizarte Gaietako Teknikaria) | 03/13 |
| | Erandio | Josune Ezcurra (Gizarte Ekintzako Teknikaria)<br>Asier Zubiaur (Kirol eta Gazteria Zinegotzia) | 05/21 |
| | Hernani | Irantzu Jauregi (Berdintasun, Immigrazio eta Lankidetzako Teknikaria) | 05/18 |
| | Laudio/Llodio | Juanan Urkijo (Gizarte Ongizateko Teknikaria) | 03/16 |
| | Lasarte-Oria | Gorka Lizarraga (Gizarte Zerbitzuetako eta Enpleguko Zinegotzia) | 07/20 |
| | Amorebieta-Etxano | Begoña Nazabal (Gizarte Ekintzako Arloaren Arduraduna) | 05/10 |
| | Ermua | Ane Enzunza (Immigrazioko Teknikaria) | 05/22 |
| | Andoain | Anabel Sanz (Gizarte Ekintzako Arloaren Arduraduna) | 05/17 |
| | Azkoitia | Xabier Arrieta (Gizarte Ongizateko Teknikaria) | 03/20 |
| | Oñati | Esther Loibide (Gizarte Ongizateko Teknikaria) | 03/14 |
| | Amurrio | Mª Jesús Udaeta (Gizarte Ongizateko Arloko Teknikaria) | 06/18 |
| Bizt. kop. < 10.000 | Ordizia | Inma Balerdi eta Jone Herrero (Gizarte Ongizate, Osasun eta Kontsumo Saileko Arduraduna eta Teknikaria, hurrenez hurren) | 03/21 |
| | Lekeitio | Begoña Sierra (Gizarte Zerbitzuetako Teknikaria) | 06/04 |
| | Abadiño | Iratxe Zabala (Gizarte Ongizateko Teknikaria)<br>Javier Crespo (Gizarte Ongizateko Zinegotzia) | 03/13 |
| | Elorrio | Ana Otadui (Alkatea) | 06/11 |
| | Aretxabaleta | Mirari Aiastui eta Begoña Arenaza (Gizarte Gaietako Teknikariak) | 03/16 |
| | Güeñes | Susana López- Para (Funtsen Ikuskatzailea)<br>Juan Martín Pérez (Enplegu eta Herritar Harremanetako Zinegotzia)<br>Raúl San Román (Güeñes Gaztea Programaren Arduraduna) | 05/23 |
| | Berriz | Marije García (Gizarte Gaietako Teknikaria) | 03/14 |
| | Ibarra | Xabier Jauregi (Gizarte Zerbitzuetako Teknikaria) | 05/30 |
| | Zizurkil | Nerea Lizarraga (Zinegotzia) | 05/24 |
| | Getaria | Mertxe Arregi (Gizarte Zerbitzuetako Teknikaria) | 03/20 |
| | Berastegi | Mirari Saizar eta Estibaliz Saralegi (Zinegotziak) | 05/24 |
| | Maruri-Jatabe | Eider (Gizarte Ongizateko Teknikaria)<br>Gema Larrazabal (Zinegotzia) | 03/09 |
| | San Millan/ Donemiliaga | David López de Arbina (Alkatea) | 07/30 |

# II. Eranskina

**1. taula. Lagineko udalerrietako politikako dokumentuetan eta diru-laguntzen deialdietan tokiko garapenari ematen zaion garrantzia**

| | Udalerria | Lehentasunezko helburu/sektoreetan duen isla | Baremazioan duen isla |
|---|---|---|---|
| Hiriburuak | Bilbao | 2010-2013 Lankidetzarako Gida Planean esaten da lehentasunezko jarduera-esparrua tokiko esparrua izango dela, eta esparru horretan udalak berak lanerako dituen aukerak bultzatuko direla; tokiko boterea da hiru lan-eremuetako bat, emakumeen ahalduntzearekin eta gizarte-aldaketarako sentsibilizazioarekin eta hezkuntzarekin batera. | |
| | Donostia | 2008-2011 Kooperazioko Udal Planean, tokiko garapena eta gaitasunak sortzea nabarmentzen dira, Donostiako lankidetza-politikaren ezaugarri nagusien artean, eta gaur egun tokiko esparruek eta horien askotariko osagaiek duten garrantzia azpimarratzen da. Horrekin guztiarekin batera, tokiko boterearen garrantzia azpimarratzen da, estrategia guztiaren zeharlerro modura hartuta. | |
| | Vitoria-Gasteiz | 2010-2013 Plan Zuzentzailean, tokiko garapenarekin loturiko gaiei buruzko jarraibide espezifiko bat planteatzen du Gasteizek, gaitasunen sorrera eta pertsonen bizi-baldintzen hobekuntza eraginkorra uztartzen dituzten gai guztiak hartuta tokiko garapenerako gai modura. Gainera, ekintzak tokiko lurralde-eremuari uztartzeko premia aipatzen da. | |
| Bizt. kop. > 10.000 | Amurrio | | Lankidetzako proiektuak balioesteko irizpideetan, honako hau agertzen da, 68 puntuko gehieneko baremazioan: *Erakunde komunitarioen sustapena, baterako garapena* (3 puntu). |
| | Barakaldo | | Lankidetzako proiektuak balioesteko irizpideetan, honako hau agertzen da, 100 puntuko gehieneko baremazioan: *Oinarriko erakundeen sustapena* (3 puntu). |
| | Azkoitia | | Lankidetzako proiektuen baremazio-irizpideetan, 10 puntuko gehieneko baremazioan, honako hau agertzen da: *Garapen komunitarioko programen baitan gauzatzea, komunitate onuraduneko kideen partaidetza eta prestakuntza sustatzea eta tokiko erakundeen garapena indartzea* (1 puntu, gehienez). |
| | Ermua | Lankidetzako proiektuen irizpideetan, honako hau agertzen da: “Aurkeztutako proiektuek honako eduki hauek barne hartu behar dituzte, besteak beste: emakumearen sustapena, garatuko diren komunitatearen sustapena, eta komunitate hori osatzen duten pertsona garapen pertsonal, sozial eta komunitarioaren sustapena” | Lankidetzako proiektuak balioesteko irizpideetan, honako hau agertzen da, 135 puntuko gehieneko baremazioan: *Tokiko erakundeen garapena sustatzea* (4 puntu). |
